

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Huts-zuzenketa, honako honena: 2236/2025 iragarkia, 2025eko uztailaren 28ko ALHAOn (84. zk.) argitaratua, uztailaren 14ko 185/2025 Foru Agindua jasotzen duena, Arabako Lurralde Historikoan eskola-adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programak arautzen dituen araudiari buruzkoa

Hutsak aurkitu dira 2025eko uztailaren 28ko ALHAOn (84. zk.) argitaratutako 2236/2025 iragarkian. Iragarki horrek uztailaren 14ko 185/2025 Foru Agindua jasotzen du, Arabako Lurralde Historikoan eskola-adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programak arautzen dituen araudiari buruzkoa; izan ere, argitalpen horretan ez ziren artikuluko bakoitzaren ordinalak sartu. Beraz, akats horiek zuzendu behar dira, eta xedapen osoa berriro argitaratu behar da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 30a

Kultura eta Kiroleko foru-diputatua

ANA MARÍA DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria

JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN

Araudia, Arabako Lurralde Historikoan eskola-adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programak arautzen dituen

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.36 artikulua xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du arlo honetan: "Turismoa eta kirola. Aisia eta jolasa."

Aurreko aginduari dagokionez, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremanei buruzkoak (aurrerantzean, LHL), 7.b) 6. artikuluan adierazten du lurralde historikoak garatzeko eta betearazteko eskumena dela "Kirola sustatzea. Eskola kiroleko programa eta kiroleko programak denontzat".

Ondoren, 8.2 artikulua ezartzen du ezen, lurralde historikoei arauak garatzea eta betearaztea dagozkien gaietan, honako ahal hauek dituztela lurralde historikoei: a) erakunde erkideetatik datozen arauen araugintza garapena, eta ezin direla arau horietan xedatutakoaren aurka joan foru organoek emandako arauak; b) araugintza; c) administratiboa, ikuskapena barne; d) berrikuslea administrazio-bidean.

LHLk eskema klasikoaren arabera banaketa egiten du oinarritzko arauen eta garapen- eta betearazpen-arauen artean. Banaketa horretan, erakunde erkideek beretzat gordetzen dute oinarritzko edo funtsezko antolamendua, Euskadi osoan gaiari buruzko arau komun bat bermatze aldera; lurralde historikoei, berriz, beren araugintza eskumena egikaritzeko lekua izan behar dute, bai eta arlo horretan foru interesak kontuan hartuta egokituz jotzen dituzten erregulazioak sartzeko ere.

Eskumen banaketa horretan oinarrituta eman jada indargabetuta dagoen ekainaren 11ko 14/1998 Euskadiko Kirolaren Legea, zeinak, lege sektoriala den aldetik, Euskal Autonomia Erki-degoko erakundeek kirol arloan dituzten eskumenen banaketa ezarri zuen. Eskumen banaketa horren arabera, erakunde erkideek eskumena zuten “eskola kirolaren oinarriak eta printzipio orokorrak, kirol diziplinako araubidea eta lehiaketa”k arautzeko. Bestalde, lurralde historikoe-tako foru organoei eskumen hau esleitzen zitzaien, bakoitzari bere lurralde eremuan: “Euskal Autonomia Erkidegoak eskola kirolaren arloan duen araudia arauz garatzea eta betearaztea, azken hori udal administrazioarekin koordinatuta”.

Eskumenak banatzeko eskema hori errespetatuta, Eusko Jaurlaritzak Eskolako Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua onartu zuen, EAEko eskolako kirolaren oinarri eta printzipio orokorrak ezarriz, baina lurralde historikotako foru organoek arauak garatzeko duten eskumena errespetatuz, lurralde bakoitzaren egoera eta interesak kontuan hartuta komeniga-rritzat jotzen dituzten erregulazioak sartzeko.

Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolamenduari buruzko 1983ko martxoaren 7ko Foru Arauaren 6. artikulua arabera, Batzar Nagusiei zegokien erakunde erkideen xedapenak arau bidez garatzeko ahalmena. Eskumen esleipen horretan oinarrituta, Arabako Batzar Nagu-siek Arabako Lurralde Historikoko eskolako kirolari buruzko urriaren 28ko 21/2020 Foru Araua onetsi zuten. Azken xedapenetatik lehenengoak berariaz gaitzen zuen Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen sailaren titularrak hura garatu eta gauzatzeko behar diren xeda-pen guztiak emateko.

Arautzeko gaikuntza horren babesean, otsailaren 19ko 50/2021 Foru Agindua onetsi zen, Arabako Lurralde Historikoko eskola kiroleko programen araudiari onespina ematen diona, eta, ondoren, apirilaren 11ko 90/2022 Aginduak aldatu zuen.

Indarrean egon den bitartean, hainbat gorabehera izan dira, eta, ondorioz, beste foru-agindu bat onetsi behar izan da. Hura egiteko aurretiazko kontsultaren hasierako izapidean adierazten zenez, argitaratu ondoren hainbat lege onetsi dira, eta horiek “eskola kirola” esaten zitzaion eremuaren araubidea arautu dute edo, kasuan kasu, nabarmen eragin diote. Eta, bestalde, otsailaren 19ko 50/2021 Foru Agindua aplikatzean ere hainbat gabezia eta disfuntzio hauteman dira, eta, ondorioz, gai horretan beste esku hartze arauemaile bat egitea komeni da.

Arlo horretan erregulazioa egin edo eragina izan duten arauen artean aipa daitezke, adibide gisa, 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Osorik Babeste-koa; 8/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoa; 2/2023 Lege berria, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena; eta 4/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

Martxoaren 30eko 2/2023 Lege berri hori eskola adineko jarduera fisikoaz eta kirolaz ardura-tzen da, berrikuntza esanguratsu batekin. Aurreko legean, kirolaren segmentu hori nahitaezko es-kolatze aldiko biztanleriara mugatuta zegoen, hau da, 6-16 urteko adin tartekora. Orain 0-6 urteko tartea sartu da, osasunaren arloan babes berezia merezi duena, erakunde publiko eskudunen eta eremu horri lotutako eragileen adostasunaren ondorioz. Martxoaren 30eko 2/2023 Legearen testu artikulatu berriak eskola adineko etapak eta etapa bakoitzaren ezaugarriak zehazten ditu.

Arau testuinguru horrekin, Arabako Foru Aldundiaren 2024ko eta 2025eko ekitaldietako Ur-teko Araugintza Planak beste foru agindu bat onestea aurreikusten du, eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren urteko programen indarreko erregulazioa onartutako lege berrietara egokitzeko.

Foru aginduak sarrerako I. kapitulua du, eta bertan jasotzen dira xedearen eta aplikazio eremuaren gaineko xedapen orokorrak, printzipio orokorrak, definizioak eta eduki orokorreko beste gai batzuk. Nabarmendu behar da handitu egiten duela programen adin tartea, Haur Hezkuntzari dagokion 0-6 urteko tartea jasotzen baitu.

II. kapituluak egitura eta funtzionamendua jorratzen ditu, programen urteko onespena arautuz, eta programen hartzaileak, etapak, kategoriak, adinak eta lurralde eremuak, ibilbideak eta ibilbide horiek osatzen dituzten kirol jarduerak, eta programan parte hartzen duten egiturak eta eragileak definituz. Hain zuzen ere, foru aginduaren berrikuntzetako bat da programetan parte hartzen duten eragileen erregulazio zabala, haien betekizun, eskubide eta betebeharrekin. Era berean, kapitulu horretan, programen antolamendu arkitektura ezartzen da koadro batekin. Koadro horrek, alde batetik, ibilbideak identifikatzen ditu, eta, bestetik, ibilbide horiek osatzen dituzten jarduerak.

III. kapituluak arreta berezia eskaintzen dio ibilbide bakoitzeko jarduerak arautzeari. Aginduaren ekarpen batzuk aipatzearen, esan daiteke adin goiztiarrenetan multikiroleko jarduera sustatzen dela, espezializazio goiztiarra eta hastapeneko etapako entrenamendu intentsiboa mugatuz. Foru agindu honetan malgutu egiten dira taldeak edo ekipoak egiteko arauak, erakundeen, modalitateen eta lurraldearen errealitate guztietara egokitzeko, batez ere parte hartzeko ibilbidean. Era berean, ikastetxeek programetan duten presentzia indartzen da, eta, adibidez, galarazi egiten da aurrebenjamin kategorian kirol klubek beren ikastetxean modalitatea edo diziplina duten ikasleak inskribatzea. Era berean, foru aginduan adin goiztiarretako lehiaketan murrizketak malgutuz dira, baldin eta batez ere helburu ludikoa eta hezitzailea badute.

IV. kapituluak lehiako kirolari buruzko araudia jasotzen du. Alderdi esanguratsu gisa, esan daiteke lehiaketak adin bakoitzerako eta kirol modalitateen errealiterako egokiagoak diren arauarekin antolatzeak aukera ematen duela, edozein zurruntasun alde batera utzita eta eskola adinean dauden kirolarientzako arau egokitzapen gomendagarrienak ahalbidetuta. Era berean, foru aginduan adin goiztiarretako lehiaketan murrizketak malgutuz dira, baldin eta batez ere helburu ludikoa eta hezitzailea badute. Era berean, IV. kapitulu horretan harmailetan errespetua sustatzeko neurriak jasotzen dira.

V. kapituluak eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programetan parte hartzen duten erakundeen, taldeen edo ekipoen inskripzioak arautzen ditu. Berritasunetako bat inskripzioak ezeztatzeak aukera da, inskripzioa baliozkotu ondoren baldintzak ez betetzeagatik.

Erakunde laguntzaileek parte hartzeko araubidea oso garrantzitsua da, urteko programak gauzatzeko ezinbesteko eragileak baitira, eta VI. kapituluan jorratzen da. Foru agindu berriekin, erakunde laguntzaileek kirolarien eta eskola adineko kirol lehiaketetan parte hartzen duten gainerako eragileen artean kiroltasuna sustatzeko berariazko arauak edo neurriak sartu beharko dituzte lehiatzeko araudietan. Aurreikusitako beste neurri bat da eskola kirolaren programako jardueretan begirale, entrenatzaile edo kirol zuzendari lanetan diharduten erakunde laguntzailearen berezko langileek gutxienez B2 hizkuntza gaitasuna izan beharko dutela kasu jakin batzuetan. Betebehar horretatik salbuetsita daude foru agindu hau indarrean jartzean erakunde laguntzailearekin lan edo boluntariora kontratua duten langileak.

VII. kapituluak zenbait xedapen jasotzen ditu irabazteko xederik gabeko erakundeen joan-etorriei buruz, bai Arabako Foru Aldundiak emandako lokomozio bitartekoen bidez bai holakorik eman gabe egindako joan-etorriei buruz entrenamenduak egiteko joan-etorriak barne. Administrazio izapideetatik kanpo utzitako joan-etorrien zerrenda zabaldu da, eta, berritasun gisa, joan-etorri horietan baimenduta ez dauden portaerak ezarri dira.

VIII. kapituluan administrazio baimenak ematea arautzen da. Araubide berrian, urteko programan sartuta ez dauden jarduerak antolatzeak eta horietan parte hartzeko baimen eskaerak egin beharreko kasuak murriztu eta xehetasun handiagoz zehaztu dira.

Azkenik, foru agindu hau ohiko xedapen gehigarri, iragankor eta indargabetzaileekin eta azken xedapenekin amaitzen da.

Agindu hau izapidetzean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako eta Foru Gobernuaren Kontseiluaren Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko otsailaren 28ko 6/2023 Foru

Dekretuan jasotako erregulazio onaren printzipioak bete dira. Era berean, kontuan hartu dira Gobernanzako zuzendariaren irailaren 23ko 4593/2024 Ebazpenean jasotako araugintza jarraibideak, Foru Gobernuaren Kontseiluaren otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuak, xedapen orokorrek egiteko prozedura onesten duenak, aipatutako gidak eta ereduak onartzeari buruzkoak.

Hala, azaldutako aurrekarietan, nahikoa arrazoitu da Arabako Lurralde Historikoko eskola adineko jarduera fisiko eta kiroleko programak berriro arautu beharra dagoela eta, gainera, jarduera arauemaile proportzionatua da, lortu nahi den helburua (urteko programen antolakuntza eta funtzionamendua arautzea alegia) erdiesteko ezinbesteko gutxienekora mugatzen baita.

Era berean, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatu da, behar bezala justifikatu baita, alde batetik, foru agindu horren txertatzea indarreko ordenamendu juridikoan, eta bestetik, printzipio hori ematen duen organoaren gaikuntza.

Gardentasun printzipioa ere betetzen du. Araua egiteko prozeduran, erakunde hartzaile izan daitezkeen parte hartze aktiboa ahalbidetu da, alde aurreko kontsultaren eta ondorengo entzunaldiko eta jendaurrean jartzeko izapidetza bidez.

Efizientzia printzipioari dagokionez, proposatu den arauketak, bere izaera dela-eta, ez dakar zama administratibo osagarririk edo alferrikakorik herritarrentzat, ezta baliabide publikoen kontsumo handiagorik ere.

Era berean, foru agindu honek sinpletasun eta ulergarritasun printzipioak errespetatu nahi ditu.

Kontuan hartu behar da, halaber, xedapen arauemaile hau egiteko eta izapidetzeko orduan kontuan hartu dela martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren edukia (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen Dekretua), Arabako Lurralde Historikoko eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren erregulazioan honako hauek bultzatzeko: tratu berdintasuna, aukera berdintasuna, dibertsitatearekiko eta desberdintasunarekiko errespetua, ekintza positiboak sustatzea, sexuaren araberako rola eta estereotipoak ezabatzea, ordezkaritza orekatua eta erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak. Hala, eskola adineko jarduera fisikoak eta kirolak emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatu beharko dute egiten diren ekintza guztietan, gaur egun kirolaren eremuan dauden genero etenak txikituz joateko helburuaz. Horrek berekin dakar neskentzako eta neska nerabeek kirol jardunean parte har dezaten sustatzea, bereziki haien presentzia txikiagoa den diziplinetan, eta emakumeen presentzia orekatua ziurtatzea eskola kiroleko programen barruan dauden jardueretan esku hartzen duten teknikari, epaile eta arbitroen multzoan.

Horregatik, Arabako Foru Administrazioako Kontsulta Batzordeari entzun, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

Foru agindu honen xedea da Arabako Lurralde Historikoan jarduera eskola adineko fisikoaren eta kirolaren urteko programak arautzea.

2. artikulua. Eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren urteko programen printzipio integratzaileak

Arabako Lurralde Historikoko eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko urteko programen diseinuan, plangintzan eta garapenean honako printzipio hauek txertatu behar dira:

a) Jarduera fisikoa eta kirola eskola adinean egitea bermatzea, batez ere kirol anitzetan, eta ez soilik lehiaketara bideratuta, halako moldez, non ikasle guztiek ezagutu eta garatu ahal

izango duten, beren borondatearen, gaitasun fisikoaren eta adinaren arabera. Hori lortzeko, eskaintako jardueren aniztasuna ezagutzeko eta praktikatzeko aukera sartuko da, bai multikiroleko jarduera bere bariedade guztietan (multi A, multi B eta multi C), bai kirol bakarreko hainbat jarduera aukeratu eta praktikatzeko aukera, eta, halaber, hainbat neurri jasoko ditu, hala nola asteko saioen kopurua mugatzea edo programa eta jardueren egutegiak koordinatzea.

b) Adingabeek lehia kirolean parte hartu nahi duten ala ez beren borondatez erabakitzeke duten eskubidea errespetatzea, bai eta jarduera batean edo batzuetan (kirol bakarrekoak edo multikirolekoak izan) askatasunez parte hartzeko eskubidea ere.

c) Kirol modalitate eta diziplinekiko nahiz bestelako jarduera fisikoekiko lotura bermatzen duten askotariko jarduerak eskaintzeko konpromisoa, jarduera lehiakorrek eta ez lehiakorrek egotea, horien urteko iraupena edo unean unekoa, eta eskola ume guztientzat edo inskribatutako pertsonentzat soilik irekitzea.

d) Adingabea kirol lehiaketan pixkanaka sartzea, haren gaitasunak eta bilakaera etapak errespetatuz. Hori lortzeko, kategorietan aurrera egin ahala, jarduerak tokitik edo eskualdetik lurraldera igaroko dira, eta ondoren autonomia eremura eta autonomiaz gaindiko eremura. Era berean, pixkanaka, entrenamendu eta lehiaketa saio gehiago egongo dira eta kirol anitzeko jardueran aritzetik kirol modalitate edo diziplina batean jardutera pasatzeko.

e) Adingabea babestea, haurren eta nerabeen kirol ohiturei, garapen osoari eta, bereziki, osasunari kalte egin diezaieketen espezializazio goiztiarreko eta intentsitate handiko entrenamenduko egoerak saihestuz. Helburu hori lortzeko, entrenamendu metodoek eta planek adingabeen gaitasun pertsonalak errespetatu beharko dituzte, bai eta haien hezkuntza premiak eta gizarte, familia eta harreman beharizanak ere.

f) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea garatzen diren ekintza guztietan, gaur egun kirolaren eremuan dauden genero arrakalak murrizten joateko helburuz. Neskek kirol jardueran parte har dezaten bultzatzea, batez ere ordezkaritza txikia duten diziplinetan, eta garatutako jardueretan parte hartzen duten teknikarien, epaileen eta arbitroen artean emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izango dela bermatzea.

g) Desgaitasuna duten ikasleak ikaskideekin integratzea eta ikaskide horiek eduki posible guztietan sartzea.

h) Zailtasun ekonomikoak eta sozialak dauzkaten kolektiboetako haurrek eta nerabeek programako jardueretan parte hartzeko eta baliabideak erabiltzeko beste guztiek dauzkaten aukera berak edukitzea eta lehentasuna ematea, urteko programetan parte hartzeko aukera eduki dezaten.

i) Ikasleen kirol jardueraren esparruan euskararen erabilera sustatzea.

j) Ohiko jarduera fisikoak eta kirol jarduerak sustatzea, adingabeke guztiak toki bakoitzean kolektiboari egokitutako jardueretan, jokoetan eta kirolean sar daitezen errazteko.

k) Balio hauek sustatzea: elkartasuna, konpromisoa, talde lana, adiskidetasuna, berdintasuna, indarkeriarik eza, diskriminaziorik eza eta jatorri, arraza, sexu identitate edo orientazio aniztasunarekiko errespetua. Horretarako, balio horiek integratzen eta saritzen dituzten proiektuak eta lehiaketak sustatuko dira, eta balio horien aurkako jarrerak saihesten saiatu.

l) Eskola jazarpena, sexu jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzea jarduera garatzean, bai eta sexu orientazioagatiko, identitateagatiko edo adierazpenagatiko edo sexu ezaugarriengatiko diskriminazioa baztertzea ere.

m) Kirola egitea adingabeen hezkuntza arautuarekin, jolasarekin, aisialdiarekin eta familia bizitzarekin uztartzeko baldintzak sustatzea.

3. artikulua. Eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren kontzeptua

Martxoaren 30eko 2/2023 Legean xedatutakoaren arabera, eskola adineko jarduera fisikoa eta kirola dira 16 urte bete arte eskola orduetatik kanpo ikasleek egiten duten kirol jarduera antolatua.

4. artikulua. Datu pertsonalen babesa

1. Programan parte hartzen duten erakunde eta pertsonen inskripzioaren bidez lortutako datu pertsonalak tratatuko dira eta «Kirolariak» izeneko tratamendu jardueraren erregistroan sartuko dira. Erregistro horren arduraduna Arabako Foru Aldundiko gobernu kontseilua da.

2. Programan parte hartzen duten erakundeak eta VI. kapituluaren azaltzen diren erakunde laguntzaileak arduratuko dira Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko datuen tratamenduz: ez dituzte datu horiek beste helburu batzuetarako aplikatuko ez erabiliko, eta ez dizkiete beste pertsona batzuei emango, lege horretarako gaituta dauden kasuetan izan ezik. Gainera, kirolaren arloko eskumena daukan zuzendaritzak ezarritako jarraibideak kontuan eduki beharko ditu datuak tratatzean.

Zehazki, programan inskribatutako erakundeek bete egingo dituzte eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programa kudeatzeko beharrezkoak diren datu pertsonalen tratamenduaren arduradun sinatu beharreko kontratu hispaketak, eta horiek inskripzioa egiteko unean onartuko dira. Hizpaketa horien artean egongo da parte hartzaileei (edo haien legezko ordezkari, adingabeen kasuan) datu pertsonalen tratamenduaren arduradunaren identitateari, xedeari eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren (datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen Erregelamendua) 15. artikulutik 22. Artikulura bitartean ezarritako eskubideak baliatzeko aukerari buruzko informazioa emateko betebeharra, bai eta datu pertsonalen tratamenduaren informazio osoa eskuratzeko helbide elektronikoko bat ere.

3. Kirol arloan eskumena duen foru aldundiko zuzendaritzak bermatuko du erakundeek eta parte hartzaileek emandako datuak ez direla erabiliko ezarritakoa ez den beste ezertarako, eta ez direla jakinaraziko lege gaitutako kasuetatik kanpo.

4. Nolanahi ere, datu pertsonalen tratamendua datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera egingo da.

5. artikulua. Aseguruak

1. Arabako Foru Aldundiak aseguratuko ditu agindu honen 13. artikuluan jasotako agenteak, eskola adineko jarduera fisikoen eta kirolaren urteko programetan aurreikusitako edozein kirol jardueratan inskribatuta daudenak, edo eskola lizentziarekin parte hartzeko baimena eman zaien jardueretan parte hartzen dutenak, honako aseguru modalitate hauetan:

a) Erantzukizun zibileko aseguruak.

b) Kalte ordaineko aseguruak, parte hartzen duen pertsonaren galera anatomiko edo funtzionalerako edo heriotzarako.

c) Osasun laguntzako aseguruak, martxoaren 30eko 2/2023 Legearen asistentzia sanitario publiko eta doakoaren estaldurari buruzko 88.1 artikulua babesten ez dituen kasuetarako, eta parte hartzaileek kontingentzia posibleak beste aseguru batzuen bidez estalita ez dituzten kasuetarako.

2. Aseguruaren estaldurak eskola adineko jarduera fisikoen eta kirolaren aplikazio informatikoan (CUDE) izena emanda dauden pertsonak ere estaliko ditu, honako kasu hauetan:

a) Programan izena emateko ezarritako baldintzak bete arren, Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen zuzendaritzak balioztatzeko zain daudenean.

b) Jarduerarako bidean gertatutako edozein istripuren aurrean.

3. Eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programetan izena emandako entitateek nahitaez jakinarazi beharko dute jardueretan egindako aldaketa oro, bai eta jardueren bukaera ere, eta, hala balegokio, orobat jakinarazi beharko dituzte jarduera horietan izena emandako pertsonen altak eta bajak, parte hartzaileen datu baseak eguneraturik edukitzearen eta datu base horiek eskola adineko jarduera fisikoa eta kirola babesten dituen aseguruaren eskura izan daitezen.

6. artikulua. Publizitatea

1. Eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programak ALHAOn argitaratuko dira. Era berean, programak horiek ahalik gehien zabalduko dira, eta horretarako denetariko hedabideak erabiliko dira eta komunikazio pertsonalizatuak bidaliko zaizkie parte hartzen duten erakundeei.

2. Era berean, Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen sailak erakunde parte hartzaileen harremanetarako datuak eta erakunde horiek programen barruan eskaintzen dituzten jarduerak zabaldu ahal izango ditu, herritarrek Arabako Lurralde Historikoan eskola adineko jarduera fisikoa eta kirola egin daitezkeen tokiak ezagut ditzaten.

3. Eskola adineko kirolarekin loturik dauden publizitateak eta dokumentazioak hizkera eta irudiak era ez-sexistan eta berdintasunez erabiliko ditu, eta gainera Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.

II. KAPITULUA**Egitura eta funtzionamendua****7. artikulua. Eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko urteko programak**

1. Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen sailaren titularrak urtero onartuko du, hasi aurretik, ikasturte bakoitzeko programa. Bertan, gutxienez, honako hauek jasoko dira: jardueren eskaintza, modalitate edo diziplina, kategoria eta ibilbide guztietan; iraupena; egun baliogabeak; izena emateko modua eta data; lehiaketa jardunaldien edo asteburuko jardueren gutxieneko edo gehieneko kopurua, kategoriaren eta ibilbidearen arabera, eta ikasturte bakoitzerako zehazten diren berariazko baimenak.

2. Oro har, hasiera data eta amaiera data bat etorriko dira hezkuntza administrazioek eskola eremurako ezarritakoekin. Aurrekoa gorabehera, Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen departamentuaren titularrak egun horietatik kanpoko jarduerak baimendu ahal izango ditu, foru agindu honen VIII. kapituluan ezarritako prozeduraren arabera.

3. Oporraldiak eta jaiegunak egun ez baliodun gisa definitu ahal izango dira, eta horietan, oro har, ezingo da eskola adineko jarduera fisikorik eta kirolik programatu, kirol jarduera familia, gizarte edo jolas arloko beste jarduera batzuekin bateragarri egiteko. Aurrekoa gorabehera, baliiodunak ez diren jardunaldietan egin ahal izango den kirol jarduera, inskribatutako modalitate edo diziplina bereko edo beste mota bateko jarduerak egitera bideratuta egon beharko da.

4. Aurreko apartatuan ezartzen denetik salbu daude haurren kategoriakoak eta hortik gorakoak errendimenduan hasteko ibilbideetako irakaskuntza jarduerak. Izan ere, jarduera horiek oporretan ere egin ahal izango dira, parte hartzen duten erakundeei nahi badute. Halaber, talentudunak edo etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko ibilbideko jarduerak oporretan egin ahal izango dira, eta lehiaketak jaiegunetan ere bai.

5. Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen zuzendariak jarduera fisikoko eta eskola adineko kiroleko programetako jarduera batzuk etetea erabaki dezake, ezinbesteko arrazoien-
gatik (eguraldi alertak, segurtasun publikoa, greba orokorrak eta antzeko beste inguruabar batzuk).

8. artikulua. Programen hartzaile diren adingabeak

1. Programetako jardueretan parte hartu ahal izango dute Arabako Lurralde Historikoan erroldatutako edo bertako ikastetxe batean eskolatutako hamasei urtera arteko adingabeak.

2. Arabako Lurralde Historikotik kanpo erroldatutako ikasleak, aipatutako lurralde historikoko ikastetxeren batean eskolatuta ez badaude, Arabako eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programetan inskribatu ahal izango dira, foru agindu honetan horretarako ezarritako prozeduraren arabera.

3. Salbuespen gisa, kasu batzuetan hamazazpi urteko kirolariek ere parte hartu ahal izango dute programetan, foru agindu honen 49. artikuluan horretaz ezartzen denarekin bat etorritik. Inola ere ezin izango da berariazko kategoria edo taldea ezarri adin horretako kirolarientzat. Izan ere, kirolari horiek beren adinekoen kategoriaren azpikoan lehiatu beharko dute.

4. Eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programetan izena eman eta parte hartu nahi duten bigarren urteko haurren kategoriatik beherako ikasleek ezin izango dute autonomia erkidegoko edo estatuko edozein federaziok emandako kirol modalitate bereko edo beste bateko federazio lizentziarik izan, kirol arloan eskumena duen departamentuaren alde aurreko baimenik gabe. Baimen hori, hala badagokio, foru agindu honen VIII. kapituluaren ezarritako baldintzen eta prozeduraren arabera egin beharko da.

9. artikulua. Etapak, kategoriak, adinak eta lurralde eremuak

1. Eskola adineko jarduera fisikoa eta kirola hiru etapatan antolatzen dira, eta honako egin-kizun eta ezaugarri hauek dituzte:

a) Haur hezkuntzako etapa: haurrak jaiotzen direnetik sei urte bete arte artatzen dituen etapa. Etapa honetan, jarduera fisiko eta jolas libreak bermatuko dira, jolas eta mugimendu jarduerak ahalbidetzeko, garapen oso eta harmonikorako eta gorputz mugimendua gozamenek bizitzeko, lehiaketatik edo saikapenetatik eratorritako kirol emaitzak lortzeko berariazko kirol teknikarik eta lehiaketa jarduerarik sartu gabe. Adin horietan, lehenetsunez jolas libre aktiboa izan ahal izatea sustatuko da, aisialdi egituratuegia saihesteko.

b) Lehen hezkuntzako etapa: normalean sei eta hamabi urte bitarteko ikasleak hartzen dituen etapa. Etapa horretan jarduera fisiko ludikoa eta kirol anitzekoa bermatuko da. Adin tarte horretan, aurrebenjamin kategorian izan ezik, antolatutako jardueretan lehiaketak eta entrenamenduak egin ahal izango dira, betiere eskola adineko jarduera fisikoren eta kirolaren osagarri eta ez ordeztako moduan.

c) Derrigorrezko bigarren hezkuntzako etapa: hamabi eta hamasei urte bitarteko ikasleak biltzen dituen etapa. Etapa honetan, kirol partaidetzako, errendimenduaren hastapeneko eta talentuak eta etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko ibilbideei dagozkien jarduerak parte-katu ahal izango dira. Hezkuntza etapa horretan, kirol federatuaren antolaketatik kanpo geratzen diren biztanleei arreta emango zaie, haien premiekin bat datozen berariazko programak garatuz eta tokiko jarduera fisikoak eta kirol jarduerak sustatzen dituzten taldeak sustatuz.

2. Eskola adineko jarduera fisikoan eta kirolean hasteko etapa batez ere ikastetxearen tes-tuinguruan garatuko da, egoera pertsonala edo soziala edozein dela ere, populazio horren interes gorenaren babesteko. Ikastetxeak izango dira batez ere hezitzailea den kirol hastapenaren ardatz nagusiak.

3. Eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programetako kategoriak, adinak eta lurralde eremuak honako hauek izango dira, hargatik eragotzi gabe kirol arloan eskumena duen sailak edo urteko programa bakoitza arautzen duen foru aginduak baimena eman dezakeela goragoko lurralde eremutan aritzeko, salbuespen gisa eta Eskola Kirolaren Euskal Batzordeak txostena egin ondoren:

KATEGORIA	PROGRAMA AMAITZEN DEN URTEAN BETETAKO URTEAK	ERREFERENTZIAKO IKAS MAILA	LURRALDE EREMUAK
0-6 urte	1-6	Haur Hezkuntza	Tokiko/eskualdeko eremua
Aurrebenjaminak (1. urtea)	7	Lehen Hezkuntzako 1.a	Tokiko/eskualdeko eremua
Aurrebenjaminak (2. urtea)	8	Lehen Hezkuntzako 2.a	Tokiko/eskualdeko eremua
Benjaminak (1. urtea)	9	Lehen Hezkuntzako 3.a	Tokiko/eskualdeko eremua
Benjaminak (2. urtea)	10	Lehen Hezkuntzako 4.a	Tokiko/eskualdeko eremua
Kimuak (1. urtea)	11	Lehen Hezkuntzako 5.a	Lurralde historikoa
Kimuak (2. urtea)	12	Lehen Hezkuntzako 6.a	Lurralde historikoa
Haurrak (1. urtea)	13	DBHko 1.a	Autonomia Erkidegoa
Haurrak (2. urtea)	14	DBHko 2.a	Autonomia Erkidegoa
Kadeteak (1. urtea)	15	DBHko 3.a	Erkidegoz gaindikoa
Kadeteak (2. urtea)	16	DBHko 4.a	Erkidegoz gaindikoa

4. Urtero ezarriko dira aurreko paragrafoan ezarritako kategorია bakoitzari dagozkion jaiotza urteak, bai eta kirol modalitate edo diziplina bakoitzean eskaintzen diren kategoriak ere. Era berean, lurralde eremu handiagoak ezarri ahal izango dira kirol modalitate minoritarioen kasuan edo ikasleek beren bizilekutik hurbilen dagoen ingurune geografikoan beren jarduerak garatzea eragotzen duten aparteko egoerak gertatzen direnean.

10. artikulua. Ibilbideak eta kirol jarduerak

1. Arabako Lurralde Historikoaren errealitatea kontuan hartuta, eskola adineko jarduerak fisikoko eta kiroleko programetan honako ibilbide eta jarduerak hauek garatu ahal izango dira:

IBILBIDEAK	JARDUERAK
Kirol partaidetza	– Hastapen jarduerak (irakaskuntza) – Parte hartzeko lehiaketak (lehiaketa) – Aisia jarduerak (beste jarduerak batzuk) – Kultura eta kirol jarduerak (beste jarduerak batzuk)
Errendimenduaren hastapena	– Teknikakzio jarduerak (irakaskuntza) – Errendimenduaren hastapeneko lehiaketak (lehiaketa)
Talentuak eta etorkizun handiko kirolariak identifikatzea	– Detekzio jarduerak – Teknikakzio jarduerak (irakaskuntza) – Lehiaketa mugatuak (lehiaketa)

2. Ekainaren 30eko 8/2022 Legearen 4. artikuluan ezarritako mailen ondorioetarako, kirol partaidetzako eta errendimenduaren hastapeneko ibilbideei dagozkien jarduerak kirol hastapeneko edo oinarritzko mailako jardueratzat hartuko dira, eta parte hartzaileak ikaskuntzaren lehen faseetan egongo dira, haien adina edozein dela ere.

3. Ondorio berberetarako, talentuak eta etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko ibilbideko jarduerak hobekuntza teknikoko edo maila ertaineko jardueratzat hartuko dira, baldin eta kirolariak dagokien jarduerak menderatzen duten fasean badaude, adina edozein dela ere.

11. artikulua. Programan parte hartzen duten egiturak

1. Eskola adineko jarduerak fisikoko eta kiroleko programako jardueren antolaketa edota parte hartzea honako erakunde hauek baten bidez egituratu ahal izango da:

a) Lehenetsunez, Arabako Lurralde Historikoan kokatutako ikastetxeen bitartez, dagokien Hezkuntza Sailak aitortuak.

Ikastetxeek zuzenean edo haiei lotutako erakunde bidez (ikasleen gurasoen elkarteak, lotutako kirol elkarteak, klubak edo fundazioak eta abar) eman ahal izango dute izena eta parte hartu programan, behar bezala eratuta eta erregistratuta badaude.

b) Arabako Lurralde Historikoko erakundeak (klubak, kirol elkarteak, elkarteak, kirol fundazioak, etab.), behar bezala eratuta eta erregistratuta daudenak.

c) Arabako kirol federazioak edo, hala badagokio, euskal federazioak, edo eskola adineko jarduerak fisikoki eta kirolari laguntza teknikoak emateko ardura duten beste erakunde batzuk.

d) Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak edo beren kudeaketa organoak, legez eratuak eta beren helburuen artean kirolaren sustapena dutenak.

2. Arabako Lurralde Historikoan kokatuta ez dauden erakundeek Arabako eskola adineko jarduerak fisikoki eta kirolaren programa antolatu eta parte hartu ahal izango dute, foru agindu honen VIII. kapituluaren horretarako ezarritako baldintzen eta prozeduraren arabera.

3. Ikastetxeek udalerriko edo inguruko kirol klub eta elkarten lankidetzak bultzatu ahal izango dute, lehenengo adinetan haien zerbitzu teknikoek kirol hastapeneko prozesuetan parte hartzen, ikastetxeak ezarritako hezkuntza helburuekin bat etorritik.

Era berean, ikastetxeek lagundu egin behar dute eskolako neska-mutilek kirol klub eta elkarten sartzeko aukera izan dezaten adin jakin batzuetan eta kirol modalitate bakoitzaren ezagutgarrien arabera, bermea izan dadin hartara eskolaratze aldia amaitutakoan jarraipena izango duela kirolaren praktikak, dela kirol federatutan, dela aisia kirolean.

4. Udalerrri edo udalerri elkarte batean ikastetxe edo kirol erakunde batzuek foru agindu honen III. kapituluko lehen atalean ezarritako jarduera fisikoko eta kiroleko programako jardueraren bat eskaintzen badute modalitate edo diziplina jakin bati dagokionez, kirol federazioek ezin izango dituzte jarduera horiek antolatu, Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen sailaren titularrak foru agindu honetan ezarritakoa oinarri hartuta salbuespenezko baimena eman ezean.

5. Jarduera irekien kasuan, parte hartzea modu partikularrean egin ahal izango da, aurreko 1. apartatuan ezarritako erakunderen baten bidez inskribatu beharrik gabe.

6. Martxoaren 30eko 2/2023 Legearen arabera, udalerriei dagokie Arabako Foru Aldundiak eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren arloan onartutako urteko programak gauzatzea, foru aldundiarekin koordinatuta, tokiko ezaugarrietara egokituta eta udal esparruko ikastetxeen eta kirol eragileen lankidetzarekin. Udalerriek eta gainerako toki erakundeek, beren eskumenen esparruan, ikastetxeekin eta Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan jardungo dute eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programak gauzatzeko, batez ere udalaren kirol eta jarduera fisikoko ekipamenduen erabilera lagata, eskola ume horiek beren instalazioetan egiten dituzten kirol jarduerak kontrolatuta eta programa horiek toki mailan egituratuta, hori guztia Arabako Foru Aldundiarekin adostutako baldintzetan. Horretarako, eman daitezkeen lankidetzak hitzarmenei kalterik egin gabe, kirolaren arloan eskumena duen zuzendaritzaren titularrak udalerriekin koordinazio mahaiak eratzea sustatu ahal izango du, urteko programen gauzatzea behar bezala koordinatzeko.

7. Foru agindu honen ondorioetarako, urteko programak gauzatzen esku hartzen duten erakunde mota hauek bereizi behar dira:

a) Programak osatzen dituen jarduera bakoitza antolatzen duten erakundeak. Antolatzaileak dira, printzipioz, eta foru agindu honetan araututako jardueretan ezartzen diren murrizketak alde batera utzi gabe, erakunde publiko edo pribatuak, irabazteko xedea dutenak edo ez dutenak, baldin eta jarduera sortzen badute, foru agindu honen arabera zehazten badute non eta noiz egingo den, eta nork parte hartuko duen, eta foru agindu honen arabera gauzatzen badute eta erabakitzen badute jarduera gauzatzea beren gain hartzen duten edo zerbitzuak ematen dituzten enpresei edo erakunde laguntzaileei agintzen dieten. Erakunde antolatzaileek beren gain hartzen dute beren ekintzek edo ez egiteak hirugarrenei eragindako kalteen erantzukizuna, eta errua edo zabarkeria tartean egonda. Erakunde horiek foru agindu honetan ezartzen dena bete behar dute.

b) Erakunde parte-hartzaileak. Programako parte-hartzaileak dira, foru agindu honetan arautzen diren jardueretan ezartzen diren murrizketak gorabehera, programako jardueretako batean (foru agindu honen III. kapituluaren zehazten dira) kirolari talderen bat inskribatzen duten erakunde publikoak zein pribatuak, irabazteko xedea dutenak zein ez dutenak. Erakunde horiek foru agindu honetan ezartzen dena bete behar dute.

12. artikulua. Erakunde parte hartzaileen betekizunak, eskubideak eta betebeharrak

1. Eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programetan eta jardueretan parte hartzeko, baldintza hauek bete behar dira:

a) Printzipio integratzaileak errespetatzea.

b) Parte hartzaile guztiei eta, bereziki, adingabeen legezko ordezkariak, programaren ezaugarri zehatzak jakinarazteko betebeharra, aseguruak estaltzeko sistema, inskripzioa egin duten erakundearen antolamendu ezaugarriak eta egiten duten kirol jarduera behar bezala ezagutzeko interesekoak diren datu guztiak bereziki aipatuz. Halaber, programan inskribatutako adingabeen legezko ordezkariak helarazi behar dizkiete kirol arloan eskumena duen zuzendaritzak egokitutako jotzen dituen jakinarazpenak.

c) Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralaren ezezko ziurtagirien bidez egiaztatu behar dute beren erakundearen esparruan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten jarduerak egiten dituzten profesional eta boluntarioak ez daudela epai irmo bidez kondenatuta sexu askatasun eta ukigabetasunaren aurkako edo gizakien salerosketako delituen batengatik.

d) Parte hartzeko ibilbideko jardueretan sartzeko bermea, inolako diskriminaziorik gabe, desgaitasunen bat edo premia bereziren bat duten kirolarientzat, baldin eta jarduera modu inklusiboan gara badezakete, begirale laguntzailerik behar izan gabe. Halaber, erakundeek beren taldeetan parte hartzen lagundu beharko diete desgaitasunen bat edo hezkuntza premia bereziren bat duten ikasleei, baldin eta begirale laguntzaile bat behar badute, betiere jarduera behar bezala egin badaiteke.

e) Kirol partaidetzako ibilbidean parte hartzen duten adingabeek beren taldeak parte hartzen duen lehiaketa jardueretan parte hartu nahi duten ala ez beren borondatez erabakitzeko duten eskubidea errespetatzea, betiere erakundeari kalterik eragiten ez badio, eta ikasturte hasieran jakinaraztea.

f) Arabako Lurralde Historikoko eskola adineko jarduera fisikoan eta kirolean haurrak eta nerabeak indarkeriatik babesteko protokoloa aplikatzea. Protokolo hori kirolaren arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen sailaren titularrak onartu beharko du, eta protokolo horretan ezartzen diren prebentzioko, detekzio goiztiarreko eta esku hartzeko jarduketa guztiak garatu beharko ditu.

Betekizun hori aplikatuko zaie, halaber, Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen sailaren titularraren baimena behar duten jarduerak antolatzen dituzten erakundeei.

2. Parte hartzen duten erakundeek eskubidea izango dute izena emateko lehentasuna ezartzeko kirol lehiaketetan parte hartzeko konpromisoa hartzen duten kirolarientzat. Aurrekoa gorabehera, lehiaketa hasi eta ez lehiatzea hautatu duten kirolariek osatutako taldeak eratuta, ezingo dira taldetik kanpo utzi.

3. Parte hartzeko ibilbidean, entitateek ezin izango dituzte kirolariak kanporatu, kirol eta teknika maila dela-eta. Horrela, parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten eta aurreko ikasturtean eskolako jarduera fisikoko eta kiroleko programetan beren egituretan parte hartu zuten parte hartzaileak inskribatu eta inskribatuta izan beharko dituzte erakundeek, salbu eta beren kabuz uko egiten badiote edo diziiplina neurriak ezartzeagatik kanporatzen badituzte.

4. Eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programan parte hartu nahi duten erakundeek ezin izango dute izan, ez egituren, ez entrenamenduetan, edozein federazio autonomikok edo estatuk emandako federazio lizentzia duten haur kategoriako eta beheagoko mailako kirolaririk, baldin eta kirol arloan eskumena duen saileko titularrak aldeztu aurretik baimena ematen ez badiu. Baimen hori, hala badagokio, foru agindu honen VIII. kapituluaren ezarritako baldintzen eta prozeduraren arabera egin beharko da.

5. Erakundeek ezin izango dute jarduerarik egin Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen saileko titularraren baimenik gabe, ez zuzenean, ez hitzartutako erakundeen bidez edo harekin lankidetzara edo kontratu harremana duten erakundeen bidez.

13. artikulua. Agente parte hartzaileak

1. Kirolariek gain, honako agente hauek parte hartuko dute eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programako jardueretan:

- a) Entrenatzailea edo begiralea.
- b) Arbitroa, epailea.
- c) Taldeko ordezkaria.
- d) Familien ordezkaria.
- e) Erakundearen koordinatzailea.
- f) Erakundea babesteko ordezkaria.

2. Artikulu honetako aurreko apartatuan zerrendatutako agente guztiek eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programan izena eman beharko dute, aplikazio informatikoaren bidez (CUDE). Era berean, adingabeekin ohiko harremana duten pertsonen kirolean haurrak zaintzeko eta babesteko sentsibilizazio arloko prestakuntza gainditu beharko dute, ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 5.1 artikuluan adierazitako edukiak garatu diren kirolekoa.

14. artikulua. Entrenatzaile edo begirale lanak egiten dituzten langileak

1. Jarduera fisikoko eta kiroleko programako jardueretan parte hartzen duten talde guztiek begirale edo entrenatzaile bana izan beharko dute nahitaez.

2. Jarduera fisikoko eta kiroleko programako jardueretan parte hartu ahal izateko, entrena-tzaile edo begirale lanak egiten dituzten langileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Izena emateko unean gutxienez hamasei urte izatea.

b) Ekainaren 30eko 8/2022 Legean ezarritako kualifikazio betebeharrak eta gainerako bete-kizunak betetzea.

c) Arabako Lurralde Historikoan haurrak eta nerabeak eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko indarkeriatik babesteko protokoloan ezartzen den prestakuntza jasota edukitzea. Pro-tokoloa Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena daukan sailaren titularrak onetsi beharko du.

d) Erakunde laguntzaileetako langileen kasuan, eginkizun horiek betetzean, gutxienez B2 hizkuntza gaitasuna edukitzea, aplikatu beharreko indize soziolinguistikoen arabera beharrezkoa denean.

3. Beren elkarteko edo taldeko kirolariek parte hartzen duten jarduera edo lehiaketa guztietan fisikoki egon beharko dute bertan. Dena dela, egiterik ez badute, jarduera fisikoko eta kiroleko programetan inskribatuta dagoen eta aurreko 2. apartatutan ezarritako baldintzak betetzen dituen erakundeko beste edozein pertsonak bete ahal izango ditu haien eginkizunak.

4. Aurreko apartatuan ezartzen dena ez da bete beharko kirol modalitate edo diziiplina batzuetako lehiaketetan, baldin eta berariazko araudiak aukera ematen badu jarduera taldeko ordezkari batek gainbegiratzeko (pertsona hori ezin da izan entrenatzailea ez begiralea).

15. artikulua. Arbitroak, epaileak

1. Modalitate edo diziiplina bakoitzeko araudia betearazteko ardura izango dute, eta lan pedagogikoa egingo dute eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programetan jolas eta kirol espiritua lortzeko.

2. Jarduera fisikoko eta kiroleko programako jardueretan parte hartu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Inskribatzean honako adin hau edukitzea gutxienez:

1.- Arbitroen idazkari laguntzaile aritzeko, hamalau urte.

2.- Benjamin, kimu eta haur kategorietako partidetan edo probetan arbitro aritzeko, hamasei urte.

3.- Kadete kategoriako partidetan edo probetan arbitro aritzeko, hemezortzi urte.

Kategoria batzuetan letra honetan ezarritakoa baino adin txikiagoarekin arbitratu ahal izango da, modalitatearen berariazko araudian aukera hori ematen bada eta, gainera, erakunde laguntzai-leak kirolaren arloko eskumena daukan zerbitzuari aurkeztzen badio pertsona horiek arbitratzea ezinbestekoa dela azaltzen duen proiektua, horrez gainera haiek nola gaituko eta babestuko dituen ere zehazten duena.

b) Dagokion eskola lizentzia izatea.

c) Dagokion modalitatearen edo diziplinaren araudiak hala ezartzen badu, eskola arbitrajeko edo arbitraje federatuko prestakuntza gainditu izana. Dena dela, federazio prestakuntza ezin izango da izan baliozko bakarra, kirolaren arloan eskumena duen sailaren titularrak onartutako salbuespenetan izan ezik.

3. Aurreko lehenengo apartatuan aurreikusitakoaz gain, arbitro lana betetzen duten pertsonak egiaztatu beharko dute programetan parte hartzen duten kirolari guztiek dutela eskola kirol pertsonalizatuaren lizentzia (baliozkoa euskarri elektronikoan edo digitalean, nahiz euskarri fisikoan edo paperean). Halaber, Arabako Lurralde Historikoan haurrak eta nerabeak eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko indarkeriatik babesteko protokoloa aplikatu beharko dute. Protokoloa Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen titularrak foru agindu bidez onartu beharko du.

16. artikulua. Taldeko ordezkaria

Jarduera fisikoko eta kiroleko programako jardueretan parte hartu ahal izateko, taldeko ordezkariak gutxienez hamasei urte eduki beharko ditu izena ematean.

17. artikulua. Familien ordezkaria

1. Modalitateko edo diziplinako berariazko lehiaketa araudiak ezarritako gero, ekipoa edo taldean gutxienez familien ordezkari bat egon eta inskribatu beharko da. Gainerako kasu guztietan, familien ordezkariaren figura borondatezkoa izango da jarduera fisikoko eta kiroleko programako jardueretan parte hartzen duten erakundeentzat.

2. Figura hori badago, eskola kiroleko harmailetan errespetua sustatzeko protokoloan (IV. eranskina) esleitzen diren eginkizunetan erakunde parte-hartzailean inskribatutako kirolarietako baten aita, ama edo legezko tutorea ariko da. Halaber, figura honi esleitutako eginkizunetan aritu ahal izango da taldean inskribatutako beste edozein pertsona, bertan beste lizentziarik ez badauka. Nolanahi ere, noizbait familien ordezkaria ez bada agertzen, nahitaezkoa izan arren, salbuespen gisa erakundearen koordinatzaileak edo babes ordezkariak egin ahal izango du haren lana, baina aurretik eskola lizentzia aurkeztu beharko du.

3. Figura hori ez dagoen kasuetan edo beharrezkoa izan ez eta partidaren edo probaren dagoenean, eskola kiroleko harmailetan errespetua sustatzeko protokoloan (IV. eranskina) ezarritako eginkizunetan entrenatzaile edo begirale lanak egiten dituzten langileak ariko dira.

4. Jarduera fisikoko eta kiroleko programako jardueretan parte hartu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Hala badagokio, modalitate bakoitzaren berariazko araudietan ezartzen diren prestakuntza baldintzak gainditu izana.

b) Bereizgarriaren bat izatea, ikusleek eta lehiaketan parte hartzen duten gainerako eragileek identifika dezaten.

18. artikulua. Erakundeko koordinatzaileak

Jarduera fisikoko eta kiroleko programako jardueretan parte hartu ahal izateko, koordinatzaile lanak egiten dituzten erakunde laguntzaileko langileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Izena emateko unean gutxienez hemezortzi urte izatea.

b) Erakunde laguntzaileetako langileek, eginkizun horiek aritzeko, gutxienez B2 hizkuntza gaitasuna eduki beharko dute, aplikatu beharreko indize soziolinguistikoen arabera beharrezkoa izanez gero. Betebehar horretatik salbuetsita daude foru agindu hau indarrean jartzean erakunde laguntzailearekin lan edo boluntariora kontratua duten langileak.

c) Ekainaren 30eko 8/2022 Legean ezarritako kirol zuzendariaren eginkizunak bere gain hartuz gero, lanbide horri dagozkion kualifikazio betebeharrak eta bertan ezarritako gainerako baldintzak betetzea.

19. artikulua. Erakundea babesteko ordezkaria

1. Erakundearen babes ordezkaria arduratuko da Arabako Lurralde Historikoan haurrak eta nerabeak eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko indarkeriaren aurrean babesteko protokoloa betetzeaz (protokolo hori kirolaren arloko eskumena daukan Arabako Foru Aldundiko sailaren titularrak onetsiko du). Gainera, bertan esleitutako eginkizun guztiak bete beharko ditu.

2. Jarduera fisikoko eta kiroleko programako jardueretan parte hartu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Izena emateko unean gutxienez hemezortzi urte izatea.
- b) 13.2 artikuluan aipatutako haurren zaintzaren eta babesaren arloko sentsibilizazio arloko prestakuntza gaindituta izatea.
- c) Kirol inguruneetan adingabeak babesteko protokoloa erabiltzeko prestakuntza gainditu izana.

III. KAPITULUA Programetako jarduerak

LEHENENGO ATALA. XEDAPEN OROKORRAK

20. artikulua. Tipologia

Foru agindu honen 11 artikuluan ezartzen diren erakundeek honako jarduera hauek antola ditzakete:

- a) Irakaskuntza jarduerak.
- b) Aisia jarduerak.
- c) Lehiaketa jarduerak.
- d) Detekzio jarduerak.
- e) Kultura eta kirol jarduerak.

21. artikulua. Asteko saio eta jardunaldi kopurua

1. Programaren multikiroleko printzipioa betetzeko, adin goiztiarretan intentsitate handiko espezializazioa eta entrenamendua minimizatzeko eta hezkuntza arautuarekin, jolasarekin eta aisiarekin eta familia bizitzarekin bateratzea errazteko, eskola ume bakoitzak, oro har, kirol modalitate edo diziplina berean egin ahal izango dituen asteko saioen edo jardueren gehieneko kopurua, kategoria eta ibilbide bakoitzeko, honako hau izango da:

	IRAKASKUNTZA JARDUERAK	PARTE HARTZEKO EDO ERRENDIMENDUAREN HASTAPENEN LEHIAKETAK, EDO AISIA JARDUERAK	TALENTUEN IBILBIDEKO TEKNIFIKAZIOAK EDO LEHIAKETAK	ASTEKO GEHIENENKO MUGA
Aurrebenjaminak	1	1	—	2
Benjaminak	2	1	—	3
Kimuak, kirol partaidetzako ibilbidea	2	1	1	3-4
Kimuak, errendimenduaren hastapenetako ibilbidea	3	1	1	4
Haurrak	3	1	1	5
Kadeteak, kirol partaidetzako ibilbidea	3	1	1	5
Kadeteak, errendimenduaren hastapenetako ibilbidea	4	1	1	6

2. Aurreko taulari dagokionez, honako hauek hartuko dira kontuan:

- a) Kirol anitzeko jardueran hasteko jarduerak eta garapen psikomotorreko jarduerak ez dira kirol modalitateak edo diziplinak ondorio horietarako.
- b) Errendimenduaren hastapeneko ibilbideko ikasleek, bigarren urteko kimu kategoriakoek, talentuak eta etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko ibilbideko berezko jarduerak egin ahal izango dituzte (teknifikazio edo lehiaketa mugatuak), baldin eta astean lehiaketarik izan ez badute.
- c) Entrenamendu saio bakoitzak laurogeita hamar minutu iraungo du gehienez.
- d) Ezin izango da entrenamendu edo lehiaketa saio bikoitzik (goizekoa eta arratsaldekoa) egin egun berean.

e) Baliogabeko aldietan, talentuak edo etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko ibilbideko teknifikazio edo lehiaketa kopurua handitu ahal izango da, betiere ikasleek astean kategorია bakoitzean egin ditzaketen saioen gehieneko kopurua errespetatzen bada.

f) Ikasleek kirol modalitate edo diziiplina bereko kirol erakunde batean baino gehiagotan parte hartu ahal izango dute, baldin eta artikulua honetan ezarritako gehieneko orduak gainditzen ez badituzte eta, hala badagokio, lehiaketa jardueretan parte hartzen duten bi taldetan izena emanda ez badaude.

g) Kirol bakarrean hasteko jardueretan astean benjamin edo kimu kategoriako parte hartzeko ibilbideko bi saio eskaintzen dituzten erakundeek aukera eman behar diete eskola kiroleko programako beste kirol jarduera batean ari diren ikasleei astean saio bakarra egiteko, honako kasu honetan izan ezik: aukera hori emateak jarduera behar bezala antolatzea eta kudeatzea eragozten duenean.

h) Aurrebenjamin kategorian, astean bi saio egin daitezke helburu bakarra uretan bizirik irauteko moduan igeri egiten ikastea den jardueretan, baldin eta erakunde antolatzaileak jarduera bera astean behin eskatzen badie antzeko proportzioko taldeei.

3. Salbuespenez, eta modu justifikatu eta puntualean, kirol arloan eskumena duen sailaren titularrak astean artikulua honetan ezarri baino gehieneko saio edo jarduera kopuru handiagoa baimendu ahal izango du astean, modalitate edo diziiplina bakoitzerako, baldin eta jarduerak kirolari fisikoki eta mentalki gehiegi eskatzen ez badiete. Era berean, salbuespen gisa, organo horrek asteko saioen kopurua handitu ahal izango du, emaitza handienak adin goiztiarragoetan lortzen diren modalitate edo diziplinatarako.

BIGARREN ATALA. IRAKASKUNTZA JARDUERAK

22. artikulua. Kontzeptua

1. Irakaskuntza jardueratzat hartzen dira kirol modalitate edo jarduera bat edo batzuk ikastera edo prestatzera bideratutako saioak edo entrenamenduak.

2. Irakaskuntza jarduerak izan daitezke honako hauek:

a) Hastapen jarduerak:

1.- Garapen psikomotorreko jarduerak.

2.- Multikiroleko jarduerak.

3.- Kirol bakarreko hastapen jarduerak (parte hartzeko ibilbidearen entrenamenduak).

4.- Hastapen ikastaroak.

b) Teknifikazio jarduerak:

1.- Errendimenduaren hastapeneko ibilbideko entrenamenduak.

2.- Teknifikazioak.

3. Irakaskuntza jarduerak gutxienez hiru hilabeteko iraupena izango dute, hastapen eta teknifikazio ikastaroak izan ezik, horiek iraupen laburragoa izan baitezakete. Jarduerak dagokion urteko foru aginduan ezarritako programen hasiera eta amaiera daten artean egin ahal izango dira.

23. artikulua. Garapen psikomotorreko jarduerak

1. Garapen psikomotorreko jarduerak oinarritzko mugimendu trebetasun eta abileziak eskuratzeko eta doitzeko jarduerak dira: ibiltzea, korrika egitea, narrastea, igeri egitea, igeri egitea, katuka ibiltzea, errodatzea, salto egitea, irristatzea, tiratzea, bultzatzea, jaurtitzea, jasotzea, kolpatzea eta abar.

2. Hauek dira jarduera horiek garatzeko ezaugarriak eta baldintzak:

a) Erakunde antolatzaileak: eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programan inskribatutako ikastetxeak eta toki erakundeak. Aparteko kasuetan, 11.1 b) artikuluan aipatzen diren erakundeetako taldeek parte hartu ahal izango dute, baldin eta kirolaren arloko eskumena daukan zerbitzuak inskripzioa baliozkotzat jotzen badu artikulua honen 2 e) apartatuan ezartzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko aukera ematen duen proiektua aurkeztu ondoren.

b) Parte hartzaileak: dagokion jardueran programan izena emanda duten ikasleak.

c) Kategoriak: 0-6 urte eta aurrebenjaminak.

d) Ibilbidea: parte hartzea.

e) Baldintzak:

1.- Jarduerak oinarritzko trebetasun jakin bat garatzera bideratu ahal izango dira (adibidez, igeri egitera), edo oinarritzko trebetasun bat baino gehiago batera garatzera (psikomotrizitatea).

2.- Jarduerak familian egin ahal izango dira, guraso edo tutoreren batekin batera.

3.- Debekatuta dago berariazko kirol teknikak irakastea, bai eta kirol modalitate edo diziplina bakar bateko oinarritzko trebetasunak lantzen diren jarduerak ere, ibiltzeko edo bizirik irauteko baliagarriak direnak izan ezik.

f) Lotutako jarduerak: jarduera honetako taldeek ezin dute parte hartu erakunde laguntzaileek edo udalerriek antola ditzaketen jardueretan.

24. artikulua. Kirol anitzeko jarduera

1. Kirol anitzeko jarduerak barnean hartzen ditu ikasleek hainbat kirol modalitate edo diziplina edo jarduera fisiko ezagutzea eta praktikatzeko ahalbidetu nahi duten jarduerak, haien interesetara edo gaitasunetara gehien egokitzen diren kirol jarduerak edo jarduera fisikoak aukeratu ahal izan ditzaten ondorengo adinetan.

2. Jarduera horien ezaugarri edo baldintza orokorrak honako hauek dira:

a) Erakunde antolatzaileak:

1.- Eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programan inskribatutako ikastetxeak eta toki erakundeak.

2.- Kirol anitzeko C jardueraren kasuan, hautatutako modalitateak estatutuetan edo jarduteko arauetan jasota dituzten bestelako erakundeak.

3.- Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena daukan sailaren titularrak, aurkeztutako proiektuaren egokitasuna kontuan hartuta, baimena eman ahal izango die estatutuetako helburuen artean gutxienez lau kirol modalitate sustatzea duten edo/eta ikastetxe batekin jarduera hau emateko hitzarmena sinatu duten beste era bateko elkarte erakunde batzuei ere.

b) Parte hartzaileak: programan izena emanda duten ikasleak.

c) Kategoriak: aurrebenjaminak, benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak.

d) Ibilbidea: parte hartzea.

e) Baldintzak:

1.- Parte hartzen duten erakundeek, taldeen inskripzioarekin batera, proiektu edo programa bat aurkeztu beharko dute. Proiektu edo programa horretan, egin beharreko modalitateak edo diziplinak eta ikasturtean zehar izango duten antolaketa edo periodizazioa zehaztuko dira, foru agindu honen l. eranskinaren arabera.

2.- Asteko saio bakoitzean kirol modalitate edo jarduera bakar baten berariazko edukiak landu behar dira.

3.- Programan parte hartzen duten erakundeek hiru modutan planifikatu ahal izango dute jarduera hori:

a) Kirol anitzeko A jarduera (multi A): hainbat kirol modalitate edo jarduera fisiko garatuko dira ikasturtean zehar, hainbat motatakoak, bata bestearen gainetik egon gabe, eta erakundeak aukeratzen duen modalitate edo jarduera bakoitzari saio kopuru bera eskainiko zaio.

1.- Urteko programa ezartzen duen foru aginduak zehaztuko du ikasturtean zehar kategoria bakoitzerako garatu beharreko modalitateen edo jardueren gutxieneko kopurua eta horien tipologia.

2.- Lotutako jarduerak: jarduera honetako taldeek udalerriek antolatzen dituzten multikiroleko topaketetan parte hartu ahal izango dute.

b) Kirol anitzeko B jarduera (multi B): gainerako kirol modalitateen edo jarduera fisikoen aurretik lehentasuna izango duen kirol modalitate edo jarduera fisiko bat planteatuko da. Ikasturteko asteko saioen ehuneko berrogeita hamar lehentasunezko modalitatara edo jarduerara bideratuko dira, eta beste ehuneko berrogeita hamar, berriz, erakunde parte hartzaileak hautatzen dituen gainerako modalitate edo jarduera fisikoetara:

1.- Gainerako kirol modalitate edo jarduera fisikoen ehuneko berrogeita hamarri dagokionez, urteko programa ezartzen duen foru aginduak zehaztuko du ikasturtean zehar kategoria bakoitzerako garatu beharreko modalitateen edo jardueren gutxieneko kopurua eta horien tipologia.

2.- Lotutako jarduerak:

a. Jarduera honetako taldeek udalerriek antolatzen dituzten multikiroleko topaketetan parte hartu ahal izango dute.

b. Lehentasunez hautatu duten modalitateko erakunde laguntzaileak (federazioak) antolatzen dituen kirol bakarreko topaketetan edo lehiaketetan ere parte hartu ahal izango dute.

c) C kirol anitzeko jarduera (Multi C): erakunde antolatzaileak gehienez bizpahiru kirol modalitate edo jarduera fisiko aukeratuko ditu, eta horiek modu berdintsuan banatuko dira ikasturtean zehar.

1.- Lotutako jarduerak:

a. Talde horiek hautatutako modalitateetako erakunde laguntzaileak (federazioak) antolatzen dituzten kirol bakarreko topaketetan edo lehiaketetan parte hartu ahal izango dute. Jardueren edo lehiaketen egutegiak bateraezinak badira, ikasturte hasieran aukeratu beharko dute zein modalitatetan parte hartu nahi duten.

b. Talde horiek udalerriek antolatzen dituzten multikiroleko topaketetan edo lehiaketetan parte hartu ahal izango dute, betiere udalerriek hala uste badute.

25. artikulua. Kirol bakarreko hastapen jarduerak (parte hartzeko ibilbidearen entrenamenduak)

Kirol modalitate edo diziplina jakin bati dagozkion berariazko oinarrizko trebetasunak eskuratzeko eta garatzeko irakaskuntza jarduerak dira. Jarduera horien ezaugarriak edo baldintzak honako hauek dira:

a) Erakunde antolatzaileak: eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programan inskribatutako ikastetxeak, 11.1 b artikuluan aipatzen diren erakundeak eta toki erakundeak. Salbuespen gisa, kirolaren arloko eskumena daukan sailaren titularrak baimena eman ahal izango die Arabako kirol federazioei edo, behar denean, euskal federazioei jarduera horiek antolatzeko, baina horretarako bi baldintza bete beharko dira: batetik, frogatu behar da proposatzen diren jarduerak udalerriko eskaintzan dagoen hutsune bat betetzen dutela; bestetik, jarduerak urtebeteko epealdian 11. artikuluen 1. apartatuan aipatzen diren azpiegituretako batean egiteko behar diren jarduketak aurkeztu behar dira. Erakunde antolatzaileak proiektua aurkeztu behar du hori frogatzeko. Jarduera egiteko baimena eman eta urtebeteko epealdia igaro ondoren baimena beste urtebeterako luzatu ahal izango da, baldin eta egiaztatzen bada jarduerak 11. artikuluen 1. apartatuan aipatzen diren azpiegituretako batean egiteko behar diren jarduketak gauzatzeko denbora luzeagoa behar dela.

b) Parte hartzaileak: programan dagokion kirol modalitatean edo diziplinan izena emanda duten ikasleak.

c) Kategoriak: aurrebenjaminak, benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak.

d) Ibilbidea: parte hartzea.

e) Baldintzak:

1.- Jarduera horiek ezin izango dira zero eta sei urte bitarteko kategorian egin.

2.- Ikastetxe bati lotuta ez dauden erakundeek ezin izango dituzte inskribatu aurrebenjamin kategorian ikasten ari diren ikastetxean dena delako kirol modalitatean edo diziplinan jardun dezaketen kirolariak. Hori dela eta, kirol modalitatea edo diziplina ikastetxean edo erakundean eskaintzen dela ulertuko da, baldin eta ikasleak modalitate horretan aritzen badira lehentasunez jarduera denboraren ehuneko berrogeita hamarrean gutxienez, multi B eta multi C jardueretan. Kirolaren arloko eskumena daukan Arabako Foru Aldundiko zerbitzuak baliozkotzat jo ahal izango du aurrebenjamin kategoriako ikasleak ikastetxe bati lotuta ez dauden erakundeetan inskribatzea, baldin eta kirolaria bere ikastetxean modalitate edo diziplina horretan inskribatu bada eta ez talderik sortu ez bada edo taldea sortu eta hark plazarik lortze ez badu gehieneko kopurua gainditzeagatik.

f) Lotutako jarduerak: jarduera horietan izena ematen duten taldeek parte hartu ahal izango dute kasuan kasuko erakunde laguntzaileek (federazioak) antolatzen dituzten kirol bakarreko topaketetan edo modalitatean edo diziplinan parte hartzeko lehiaketetan.

26. artikulua. Hastapen ikastaroak

1. Hedapen eta zabalkunde orokorra behar duten modalitate edo diziplina bateko irakas-kuntza jarduerak dira, edozein ikaslek parte har dezan eta diziplina edo modalitatea ezagutzeko helburuarekin.

2. Jarduera horien ezaugarriak edo baldintzak honako hauek dira:

a) Erakunde antolatzaileak: erakunde laguntzaileak (kirol federazioak), zuzenean edo modalitateko edo diziplinako kirol erakunde baten bidez.

b) Parte hartzaileak: programan dagokion kirol modalitatean edo diziplinan izena emanda ez duten ikasleak (jarduera irekia).

c) Kategoriak: aurre benjaminak, benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak.

d) Ibilbidea: parte hartzea.

e) Baldintzak:

1.- Urteko foru aginduak definituko ditu kirol modalitateak edo diziplinak eta hastapen ikastaroak non egin ahal izango diren, une bakoitzean dagoen hedapen beharraren arabera.

2.- Ikasleek ezin izango dute hastapen ikastaro berean behin baino gehiagotan izena eman eskola etapa osoan.

3.- Oro har, erakunde laguntzaileek egiten dituzten jarduerak doakoak izan behar dute, edo kostu sinbolikoa izan behar dute, bertaratze berme gisa. Jarduerak prezio sinbolikoa baino handiagoa justifikatzen duten aparteko gastuak badituzte (sartzeko sarrerak, materialen alokairua, etab.), erakunde laguntzaileak kirol arloan eskumena duen sailaren titularraren baimena izan beharko du.

4.- Inskripzioen ehuneko hamar gorde beharko da, gutxienez, egoera ekonomiko zaurgarrian dauden haur eta nerabeek parte har dezaten, kosturik gabe edo ezarritako prezioaren ehuneko hirurogeita hamabosterainoko murrizketarekin. Egoera hori egiaztatzeko, gizarte laguntzak jasotzen dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

27. artikulua. Errendimenduaren hastapeneko ibilbideko entrenamenduak

1. Errendimenduaren hastapeneko ibilbidean parte hartzen dutenen kirol gaitasunak hobetzeko entrenamendu saioak dira, eta lehiaketarako prestaketara bideratuta daude.

2. Hauek dira jarduera horiek garatzeko ezaugarriak eta baldintzak:

a) Erakunde antolatzaileak: eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programako errendimendu ibilbideko lehiaketa jardueretan inskribatutako ikastetxeak eta erakundeak.

b) Parte hartzaileak: dagokion modalitatean edo diziplinan lehiaketa talde berean inskribatuta dauden eta foru agindu honen IV. kapituluko bigarren atalean ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikasleak.

c) Kategoriak: bigarren urteko kimuak eta haurrak. Kadeteetan ere bai, kategoria horretan lehiaketa federaturik ez balego.

d) Ibilbidea: errendimenduaren hastapena.

e) Lotutako jarduerak: jarduera horietan inskribatutako taldeek dagozkien erakunde laguntzaileak (federazioak) antolatzen dituzten modalitateko edo diziplinako errendimenduaren hastapeneko lehiaketetan parte hartu ahal izango dute.

3. Ez dira errendimendu ibilbideko entrenamendutzat hartuko ikastetxe edo kirol klubek antolatzen dituzten entrenamenduak edo teknifikazio jarduerak, baldin eta ikastetxe edo kirol klub horietan erakundeko edo hainbat erakundetako hainbat taldetako kirolariek parte hartzen badute. Jarduera horietarako, hala badagokio, foru agindu honen VIII. kapituluko bigarren atalean ezarritakoaren arabera programan sartuta ez dauden jarduerak antolatzeko baimenak eskatu beharko dira.

28. artikulua. Teknifikazioak

Kirol federazioek antolatutako entrenamendu saioak dira, talentuak eta etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko ibilbidean hautemandako eta hautatutako ikasleen kirol gaitasunak hobetzeko.

2. Hauek dira jarduera horiek garatzeko ezaugarriak eta baldintzak:

a) Erakunde antolatzaileak: erakunde laguntzaileak (federazioak), zuzenean, dagokion modalitateko edo diziplinako kirol erakunde baten bidez garatzeko aukerarik gabe.

b) Parte hartzaileak:

1.- Eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programan inskribatutako ikasleak, modalitatean edo diziplinan etorkizun handiena dutenak. Gehienez ere kirol diziplinako, generoko eta kategoriako parte hartzaile guztien ehuneko hogeita bostek parte hartu ahal izango dute. Ehuneko horrek parte hartzaile kopuru nahikoa izatea ahalbidetzen ez duten diziplina minoritarioetan, erakunde laguntzaileak generoaren eta kategoriaren arabera beste ehuneko batzuk proposatu ahal izango ditu; hala ere, parte hartzaileen guztizko baturak ezin izango du gainditu kirol diziplina horretako teknifikazio adinetan inskribatutako parte hartzaile guztien ehuneko berrogeita hamar. Definitutako ehunekoak kalkulatzeko ez dira kontuan hartzen jarduera behar bezala garatzeko beharrezkoak diren kirolariak (laguntzako kirolariak).

2.- Federazio lizentzia duten kirolariek ere parte hartu ahal izango dute jardueretan, betiere taldearen ehuneko hogeita bost gainditzen ez badute eta eremu federatuko teknifikazio proiektuetan parte hartzen ez badute.

c) Kategoriak: 2. urteko kimuak, haurrak eta kadeteak.

d) Ibilbidea: talentuak eta etorkizun handiko kirolariak identifikatzea.

e) Baldintzak:

1.- Erakunde laguntzaileek ezin izango dute eskola teknifikaziorik garatu diziplinan edo modalitatean etorkizun handiena duten kirolari guztiak edo gehienak eremu federatuko jardueretan soilik lehiatzen diren kategorietan. Teknifikazio proiektu horiek, hala badagokio, eremu federatuan garatu beharko dira.

2. Jarduerak eskolaz kanpoko ordutegian egingo dira, eta ez dute eraginik izango eskola adineko gainerako jarduera fisikoaren eta kirolaren garapenean. Kontuan hartuko dira horiek finkatzean joan-etorrietarako behar den denbora, eta abar.

3.- Erakunde laguntzaileak ikasleak inskribatuta dauden erakundeei jakinarazi beharko die jarduera horietarako hautatu dituztela.

4.- Erakunde laguntzaileak ezin izango du jarduera horietan parte hartzeagatik kobratu.

e) Lotutako jarduerak:

1.- Jarduera horietan parte hartzen duten kirolariak dagokion erakunde laguntzaileak (federazioa) ezarritako detekzio jardueren edo bestelako detekzio sistemen bidez hautatu ahal izango dira.

2.- Hautatuak izan direnek lehiaketa mugatueta parte hartu ahal izango dute.

HIRUGARREN ATALA. AISIA JARDUERAK

29. artikulua. Kontzeptua

1. Lehia faktorerik gabeko kirol jarduera edo modalitate bat edo gehiago egiten diren jarduerak dira.

2. Aisia jarduerak izan daitezke honako hauek:

- a) Jolas eta aisia jarduerak.
- b) Kirol bakarreko topaketak.
- c) Multikiroleko topaketak.
- d) Aisia jaiak.

30. artikulua. Jolas eta aisia jarduerak

1. Aisialdiko jarduera fisikoak eta kirol jarduerak dira, edo aitortutako kirol modalitate edo diziplinekin loturarik ez duten jarduera fisikoak irakastekoak, jolas izaera hutsa dutenak.

2. Jarduera horien ezaugarriak edo baldintzak honako hauek dira:

a) Erakunde antolatzaileak: eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programan inskribatutako ikastetxeak, 11.1 b artikuluan aipatzen diren erakundeak eta toki erakundeak.

b) Parte hartzaileak: dagokion jardueran programan izena emanda duten ikasleak.

c) Kategoriak: aurrebenjaminak, benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak.

d) Ibilbidea: parte hartzea.

e) Baldintzak: jarduerak gutxienez hiru hilabete eta gehienez zortzi hilabete iraungo dute.

f) Lotutako jarduerak: talde horiek parte hartu ahal izango dute, hala badagokio, erakunde laguntzaileak (federazioa) antolatutako kirol bakarreko topaketetan edo udalerriko multikiroleko topaketetan, betiere topaketetan egin beharreko jarduerak bat badatoz jardueraren beraren barruan egindakoekin.

31. artikulua. Kirol bakarreko topaketak

1. Modalitate bereko diziplina bateko edo batzuetako jolas jarduerak dira (lehiarik gabekoak), diziplinan edo modalitatean inskribatutako ikasleentzat eta taldeentzat antolatutak.

2. Jarduera horien ezaugarriak edo baldintzak honako hauek dira:

a) Erakunde antolatzaileak: erakunde laguntzaileak (federazioak), zuzenean edo modalitateko kirol erakunde baten bidez.

b) Parte hartzaileak:

1.- Oro har, dagokion modalitateko edo diziplinako taldeetan edo B edo C kirol anitzeko jardueretan lehentasunezko modalitatetzat inskribatuta dauden ikasleak.

2.- Erakunde laguntzaileak jarduera horietakoren bat irekia dela ezarri ahal izango du, eta diziplinan edo modalitatean izena eman ez duten pertsonen parte hartzeko aukera eman ahal izango die (jarduera irekia).

c) Kategoriak: aurrebenjaminak, benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak.

d) Ibilbidea: parte hartzea.

e) Beste baldintza batzuk:

1.- Diziplina anitzeko modalitateetan, egutegi bat antolatu ahal izango da modalitateko diziplinak uztartzeko.

2.- Erakunde laguntzaileak ezin izango du inolako diru kopururik kobratu inskripzioagatik edo parte hartzeagatik.

32. artikulua. Multikiroleko topaketak

1. Multikiroleko aisia jarduerak dira (lehiarik gabeak). Hainbat kirol modalitate eta jarduera ezagutzea eta praktikatzea dute helburu, eta udalerriek antolatzen dituzte.

2. Jarduera horien ezaugarriak edo baldintzak honako hauek izango dira:

a) Erakunde antolatzaileak: Arabako udalerriak eta gainerako toki erakundeak. Beste udalerri batzuekin bat egin ahal izango dute jarduera horiek elkarrekin antolatzeko.

b) Parte hartzaileak:

1.- Programako A edo B kirol anitzeko jarduerako taldeetan inskribatutako ikasleak, dagokion udalerrikoak.

2.- Dagokion udalerriak erabaki ahal izango du C kirol anitzeko jardueretan inskribatutako taldeek jardueretan unean-unean ala era iraunkorrean parte hartzea.

c) Kategoriak: aurrebenjaminak, benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak.

d) Ibilbidea: parte hartzea.

e) Baldintzak:

1.- Udalerrri bakoitzak urteko jardueren egutegia zehaztu eta prestatu ahal izango du.

2.- Multikiroleko topaketetarako gordetako datak eta kategoria bakoitzerako gutxieneko eta gehieneko jardunaldi kopurua urteko programa ezartzen duen foru aginduan zehaztuko dira. Ahal den neurrian, horrelako jardueretarako gordetako datak eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programako beste jarduera batzuekin bat etortzea saihestuko da.

3.- Urteko programa ezartzen duen foru aginduak zehaztuko du kategoria bakoitzerako topaketen urteko egutegian garatu beharreko modalitateen edo jardueren gutxieneko kopurua eta horien tipologia.

4.- Udalerriek lehentasuna eman beharko diete udalerrian kirol erakundeak dituzten modalitateei edo jarduerari. Era berean, udalerrriak bere lurraldean sustatu nahi lituzkeen beste modalitate edo jarduera batzuek ere tokia izan beharko dute egutegian, kirol modalitate edo jarduera hori garatzen duen kirol erakunderik ez balego ere.

5.- Udalerriek lankidetzan jardun beharko dute ikastetxeekin eta kirol klub eta elkarteekin, asteburuetako jarduerak edo lehiaketak antolatzeko.

6.- Urteko programak ezartzen dituzten foru aginduetan xedatu ahal izango da jardueren egutegia multikiroleko lehiaketekin osatu beharko dela, aurrebenjamin kategorian izan ezik, kategoria horretan ezin baita lehiaketarik egin.

33. artikulua. Aisia jaiak

1. Modalitate bereko diziplina bateko edo batzuetako lehiarik gabeko jolas jarduerak dira, eta edozein ikaslek parte har dezake, jolaserako eta diziplina edo modalitatea ezagutzeko.

2. Jarduera horien ezaugarriak edo baldintzak honako hauek dira:

a) Erakunde antolatzaileak: erakunde laguntzaileak (federazioak), zuzenean edo modalitateko kirol erakunde baten bidez.

b) Parte hartzaileak: programan dagokion kirol modalitatean edo diziplinan izena emanda duten zein ez duten ikasleak (jarduera irekia).

c) Kategoriak: aurrebenjaminak, benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak.

d) Ibilbidea: parte hartzea.

e) Beste baldintza batzuk:

1.- Oro har, erakunde laguntzaileek egiten dituzten jarduerak doakoak izan behar dute, edo kostu sinbolikoa izan behar dute, bertaratze berme gisa. Jarduerak prezio sinbolikoa baino handiagoa justifikatzen duten aparteko gastuak badituzte (sartzeko sarrerak, materialen alokairua, eta abar), erakunde laguntzaileak kirol arloan eskumena duen sailaren titularren baimena izan beharko du.

2.- Inskripzioen ehuneko hamar gorde beharko da, gutxienez, egoera ekonomiko zaurgarrian dauden haur eta nerabeek parte har dezaten, kosturik gabe edo ezarritako prezioaren ehuneko hirurogeita hamabosterainoko murrizketarekin. Egoera hori egiaztatzeko, gizarte laguntzak jasotzen dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

LAUGARREN ATALA. LEHIAKETA JARDUERAK

34. artikulua. Lehiaketa jarduerak

1. Eskola adineko kiroleko lehiaketa jarduerak dira bi kirolarik edo taldek edo gehiagok beren trebetasunak edo gaitasunak esparru antolatu batean aurrez aurre jartzen dituzten kirol probak, betiere beren ezaugarrietara eta beharretara egokitutako arauekin.

2. Lehiaketa jarduera hauek antolatu ahal izango dira:

a) Parte hartzeko lehiaketak:

1.- Kirol bakarreko lehiaketak.

2.- Multikiroleko lehiaketak.

3.- Lehiaketa jaiak.

b) Errendimenduaren hastapeneko ibilbideko lehiaketak.

c) Lehiaketa mugatuak.

35. artikulua. Parte hartzeko lehiaketak

Kirol diziplina bateko edo batzuetako lehiaketa jarduerak dira, eta lehiaketan hasteko helburua dute.

36. artikulua. Kirol bakarreko parte hartzeko lehiaketak

1. Parte hartzeko ibilbidearen modalitate bereko diziplina bateko edo gehiagoko lehiaketak dira, diziplina edo modalitate horretan inskribatutako ikasleentzat eta taldeentzat antolatuak, eta hautapen eskema batetik kanpo garatzen dira, batez ere hezkuntza eta jolasari begira.

2. Jarduera horien ezaugarriak edo baldintzak honako hauek dira:

a) Erakunde antolatzaileak:

1.- Erakunde laguntzaileak, zuzenean edo modalitateko kirol erakunderen baten bidez.

2.- Partaidetza indize txikiko modalitate edo diziplina batzuetan, kirol arloan eskumena duen sailarekin adostu ondoren, lehiaketa autonomikoak antolatu ahal izango dira, lurralde federazioek edo federazio autonomikoez modu partekatuan antolatuta.

b) Parte hartzaileak:

1.- Kirol bakarrean hasteko jardueran, B kirol anitzeko jardueran edo C kirol anitzeko jardueran alta emandako kirolariak edo taldeak, lehentasunezko edo hautatutako kirol modalitateko edo diziplinako lehiaketan inskribatzen direnak.

2.- Erakunde batek talde bat osatzeko parte hartzaile nahikorik ez badu, hurbiltasun geografikoagatik beste ikastetxe batekin edo batzuekin elkartu ahal izango da, parte hartu ahal izateko.

3.- Kirolariak eta taldeak 11.1 b) artikuluan aipatzen diren ikastetxe edo erakundeetakoak izan behar dira.

4. -Aparteko kasuetan, kirolaren arloko eskumena daukan sailaren titularrak, Arabako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko teknikariak aldeko txostena egin ondoren, baimena eman ahal izango die aurreko zenbakian aipatzen ez diren beste erakunde batzuetako taldeei parte hartzeko, bi baldintza hauek betez gero: batetik, frogatu behar da proposatzen diren jarduerak udalerriko eskaintzan dagoen hutsune bat betetzen dutela; bestetik, jarduerak urtebeteko epealdian aurreko zenbakian aipatzen diren azpiegituretako batean egiteko behar diren jarduketak aurkeztu behar dira. Erakunde antolatzaileak proiektua aurkeztu behar du hori frogatzeko. Kirol federazio bati jarduera egiteko baimena eman eta urtebeteko epealdia igaro ondoren baimena beste urtebeterako luzatu ahal izango da, baldin eta egiaztatzen badu jarduerak aurreko zenbakian aipatzen diren azpiegituretako batean egiteko behar diren jarduketak gauzatzeko denbora luzeagoa behar dela.

5.- Erakunde laguntzaileak jarduera horietakoren bat irekia dela ezarri ahal izango du, eta diziplinan edo modalitatean izena eman ez duten pertsonen parte hartzeko aukera eman ahal izango die (jarduera irekia).

c) Kategoriak: benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak.

d) Ibilbidea: parte hartzea.

e) Baldintzak:

1.- Foru agindu honen IV. kapituluko lehenengo ataleko lehiaketa araudian ezarritako baldintzak bete beharko dira.

2.- Lehiaketek ezin dute mugarik izan parte hartzaile kopuruari dagokionez.

3.- Erakunde laguntzaileak ezin izango du jarduera horietan parte hartzeagatik kobratu.

37. artikulua. Multikiroleko lehiaketak

1. Hainbat kirol modalitate edo diziplinako lehiaketak jardunaldi berean edo, modu banatuan, hainbat jardunalditan elkartzen dituzten jarduerak dira, eta hainbat kirol modalitatetako lehiaketetan hasia dute helburu.

2. Jarduera horien ezaugarriak edo baldintzak 32. artikuluan multikiroleko topaketetarako ezarritako berberak izango dira.

38. artikulua. Lehiaketa jaiak

1. Modalitate bereko diziplina bateko edo batzuetako lehiaketa jarduerak dira, eta edozein ikasle parte har dezake, aisiarako eta diziplina edo modalitatea ezagutzeko.

2. Jarduera horien ezaugarriak edo baldintzak honako hauek dira:

a) Erakunde antolatzaileak: erakunde laguntzaileak (federazioak), zuzenean edo modalitateko kirol erakunde baten bidez.

b) Parte hartzaileak: programan dagokion kirol modalitatean edo diziplinan izena emanda duten zein ez duten ikasleak (jarduera irekia).

c) Kategoriak: benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak.

d) Ibilbidea: parte hartzea.

e) Beste baldintza batzuk:

1.- Lehiaketa ofizialek ez bezalako formatua izan behar dute. Bestela, parte hartzeko lehiaketa irekiak izango dira.

2.- Oro har, erakunde laguntzaileek egiten dituzten jarduerak doakoak izan behar dute, edo kostu sinbolikoa izan behar dute, bertaratze berme gisa. Jarduerak prezio sinbolikoa baino handiagoa justifikatzen duten aparteko gastuak badituzte (sartzeko sarrerak, materialen alokairua, eta abar), erakunde laguntzaileak kirol arloan eskumena duen sailaren titularren baimena izan beharko du.

3.- Inskripzioen ehuneko hamar gorde beharko da, gutxienez, egoera ekonomiko zaurgarrian dauden haurrek edo nerabeek parte har dezaten, kosturik gabe edo ezarritako prezioaren ehuneko hirurogeita hamabosterainoko murrizketarekin. Egoera hori egiaztatzeko, gizarte laguntzak jasotzen dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

39. artikulua. Errendimenduaren hastapeneko ibilbideko lehiaketak

1. Kirol modalitate edo diziplina batean lehiatzeko jarduerak dira. Inskribatutako kirolariak eta taldeak asteburuetan lehiatzen dira, batez ere, errendimendua lortzera eta kirol helburuak gaitzera bideratutako kirol jarduera batean hasia errazteko helburuarekin.

2. Jarduera horien ezaugarriak edo baldintzak honako hauek dira:

a) Erakunde antolatzaileak:

1.- Erakunde laguntzaileak, zuzenean edo modalitateko kirol erakunderen baten bidez.

2.- Foru organoen artean eta, behar denean, EAEko administrazio orokorrarekin adostu ondoren lurralde federazioek edo/eta federazio autonomikoak lehiaketa autonomikoak antolatu ahal izango dituzte elkar hartuta.

b) Parte hartzaileak: Dagokion modalitatean edo diziplinan lehiaketa jardueran inskribatuta dauden kirolariak edo taldeak, foru agindu honen IV. kapituluko bigarren atalean ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

c) Kategoriak:

1.- 2. urteko kimuak, haurrak eta kadeteak.

2.- Ez da egongo errendimenduaren hastapeneko lehiaketarik maila handieneko kirolariak edo taldeak eremu federatuko lehiaketetan soilik lehiatzen diren kategorietan.

d) Ibilbidea: errendimenduaren hastapena.

e) Baldintzak:

1.- Agindu honen IV. kapituluko lehiaketa araudian ezarritako baldintzak bete beharko dira.

2.- Erakunde laguntzaileak ezin izango du jarduera horietan parte hartzeagatik kobratu.

40. artikulua. Lehiaketa mugatuak

1. Ikasleentzat mugatutako kirol lehiaketak dira, beren jarrera eta gaitasun erreal eta potentzia-lagatik identifikatzen eta hautatzen direnak.

2. Jarduera horien ezaugarriak edo baldintzak honako hauek dira:

a) Erakunde antolatzaileak:

1.- Entitate laguntzaileak.

2.- Foru organoen artean eta, behar denean, EAEko administrazio orokorrarekin adostu ondoren lurralde federazioek edo/eta federazio autonomikoak lehiaketa autonomikoak antolatu ahal izango dituzte elkar hartuta.

3.- Beste lurralde eremu batzuetako federazioek antolatutako lehiaketetan parte hartzeko baimena eman ahal izango zaie eskola umeei.

b) Parte hartzaileak: Eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programan inskribatutako ikasleak, modalitatean edo diziplinan etorkizun handiena dutenak. Federazio lizentzia duten kirolariek ere parte hartu ahal izango dute jardueretan, betiere taldearen ehuneko hogeita bost gaingitzen ez badute eta lehiaketaren arauak hala baimentzen badute.

c) Kategoriak:

1.- 2. urteko kimuak, haurrak eta kadeteak.

2.- Ez da egongo lehiaketa mugaturik maila handieneko kirolariak edo taldeak eremu federatuko lehiaketetan soilik lehiatzen diren kategorietan.

d) Ibilbidea: talentuak eta etorkizun handiko kirolariak identifikatzea.

e) Baldintzak:

1.- Lehiaketa hori antolatzen duten erakundeek ezartzen dituzten baldintzak bete beharko dira. Holakorik ezean, agindu honen IV. kapituluko lehiaketa araudian ezarritakoak aplikatu beharko dira.

2.- Erakunde laguntzaileak ikasleak inskribatuta dauden erakundeei jakinarazi beharko die jarduera horietarako hautatu dituztela.

BOSGARREN ATALA. BESTE JARDUERA BATZUK

41. artikulua. Detekzio jarduerak

1. Saio gutxi dituzten jarduerak dira, kirol modalitate edo diziplina batean errendimendua lortzeko gaitasun eta jarrera jakin batzuk dituzten ikasleak detektatzea helburu dutenak.

2. Hauek dira jarduera horiek garatzeko ezaugarriak eta baldintzak:

a) Erakunde antolatzaileak: erakunde laguntzaileak (federazioak), zuzenean, dagokion modalitateko edo diziplinako kirol erakunde baten bidez garatzeko aukerarik gabe.

b) Parte hartzaileak: Eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programan modalitatean edo diziplinan inskribatutako ikasleak.

c) Kategoriak: kimuak, haurrak eta kadeteak.

d) Ibilbidea: talentuak eta etorkizun handiko kirolariak identifikatzea.

e) Baldintzak:

1.- Jarduerak eskolaz kanpoko ordutegian egingo dira, eta ez dute eraginik izango eskola adineko gainerako jarduera fisikoaren eta kirolaren garapenean. Kontuan hartuko dira horiek finkatzean joan-etorrietarako behar den denbora, eta abar.

2.- Erakunde laguntzaileak ikasleak inskribatuta dauden kirol erakundeei jakinarazi beharko die jarduera horietarako hautatu dituztela.

3.- Erakunde laguntzaileak ezin izango du jarduera horietan parte hartzeagatik kobratu.

42. artikulua. Kultura eta kirol jarduerak

1. Kultura eta kirol jardueratzat hartuko dira kirolaren historia eta garapenaren edo mugimendu olinpiarraren edo eskola kirolaren inguruko kultura jarduerak, edo eskola adineko jarduera fisikoarekin eta kirolarekin loturiko beste edozein jarduera.

2. Kultura eta kirol jarduerak ezaugarri edo baldintza hauek dituzte:

a) Antolatzailea erakunde laguntzailea (federazioa), zuzenean edo modalitateko kirol erakunde baten bidez.

b) Parte hartzaileak: programan dagokion kirol modalitatean edo diziplinan izena emanda duten zein ez duten ikasleak (jarduera irekia).

c) Kategoriak: aurrebenjaminak, benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak.

d) Ibilbidea: parte hartzea.

e) Beste baldintza batzuk:

1.- Oro har, jarduerak doakoak izan behar dute, edo kostu sinbolikoa izan behar dute, bertaratze berme gisa. Jarduerak prezio sinbolikoa baino handiagoa justifikatzen duten aparteko gastuak badituzte (sartzeko sarrerak, materialen alokairua, eta abar), erakunde laguntzaileak kirol arloan eskumena duen sailaren titularraren baimena izan beharko du.

2.- Inskripzioen ehuneko hamar gorde beharko da, gutxienez, egoera ekonomiko zaurgarrian dauden haurrek edo nerabeek parte har dezaten, kosturik gabe edo ezarritako prezioaren ehuneko hirurogeita hamabosterainoko murrizketarekin. Egoera hori egiaztatzeko, gizarte laguntzak jasotzen dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

IV. KAPITULUA

Lehiaketa araudia

43. artikulua. Aplikazio eremua

1. Erakunde laguntzaileek antolatutako parte hartzeko lehiaketa jarduerak eta errendimenduaren hastapeneko lehiaketek kapitulu honetan ezarritako arauak edo baldintzak bete beharko dituzte. Parte hartzeko ibilbideko lehiaketek kapitulu honetako lehen atalean ezarritako araudi orokorra baino ez dute bete beharko; errendimenduaren hastapeneko ibilbidekoek, berriz, bigarren atalean ezarritako berariazko araudia bete beharko dute.

2. Lehiaketa jaiek, bestalde, lehiaketa horren deialdiak ezartzen dituen arauak izango dituzte, hala badagokio. Dagokion erakunde laguntzaileak haien berri eman beharko die parte hartzaileei.

3. Autonomia erkidegoetako edo beste lurralde batzuetako federazio edo erakunde laguntzaileekin batera antola daitezkeen lehiaketa jarduerak, hala badagokio, lehiaketa horietarako ezartzen diren arauak izango dituzte. Kapitulu honetan aurreko arauetan ezarritakoa urratzen ez duten arauak osagarri gisa aplikatuko dira.

*LEHENENGO ATALA. XEDAPEN OROKORRAK***44. artikulua. Parte hartzeko baldintza orokorrak**

1. Kirolari batek ezin du izena eman kirol diziplina bereko talde batean baino gehiagotan. Ondorio horietarako, areto futbola, 8ko futbola eta 11ko futbola diziplina bakartzat hartzen dira, eta eskola ume batek ezin du parte hartu horietako batean baino gehiagotan.

2. Ez dago onartuta, halaber, kirolaria inskribatuta dagoen erakundeko goragoko kategorietako taldeetan parte hartzea, ez unean-unean ez etengabe.

3. Lehiaketa batean inskribatutako taldeek urteko foru aginduan talde bakoitzeko adierazten den gutxieneko eta gehieneko kirolari kopurua errespetatu beharko dute.

45. artikulua. Joko araudi egokituak edo modalitate bakoitzeko berariazko araudiak

1. Erakunde laguntzaileek kirol modalitate edo diziplina bakoitzerako joko araudi egokituak eta prestatuko dituzte, eta kirol arloan eskumena duen sailaren titularrak onetsiko ditu, Eskolako Kirolaren Euskal Batzordeak txostena egin ondoren. Joko eta lehiaketa araudiak ahalik eta gehien zabaltzeko ahalegina egingo da, eta Arabako Foru Aldundiaren eta erakunde laguntzaileen web orri instituzionalean argitaratuko direla bermatuko da.

2. Aipatutako berariazko araudiak arian-arian egokitu beharko dira adinen edo kategorien beharretara eta gaitasunetara, honako elementu hauei dagokienez: taldeen osaera, topaketen iraupena, postu zehatzetako parte hartzaileen txandakatzea, erabili beharreko materialak eta jokoguneen dimentsioak.

3. Talde bakoitzeko gehieneko eta gutxieneko jokalaria kopurua, kategoria eta maila guztietan inskribatu beharrekoa, parte hartzea sustatzen duten irizpideetara egokituko da. Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena daukan zerbitzuak baliozkotzat jo ahal izango du baimendutakoak baino kirolari gehiago dauzkan taldea inskribatzea, baldin eta taldea eratzeke beste aukera teknikorik ez badago eta udalerrian ez badago talderik modalitate edo diziplina horretan. Baimenaren aldeko irizpidea izango da jarduerak landa inguruneetan edo ikastetxeetan egitea, batez ere kirolariek aurreko ikasturtean jardueran parte hartu dutenean.

4. Modalitate edo diziplina bakoitzaren ezaugarriak alde batera utzi gabe, 1. apartatuan aipatutako araudiek kirolari guztientzat garrantzitsuak diren joko denborak ezarri eta eskaini beharko dituzte, irizpide hauen arabera:

a) Taldeko kiroletan, kirolari batek ezin izango du gutxien jokatzen duenaren denbora bikoiztu. Kirol modalitate edo diziplina bakoitzaren berariazko araudiak ratio hori zabaldu ahal izango du errendimenduaren hastapeneko ibilbideko haur eta kadete kategorietan, denbora hirukoiztu arte.

Beti ere ratio hori kontuan hartuta, kirol modalitate edo diziplina bakoitzaren araudian joko-denborak egokitu ahal izango dira, baldin eta bidezkoa bada haien konfigurazioaren eta egiaztatzeke zailtasunen arabera.

b) Banakako kiroletan edo arerioko kiroletan, baldin eta, beren ezaugarriak direla-eta, parte hartze denboren zenbaketa desberdina edo kalkulatzeko zaila bada, ahal den neurrian irizpide hori bera betetzen saiatuko dira.

c) Kirol arloan eskumena duen sailak gutxieneko denbora hori betetzetik salbuetsi ahal izango ditu desgaitasunen bat edo premia bereziren bat duten pertsonak, baldin eta, beren ezaugarriak direla-eta, lehiaketa araudietan eskatzen direnak bete ezin badituzte.

5. Era berean, ezin izango da kirolarien deialdirik egin emaitzei begira. Alderdi hori taldeko kirolen eta egokia den beste modalitate edo diziplina batzuen lehiaketa araudietan jasoko da. Foru agindu honen ondorioetarako, honako arrazoi hauetakoren batengatik lehiaketa jardunaldi batean parte hartzeko kirolari bat baztertzeko bada, deialdi hori emaitzei begira egindakoa izango da, arrazoi hauetakoren bat tarteko egon ez bada:

a) Lesioa edo gaixotasuna.

b) Erakundearen diziplina neurria.

c) Eskola kirolaren diziplina araubidean oinarritutako zehapena.

d) Eskola umearen ezintasuna, familiak erabakita edo ezinbesteko beste arrazoi batzuegatik.

e) Izena eman duten ikasleen kopurua gehienez deitu daitezkeen kirolarien kopurua baino handiagoa denean. Kasu horretan, jardunaldietara joan gabe geratzen diren kirolariak modu ekitatiboan banatu beharko dira, izena eman duten kirolari guztiek antzeko topaketa kopuruan parte har dezaten.

6. Taldeko kirolean, modalitate edo diziplina bakoitzeko lehiaketa araudiak zehaztu beharko du akta ixteko erabiliko den bi taldeen arteko puntu edo golen gehieneko aldea partida bakoitzeko.

7. Eskola adineko kirolaren arauetan edo artikulua honetan aipatzen diren modalitate edo diziplinetako berariazko lehiaketa araudietan jasota ez dagoen guztian, dagokion federazioaren joko araudia edo lehiaketaren araudi orokorra aplikatuko da.

46. artikulua. Egutegiak eta lehiaketa sistema

1. Urteko foru aginduak ezarriko ditu kirol modalitate edo diziplina bakoitzeko gutxieneko eta gehieneko jardunaldi kopurua eta lehiaketa jarduerak zein egunetan egin ahal izango diren, kirol anitzeko jarduerekin bateratu ahal izateko, eta, ahal den neurrian, kirol modalitate edo diziplinetako lehiaketaren artean ere bai.

2. Erakunde laguntzaileek egingo dituzte lehiaketaren egutegiak eta araudiak, eta ikasturte hasieran argitaratuko dituzte beren web orrian. Proiektuaren edozein aldaketa eta asteko ordutegiak erakunde parte hartzaileei jakinarazi beharko zaizkie.

3. Lehiaketak ofizialak izan daitezke edo ez. Egoera hori dagokion lehiaketaren egutegian jaso beharko da.

4. Diziplina anitzeko modalitateetan, egutegi bat antolatu ahal izango da modalitate bereko diziplinak uztartzeko.

5. Parte hartzaile gutxi dituzten modalitate edo diziplinetan, hainbat kategoriatako kirolariak nahasten diren lehiaketak antolatu ahal izango dira. Kasu horretan, gutxienez ikasturte amaieran, kategoria bakoitzerako sailkapenak zehaztu beharko dira.

6. Benjamin kategorian, parte hartzen duten kirolarien edo taldeen bolumenak hala ahalbidetzen duen modalitate edo diziplinetan, egutegia tokiko edo eskualdeko izaera nabarmenarekin egingo da, gutxienez hasierako faseetan.

7. Lehiaketa egutegiak ahalik eta lehiaketa sistema berdinzaleenak izan behar dira. Horretarako, erakunde laguntzaileek helburu hori lortzeko egokitzat jotzen dituzten neurriak ezarriko dituzte, hala nola, lehiaketa mailak bereiztea edo bigarren faseak dituzten lehiaketa sistemak egitea. Azken kasu horretan, ahal den guztietan, lehenengoak baino bigarren fase luzeagoak egin beharko dira.

8. Kirolarien edo taldeen bolumenak horretarako aukera ematen duen modalitate edo diziplinetan, hainbat kirol mailatako lehiaketak egingo dira. Erakunde parte hartzaileek parte hartu nahi duten lehiaketaren kirol maila aukeratu ahal izango dute.

9. Kimu, haur eta kadete kategorietako lehiaketaren sailkapenak Arabako txapeldunak eman behar dituzte. Gehienez, banakako sailkapeneko lehen hiru postuei eta talde modalitateetako lehen bi postuei emango zaizkie garaikurrak, azken fasean, neskatoen zein mutikoen kategorietan eta, halakorik badago, kategoria mistoan.

Hala ere, benjamin kategorian, eskola adineko kirol lehiaketetan progresibitatea sustatzeko eta erakunde laguntzaileak beharrezkotzat jotzen dituen taldeak edo bestelakoak eratzeko, emaitzak eta sailkapenak ezarri ahal izango dira, baina ezin izango dira argitaratu web orrietan, ez hedabideetan, ez beste inon, eta haien arabera ez da Arabako txapeldunik izendatuko eta, beraz, ez da garaikurrik emango.

10. Lehiaketa sistema bat ezarriko da, ondoz ondoko faseetan sartzeko sailkapen postuak zehazteko, baldin eta faserik badago. Postu horiek aukera emango dute Arabako talde edo kirolari txapelduna izendatzeko kirol modalitate bakoitzerako, eta, haurren kategorian edo hala deitzen diren beste batzuetan, Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan sartzeko, Arabako Lurralde Historikoaren ordezkari. Erakunde laguntzaileek beren araudietan zehaztu beharko dituzte beren kirolariek txapelketa horietan parte hartzeko hautaketa irizpideak, bai eta egon daitezkeen lurraldez gaindiko beste batzuetan ere.

47. artikulua. Eskola kirolariek adinez dagokienaren goragoko hurrengo kategorian parte hartzea

1. Ikasleek adinaren arabera dagokiena baino maila bat goragoko kategorian parte hartu ahal izango dute, baldintza hauek betez gero:

- a) Norberaren kategoriako urteetako azkenekoan jaiotakoa izatea.
- b) Talde modalitateen edo diziplinen kasuan, kategoria txikiagoko pertsona inskribatuen kopurua ez izatea taldeko kideen ehuneko berrogeita hamar baino handiagoa.
- c) Banakako edo arerioko modalitate edo diziplinen kasuan, erakunde laguntzaileak egiaztatu behar ditu kategoria igoera iradokitzen duten kirol gaitasun bereziak.
- d) Kirolariari adinaren arabera dagokion kategoriako eskaintza egon behar da urteko programan.
- e) Adinez dagokiona baino goragoko kategorian parte hartzeko adingabearen legezko arduradunaren baimen idatzia izatea, jardun horrek berekin dakartzan arriskuen erantzukizuna bere gain hartuz

2. Kirol arloan eskumena duen sailaren titularrak, salbuespen gisa, baldintza horiek betetzen ez dituzten eskaerak baimendu ahal izango ditu, kontuan hartuta modalitate edo diziplina jakin batzuetan edo udalerrri jakin batzuetan taldeak egiteko egon daitezkeen zailtasunak, edo kirolari edo talde batzuek kirolerako dituzten gaitasun bereziak.

3. Kirol modalitate baten barruan goragoko kategoria batean parte hartzen duen ikasleak ez du galduko bere adinari dagokion kategorian beste kirol modalitate edo diziplina batzuetan aritzeko aukera; hala ere, behin lehiaketa hasi eta gero, ezin izango du parte hartu kirol modalitate edo diziplina horretan bertan bere adinari dagokion kategorian.

4. Kategoria bat jaiotze urte bakoitzeko bi azpikategoriatan banatuta dagoen modalitate edo diziplinetan, azken urteko kirolariak goragoko kategoriako bi urteetako edozeinetan parte hartu ahal izango du.

5. Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen zerbitzuak adinagatik dagokiona baino goragoko kategoria batean parte hartzen duten ikasleen inskripzioa baliozkotu ahal izateko, inskripzioa eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren aplikazio informatikoaren berariazko atalean agin beharko da, eta honako dokumentazio hau aurkeztu:

- a) Parte hartzailearen legezko ordezkariaren idazkia, parte hartzeko baimena emanez.
- b) Kirol gaitasun bereziak dituzten kirolarien edo taldeen kasuan, horretarako merezimenduak egiaztatzen dituen federazioaren ziurtagiria.

48. artikulua. Eskola kirolariek adinez dagokienaren hurrengo beheagoko kategorian parte hartzea

1. Adinez dagokienaren goragoko hurrengo kategorian parte hartu ahal izango dute eskakizun hauek betetzen dituzten eskola umeek:

- a) Lehiaketa parte hartzeko ibilbidekoa izatea, modalitate edo diziplinako berariazko araudian, 65.7 artikulua oinarritzat hartuta, beste baldintzarik ezarri ezean.
- b) Parte hartu nahi den kategoriari dagokion urtearen aurrekoan jaio izana.

c) Taldeko kirol modalitate edo diziiplina bat izatea, desgaitasuna edo premia bereziren bat duten kirolarien kasuan izan ezik; kasu horretan, banakako edo arerioko modalitateak edo diziplinak ere izan daitezke.

d) Ikastetxeetako taldeen kasuan, pertsona hori ikastetxekoa izatea, eta 11.1.b artikuluan aipatzen diren erakundeen kasuan, kirolaria aurreko ikasturtean erakunde horretan egon izana.

e) Talde kirolean, baldintza hauek betetzeko konpromisoa hartzea idatziz:

1.- Kirolari baimendu bakoitzaren joko denborak ez gainditzea norgehiagokaren iraupen osoaren ehuneko berrogeita hamar.

2.- Goragoko kategoriako kirolariak talde berean parte hartzeko baimen bat baino gehiago izanez gero, kirolari ezingo dute aldi berean jokatu.

2. Kirol arloan eskumena duen sailaren titularrak, salbuespen gisa, artikulua honetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak baimendu ahal izango ditu, kontuan hartuta modalitate edo diziiplina jakin batzuetan edo udalerrri jakin batzuetan taldeak egiteko egon daitezkeen zailtasunak, edo taldeetan desgaitasuna edo premia bereziak dauzkaten kirolariak daudela.

3. Kirol modalitate edo diziiplina bakoitzeko lehiaketa araudiek ezin izango dute eragotzi artikulua honetan aipatzen diren kirolariak dituzten taldeek azken faseetara edo sailkapenen lehen postuetara sartzeko aukera izatea, salbu eta Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen sailaren titularrak berariazko baimena ematen badu.

4. Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen zuzendaritzaren zerbitzuak adinagatik dagokiona baino beheagoko kategoria batean parte hartzen duten ikasleen inskripzioa baliozkotu ahal izateko, inskripzioa eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren aplikazio informatikoaren berariazko atalean agin beharko da, eta honako dokumentazio hau aurkeztu:

a) Lehiaketetarako baldintzak betetzeko konpromisoaren idazkia, artikulua honen 1.e apartatuan aipatzen dena.

b) Desgaitasuna edo premia bereziak dituzten pertsonen kasuan: desgaitasunaren ziurtagiri ofiziala, egoera hori egiaztatzen duen osasun ziurtagiria edo Hezkuntza Sailaren ziurtagiria.

49. artikulua. Hamazazpi urteko kirolariak programan parte hartzea

1. Hamazazpi urteko kirolariak eskola kirolean beren adinaren arabera kategoria beren azpikoan parte hartzeko, ezinbestekoa da jarduerak parte hartzeko ibilbideko lehiaketak izatea eta baldintza hauetako bat betetzea:

a) Bizi den udalerriko kategoria baxuagoko talde batean aritzea, udalerrian dena delako modalitatean edo diziplinan haren kategoriako kirol talde federaturik ez dagoelako.

b) Aurreko ikasturtean talde berean jardun izana.

c) Desgaitasun edo premia bereziren bat edukitzea.

2. Aurreko apartatuko kasuan, adinaren arabera baino maila bat beheagoko kategorian lehiatzeko foru agindu honen aurreko artikuluan ezartzen dena bete beharko da.

3. Kirolaren arloko eskumena daukan zerbitzuak hamazazpi urteko kirolari baten inskripzioa baliozkotu ahal izateko, eskaera aurkeztu behar da eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko aplikazio informatikoaren atal egokiaren bidez. Gainera, honako agiri hauetako bat ere aurkeztu behar da, kirolaria aurreko ikasturtean talde berean egon ez bada:

1.- Udalerrian ez badago beraren kategoriako talde federaturik: kirol federazioaren ziurtagiria.

2.- Desgaitasuna edo premia berezia badauka: desgaitasunaren ziurtagiri ofiziala, osasun ziurtagiria edo egoera hori egiaztatzen duen Hezkuntza Sailaren ziurtagiria.

50. artikulua. Talde mistoak eta trans kirolariak

1. Foru agindu honetan jasotako parte hartzeko ibilbideko lehiaketa jardueren ondorioetarako, kideen artean gehienez ere emakumezko kirolari bat dagoen taldea izango da gizonezkoen taldea. Era berean, emakumezkoen taldetzat hartuko da taldeko kideen artean gehienez ere gizonezko kirolari bat duena. Horrenbestez, talde mistotzat hartuko dira sexu edo genero sentitu desberdineko bi kirolari gutxienez dituzten talde guztiak.

2. Kirol modalitate edo diziplinen parte hartzea gizonezkoena-emakumezkoena eta mistoa izan badaiteke, honako baldintza hauek betetzen direnean bakarrik onartuko dira talde misto gisa:

a) Kirol modalitateetan edo diziplinetan, sexu edo genero sentitu bakoitzeko gutxienez bi parte hartzailek osatu beharko dute taldea, eta osaera horri eutsi beharko diote ikasturte osoan.

b) Era berean, sexu edo genero sentitu bietako kirolariek parte hartu beharko dute partida guztietan.

c) Talde mistoentzat lehiaketa bat antolatu ezin den kasuetan, lehiaketa horiek nesken edo mutilen lehiaketetan sartuko dira, kide gehienaren sexuaren edo genero sentituaren arabera.

3. Modalitateen berariazko araudiek talde mistoen lehiaketetan parte hartzeko aukera eman ahal izango dute, aurreko bi paragrafoetan ezarritakoez bestelako baldintzetan, modalitateen ezaugarri bereziak edo lehia berdintasunaren helburua kontuan hartuta.

4. Trans ikasleak beren sexu edo genero identitatearen arabera zenbatuko dira beti, bat etorritz foru agindu honen hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin.

51. artikulua. Lehiaketetan begirunea eta balioak sustatzea

1. Taldeko modalitate edo diziplinetan, eta araudi berezian ezartzen den beste guztietan, eskola kiroleko harmailetan errespetua sustatzeko protokoloa (IV. eranskina) aplikatu behar da. Protokolo hori, era berean, Arabako Lurralde Historikoan haurrak eta nerabeak eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko indarkeriaren aurrean babesteko protokoloan xertatuko da. Protokolo hori modalitate edo diziplina bakoitzaren ezaugarrietara egokitu ahal izango da; nolahi ere, horretarako, bidezko aldaketak egin beharko dira modalitatearen araudian.

2. Era berean, erakunde laguntzaileek berariazko arauak edo neurriak sartu beharko dituzte lehiaketa araudietan, kirolarien eta eskola adineko kirol lehiaketetan parte hartzen duten gainerako eragileen artean kiroltasuna sustatzeko.

3. Kirol arloan eskumena duen sailak edo dagokion erakunde laguntzaileak bultzatuta kirolean balioak sustatzera bideratutako ekintza eta programa guztietan lagundu beharko dute erakunde parte hartzaileek.

4. Erakunde laguntzaileek adingabea babesteko ordezkariari jakinarazi beharko dizkiote lehiaketetako aktetan edo txostenetan agertzen diren gorabeherak, bai eta diziplina organo eskudunak, zentzu batean edo bestean, lehen auzialdian hartzen dituen epaiak ere.

5. Aplikatu beharreko diziplina araubide baztertu gabe, erakunde parte hartzaileek egokitzen dituzten prestakuntza, konponketa edo zuzenketa neurriak ezarri beharko dituzte, bai eta kirol arloan eskumena duen sailak edo erakunde laguntzaileak proposa dezakeen beste edozein neurri ere.

52. artikulua. Ikusleak eskola adineko kirol lehiaketetara bertaratzea

1. Eskola adineko kirol lehiaketetara doan eta libre joango dira ikusleak. Bigarren kasu horretan, instalazioaren ezaugarrien, hartu ahal izan diren diziplina ebazpenen eta hurrengo apartatuan ezartzen diren sartzeko eta egoteko arauak betetzearen arabera beteko da aukera hori.

2. Eskola adineko jarduera fisikoak eta kirola egiten diren kirol esparruetan sartzeko eta egoteko arauak honako hauek dira:

a) Eskola adineko jarduera fisikoa eta kirola errespetatzearen aldeko kanpainaren dekalogoan ezarritakoaren arabera jokatzeari (Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena daukan zerbitzuaren web orrian argitaratuko da).

b) Kirol esparruko barne araudiak betetzea.

c) Kiroleko indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legearen 6. eta 7. artikuluetan sartzeko eta geratzeko ezarritako arauak betetzea.

d) Aurreikusitako segurtasun baldintzak eta araudi bidez zehazten direnak betetzea.

e) Kirol esparruaren edukiera mugak betetzea.

3. Jarduerak eta lehiaketak antolatzen dituzten erakundeak behartuta daude aurreko paragrafoan ezarritako arauak betetzen ez dituztenei kirol esparruetan sartzea eta bertan egotea galaraztera. Joko zelaia etxeko taldeak ezartzen duen lehiaketetan, berak edukiko du atal honetan ezarritako arauak betearazteko ardura, zuzenean edo erakunde laguntzailearen bitartez. Nolanahi ere, horrek ez ditu eragotziko arbitroek eskola adineko kiroleko harmailetan begirunea sustatzeko protokoloa aplikatzeko esleituta dauzkaten eskumenak. Era berean, kirol instalazioen titulartasuna duenak aurreko paragrafoan ezarritako neurriak aplikatzeko ahalmena izango du.

4. Kirol esparrua modu baketsuan hustu beharko dute jardueretako eta lehiaketetako ikusleek eta bertaratuek, segurtasun arrazoiengatik edo artikulua honetan aipatutako geratzeko baldintzak ez betetzeagatik hala eskatzen zaienean. Hala bete ezean gero, jarduera antolatzen duten erakundeek edo, hala badagokio, instalazioaren titularrak diren erakundeek udaltzaingoaren edo ertzaintzaren zerbitzuak eskatu ahal izango dituzte.

5. Parte hartzen duten erakunde guztiek mekanismo eraginkorrak antolatu beharko dituzte pertsona guztiei jakinarazteko sartzeko eta egoteko arauak. Sartzeko eta egoteko arauak publikoak izan behar dira eta erraz irakurtzeko moduan agertu beharko dira eskola adineko lehiaketak jokatzen diren kirol esparruetako harmailetan eta jendearentzako beste espazio batzuetan.

53. artikulua. Familien ordezkaria nahitaez egotea

Familien ordezkaria egon behar den modalitateetan, proba edo partida hasi behar den orduan hura ez badago, arbitro taldeak galtzailatzat emango du eginbehar hori bete ez duen kirolaria edo taldea. Nolanahi ere, hori gorabehera, partida jokatu beharko da, honako kasu honetan izan ezik: arbitro taldearen iritziz modu seguru eta hezigarrian egiteko modurik ez badago.

54. artikulua. Diziiplina araubidea

1. Arabako Foru Aldundiak antolatutako eskola adineko jardueren programari aplikatu beharreko diziiplina araubidea bat etorriko da martxoaren 30eko 2/2023 Legean eta eskola-kiroleko lehiaketen diziiplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuan xedatutakoarekin.

2. Diziiplina ahala egikaritzea hauei dagokie, nork bere eskumenen esparruan:

a) Lehen auzialdian, 72.4 artikuluan r) apartatuan ezarritakoaren arabera, lehiaketen antolaketa teknikoki garatzeko ardura duten erakunde laguntzaileen diziiplina organoei.

b) Bigarren eta azken auzialdian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari. Haren ebazpenak administrazio bidea amaituko du, eta errekurtoa jarri ahal izango da haren aurka, aplikatzekoak diren jurisdikzio arauak jarraituz.

55. artikulua. Probak edo topaketak bertan behera uztea

1. Erakunde laguntzaileak probak, partidak edo lehiaketak bertan behera uzteko aukera izango du, bai eta kirola antolatzeke eta sailkatzeke dagozkion ondorioak ezartzeko ere, inguruabar bereziak daudenean.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoak ez dio kalterik egingo Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen zuzendaritzaren titularrak probak, partidak edo lehiaketak bertan behera uzteko duen ahalmen orokorrari, ezinbesteko arrazoiengatik (alerta meteorologikoak, segurtasun publikoa, greba orokorrak eta antzeko beste inguruabar batzuk).

3. Eskola kiroleko lehiaketen diziiplina araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren II. kapituluaren ezarritakoaren arabera, partida, proba edo lehiaketa bat egitea eragozten duen edo hura aldi baterako edo behin betiko etetera behartzen duen protesta edo jarduketa kolektiboa egiten bada, dagokion diziiplina zehapena ezarriko da. Aurrekoa gorabehera, martxoaren 30eko 2/2023 Legearen XIV. tituluaren aurreikusitako zehapen araubide administratiboa aplikatuko da.

4. Uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 20.2 artikuluan erakundeen diziplina erantzukizunari dagokionez xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartzen dira erakundeei lotutako pertsona fisikotzat: erakundearekin eskola-lizentzia duten pertsonak edo haien senideak, erakundearekin harreman juridikoren bat (lanekoa, boluntariotzakoa edo beste izaera batekoa) duten pertsonak, erakundeko organoetako kideak, erakundeko bazkideak eta erakundearekin zalantzarik gabe lotu daitezkeen ikusleak.

56. artikulua. Instalazioak eta materiala

1. Lehiaketa jardueretan parte hartu nahi duen talde orok, oro har, kirol modalitate edo diziplinarako joko gune egokia emango du, bai eta jarduerarako arauzko materiala ere. Horrelakorik ez badauka, entitate laguntzaileari jakinaraziko dio, eta entitate hori bat haren esku ipintzen saiatuko da.

2. Instalazio edo material berezia behar duten kirol modalitate edo diziplinetan (atletismoa, igeriketa, etab.), jarduera horiek antolatzen dituen entitate laguntzaileak izango du hura kudeatzeko ardura.

3. Oro har, taldeek eta partaideek beren joko baliabideak eraman beharko dituzte. Baloia edo antzekoak erabiltzen dituzten modalitateen kasuan, arbitroak hautatuko ditu material ofiziala eta erreserbakoa.

4. Arbitro taldeak edo, hala badagokio, lehiaketako epaileek bakarrik erabaki dezakete instalazioa ez dela egokia aurreikusitako jarduera egiteko.

5. Kirol lehiaketak edo jarduerak egiten diren kirol instalazioetan aldagelak egon behar dira. Gainera, trans kirolariei bermatu beharko zaie askatasunez sentitzen duten sexuari edo generoari dagozkion instalazioak (komunak, aldagelak eta abar) erabili ahal izatea.

6. Eskola adineko kirol lehiaketak edo jarduerak egiten diren kirol instalazioek aukera eman beharko dute kirolaren balioak sustatzera edo jardueraren beraren funtzionamendura bideratutako mezuak zabaltzeko edo kartelak erakusteko, kirolaren arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko Zuzendaritzak hala ezartzen duenean.

57. artikulua. Arbitroak eta epaileak

1. Modalitate edo diziplina bakoitzeko lehiaketa araudiak ezarriko du arbitroen izendapena etxean jokatzeko duen taldearen edo dagokion erakunde laguntzailearen kontua izango den. Nolanahi ere, eta, oro har, arbitroak izendatzea tokiko taldeei esleitu arren, erakunde laguntzaileak egingo du izendapena egokitzen jotzen dituen lehiaketetan, bereziki, gorabeherak gerta daitezkeela uste duen lehiaketetan.

2. Modalitate edo diziplina bakoitzeko araudian ezarri ahal izango da lehiaketan aritzeko ezinbestekoa dela erakundeak lehiaketarako arbitroak aurkeztea.

3. Arbitraje sistema dagokion berariazko lehiaketa araudiaren bidez ezarriko da.

4. Arbitroek lehiaketako partida eta proba guztien akta edo txostena egin beharko dute. Bertan, emaitza ez ezik, gorabeherak eta ikusleen, teknikarien eta jokalarien portaerari buruzko oharak eta eredugarritzat jotzen diren kirol keinuak aipatzeko eremua egongo da. Arbitro taldeak nahitaez bete beharko ditu atal horiek, eta Arabako Lurralde Historikoan haurrak eta nerabeak eskola adineko jarduera fisikoan eta kirolean indarkeriatik babesteko protokoloari lotutako aplikazio edo gorabehera guztiak ere jaso beharko ditu.

58. artikulua. Emaitzak eta gorabeherak jakinaraztea

1. Emaitzen akta edo dokumentua, eta, hala badagokio, artikulua honetako bigarren apartatuan jasotako partida, proba edo lehiaketako gorabeheren txostena, erakunde laguntzaileari emango zaizkio, partida edo lehiaketa egin eta lehen egun balioduneko arratsaldeko zortziak baino lehen, edo kirol modalitate edo diziplina bakoitzerako lehiaketari buruzko araudian adierazitakoaren arabera.

2. Aktan jaso ez bada ere, arbitro taldeak eta lehiaketan parte hartzen duen edozein erakundek lehiaketan izandako gorabeherei buruzko txosten bana bidali ahal izango diote erakunde laguntzaileari, artikuluko honen lehen apartatua ezarritako epea baino lehen. Erakunde laguntzaileak arbitro taldeak egin ditzakeen txostenak edo akta luzapenak bidali beharko dizkie lehiaketan parte hartu duten erakundeei.

3. Federazioak ezarritako arbitro edo epailerik ez dagoen lehiaketetan, etxeko jokatzeko duen taldeak jakinaraziko du emaitza. Kirol modalitate edo diziplina bakoitzaren araudi espezifikoek akta edo emaitzak epe barruan ez ematearen ondorioak ezarriko dituzte.

4. Martxoaren 30eko 2/2023 Legeak 63.3 artikuluan xedatzen duenaren arabera, erakunde laguntzaileek kirol lehiaketak kontrolatzeko eta gainbegiratzeko izendatzen dituzten ordezkari-informatzaileek (arbitroak eta epaileak ez beste batzuek) egiten dituzten aktak egiazkotzat joko dira kirol zehapenak ezartzeko ahala baliatzeko, baldin eta kargu eta funtzio horiek berariaz jasota badaude kirol modalitatearen edo diziplinaren araudi espezifikoan.

59. artikulua. Parte hartzaileen jantziak

1. Edozein kirol modalitate edo diziplinako lehiaketa guztietan, nahitaezkoa izango da parte hartzen dutenen uniforme egokia, betiere publizitatearen arloan indarrean dagoen legeria errespetatuz.

2. Taldeen edo kirolarien jantziak bat etortzeak jardueraren garapenean akatsak eragin baditzake, bisitari diharduen taldeak edo kirolariak aldatu beharko du arropa, baldin eta gutxienez hogeita lau ordu lehenago jakinarazi bazaio koloreak bat datozela. Bestela, etxeko diharduen taldeak edo kirolariak aldatu beharko du arropa.

3. Kirol modalitate edo diziplina bakoitzaren berariazko lehiaketa araudiak artikuluko honetan ezarritakoa aldatu edo egokitu ahal izango du, modalitatearen edo diziplinaren berezko ezau-garrietara egokitzeko. Gainera, bertan ezartzen dena ez betetzeak edukiko dituen ondorioak ere ezarri ahal izango du.

60. artikulua. Lehiaketa egutegiaren aldaketak

1. Ezinbesteko kausengatik baino ezingo da aldatu lehiaketak egitea. Hala gertatzen denean, kasuan kasuko entitate laguntzaileari idatziz eskatu behar zaio, behar besteko aurrerapenez, aurkako kirolari edo taldearen erakundearen adostasuna ere frogatuz eta partida zein egunetan, ordutan eta tokitan jokatu den zehaztuz.

2. Artikulu honetan ezartzen dena ez betetzeak bertaratzen ez direnen zehapenen araubidea aplikatzea eragingo du.

3. Egun aldaketak eragiten dituen gastuak (joan-etorriak, instalazioak, etab.) aldaketa eskatu duen taldeak ordaindu beharko ditu.

61. artikulua. Lizentziak aurkeztea

1. Parte hartzen duten talde guztiek eskola kiroleko lizentzia aurkeztu beharko diote arbitro taldeari partida edo lehiaketa bakoitza hasi baino lehen (baliozkoa, euskarri elektronikoan edo digitalean nahiz euskarri fisikoan edo paperean), behar bezala baliozkotua eta argazki eguneratua duena.

2. Lizentziaren bat aurkezten ez bada, horren berri eman beharko da aktan edo txostenean, diziplina erantzukizunik dagoenez erabakitzeko. Nolanahi ere, proba jokatu beharko da, ezohiko inguruabarren bat gertatu ezean (hala bada, frogatu egin beharko da).

3. Taldearen jokalarien zerrendan eskola lizentzia ez daukan kirolaria jartzea arau hauste oso larria izan daiteke uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuan ezarritako diziplina araubidearen arabera (bidegabeko jokalaria zerrenda).

62. artikulua. Lehiaketa egunak eta orduak

Urteko foru aginduak ezarriko ditu kirol modalitate edo diziplinetako lehiaketak baimentzeko egunak eta ordu tarteak.

63. artikulua. Talde aldaketak eta bajak

1. Parte hartzeko ibilbidean, kirolari bat talde batean inskribatu ondoren ezin izango da aldatu beste talde batera, lehenengo taldea ados egon ezean. Talde aldaketa erakunde batean barruan egin nahi izanez gero, aparteko inguruabarretan baino ez da onartuko, edo/eta adingabearen interes gorenaren printzipioa aplikatuta.

2. Errendimenduaren hastapeneko ibilbidean, taldeak baliozkotu ondoren kirolariak ezin izango dira aldatu talde batetik bestera.

3. Garrantzi bereziko egoeretan, esate baterako, familiaren bizilekua aldatzean edo aukeratu-tako kirol jarduera normaltasunez egitea eragozten duten arazo larriak gertatzean, Arabako Foru Aldundian kirolaren arloan eskumena duen sailak baimena eman ahal izango du ikasturtean zehar taldea aldatzeko, kasu honetan, hasieran inskribatuta zegoen erakundearen adostasunik behar izan gabe.

4. Taldeko kirolean, alta urte bakoitzeko martxoaren 31ren ondoren egiten bada, azken faseari edo azken sailkapenari uko egiteko idatzia aurkeztu beharko da, artikuluko honen 3. apartatua aipatzen diren kasuetan izan ezik (horrelakoetan, ebazpenean zehaztuko da zer gertatu behar den baimena emateko).

5. Lehiaketa jarduera batean inskribatutako taldeek edo kirolariek jarduera horretan parte hartzeari utzi nahi badiote, parte hartzen duten erakundeek idatziz jakinarazi beharko diote baja erakunde laguntzaileari, eta baja eman beharko diote taldeari edo kirolariari eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programaren aplikazioan.

64. artikulua. Beste baldintza batzuk

1. Ezin izango da inolako diru kopururik kobratu lehiaketetan izena emateagatik edo parte hartzeagatik.

2. Lehiaketak egiten diren guneta egunetan, kirol bakarreko topaketak antolatu ahal izango dira modalitate edo diziplina bereko aurrebenjaminentzat. Jarduera horiek jolasekoak eta lehiarik gabeak dira, eta erakunde laguntzaileak berariazko proiektu bat aurkeztu beharko du, bai eta kirol arloan eskumena duen zerbitzuaren baimena ere.

3. Lehiaketa berean ezin izango dute inola ere parte hartu eskola lizentzia duten kirolariek eta federazio lizentzia duten kirolariek. Behar denean, azpiegitura aprobetxatzeko, probak antolatu ahal izango dira egun eta instalazio berean, baina, betiere, ordutegien arabera bereizita edo zein bere eremuan, mugak ondo finkatuta. Bigarren kasuan, jarduera federatuak adingabeenak izan behar dira.

BIGARREN ATALA. ERRENDIMENDUAREN HASTAPENEN LEHIAKETA JARDUEREI BURUZKO XEDAPENAK**65. artikulua. Baldintza orokorrak**

1. Errendimenduaren hastapeneko lehiaketa jarduerak egituratzeko oinarritzko irizpideak kasuan kasuko erakunde laguntzailearekin adostuko dira.

2. Oro har, modalitate bakoitzean, gehienez ere, jaioturte bakoitzari dagokion populazio guztiaren ehuneko hamabostek parte hartuko du. Parte hartzen duten kirolarien edo taldeen kopurua aurretik finkatuko dute lurralde federazioak eta Arabako Foru Aldundiak, kontuan izanda mailan sartuta dagoen populazio eskolaratua, modalitateko kirol lizentzia kopurua eta Arabako Lurralde Historikoan dauden klubaren kopurua. Ekipoen banaketa lurraldean ikasleen banaketaren proportzioan izateko ahalegina egingo da.

3. Edonola ere, errendimenduaren hastapeneko lehiaketetan parte hartzea murriztua izango da, eskola ume bakoitzaren kirol proiektzioaren irizpideetan eta lehiaketarekiko jarreraren oinarrituta.

4. Errendimenduaren hastapeneko lehiaketetan, modalitate edo diziplina eta kategoria bakoitzerako ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten kirol klubak edo elkarteak bidez hartuko dute parte ikasleek.

5. Lehiaketa horietan parte hartzen duten klubak edo elkarteak Arabako Foru Aldundiak eta Arabako edo, hala badagokio, EAEko kirol federazioak gonbidatuta egingo dute.

6. Ahal den guztietan, lehiaketak itxiak izango dira, hau da, ez da igotzeko ez jaisteko loturarik izango errendimenduaren hastapeneko ibilbideetako lehiaketaren eta modalitateko parte hartzeko ibilbidearen artean. Hala ere, ez badago ekipo nahikorik errendimenduaren hastapeneko lehiaketa eratzeko, kirol arloan eskumena duen sailaren titularrak lotura hori baimendu ahal izango du lehiaketaren barruan faseak eratzuz.

7. Errendimenduaren hastapeneko ibilbideko lehiaketaren aurretik parte hartzeko ibilbidea egin bada, modalitatearen araudian lehiatzeko aukera eman ahal izango zaie atal honetan ezartzen diren inguruabarretan ez dauden taldeei.

8. Errendimenduaren hastapeneko lehiaketetan parte hartzen dutenek adinaren arabera dagokien mailan parte hartuko dute. Kirol heldutasunaren berezko prozesuak gordetzeko, oro har ez da mailaz aldatzen utziko. Nolanahi ere, teknika, osasun edo hezkuntza arloko arrazoren bat dagoenean, Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailaren titularrak baimena eman ahal izango du aldaketa hori banaka eta salbuespen gisa egiteko, aldeztu aurretik hori justifikatzen duten agiriak aurkeztuta.

66. artikulua. Talde kiroletan parte hartzeko baldintzak

1. Oro har, errendimendu hastapeneko ibilbideko talde kiroleko lehiaketetan parte hartu nahi duten taldeak edo elkarteak baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Goragoko kategorietan taldeak izatea.

b) Taldearen ardura duten langile teknikoek dagokien kirol titulazioa daukatela egiaztatzea, modalitate bakoitzerako ezarrita dagoena.

c) Beren jarduera eskola adineko jarduera fisikoari eta kirolari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakora egokitzea.

d) Eskola adineko kirolaren arloko arau hauste administratiboak egiteagatik ikasturtea hasi aurreko hiru urteetan ezarritako zehapen irmo bat baino gehiago ez pilatzea, horietako bat arau hauste larriak egiteagatik izanik. Zehapena beste erakunde batzuetako kirolariak baimenik gabeko aldi edo kategorietan erakartzera bideratutako jarduera bat egiteagatik jarri bada, nahikoa izango da zehapen irmo bakar batekin.

e) Aurreko ikasturtean Arabako Foru Aldundiak baimendu gabeko jarduerak antolatu, lagundu edo horietan parte hartu ez izana.

f) Aurreko ikasturtean emaitzei begirako deialdirik egin ez izana.

g) Uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 17. eta 20. artikulua aplikatuz zehapenik jaso ez izana.

2. Errendimenduaren hastapeneko lehiaketetan parte hartu ahal izango dute aurreko apartatuan adierazitako baldintzak betetzen ez dituzten kirol klubak edo elkarteak, bai eta klubak edo kirol elkarteak ez diren beste egitura batzuek ere, baldin eta, idatziz eskatu ondoren, Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailak horretarako baimena ematen badu. Horretarako, eskaera arrazoitu egin beharko da, eta salbuespenezko baldintzak bete beharko dira.

67. artikulua. Banakako edo arerioko kiroletan parte hartzeko berezitasunak eta baldintzak

Banakako kiroletarako, kasuan kasuko federazioko batzorde teknikoak eta Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen saileko zerbitzu teknikoek erabakiko dituzte errendimenduaren hastapeneko lehiaketa jardueretan parte hartzeko irizpideak.

V. KAPITULUA

Inskripzioak

68. artikulua. Inskripzioak

1. Eskola adineko kirol programaren jardueretan parte hartzen duten erakundeak edo taldeak inskribatzeko baldintzak dira foru agindu honetan ezarritako guztiak.

2. Erakundeak edo taldeak eta eskola adineko kirol programako jardueretan parte hartzen dutenak inskribatzeko modua, epeak eta entregatu beharreko dokumentazioa urteko programa bakoitza arautzen duen foru aginduan zehaztuko dira.

3. Parte hartzaileek nahi adina jardueratan eman ahal izango dute alta eta baja, lehiaketa jardueretan izan ezik, horiei dagokienez foru agindu honen 63. artikuluan ezarritakoa errespetatu beharko baitute.

4. Kirolarien gurasoek edo legezko tutoreek eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programaren funtzionamenduari eta sustatzen dituen balioei lotutako prestakuntzaren bat egiteko eskatu ahal izango da haien tutoretzapean dauden ikasleek programan izen emateko eta parte hartzeko baldintza gisa. Halaber, orientazio bereko prestakuntza eskatu ahal izango zaie 13. artikuluan ezartzen diren programetan parte hartzen duten agenteei. Nolanahi ere, horrez gainera foru agindu honetan edo indarreko beste lege xedapen batean ezarritako beste batzuk ere eskatu ahal izango zaizkie.

5. Programetako parte hartzaileak, inskribatu beharrekoak, honako hauek izango dira: kirolariak, beren legezko ordezkariak eta foru agindu honen 8. eta 13. artikuluetan aipatzen diren agenteak.

69. artikulua. Baliozkotzeak

1. Inskripzioak Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen zerbitzuak baliozkotu beharko ditu, inskripzioa, parte hartzeko baldintzak eta aurkeztutako dokumentazioa zuzenak direla egiaztatu ondoren. Baliozkotu ez diren taldeek eta parte hartzaileek ez dute parte hartuko eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programan, eta, beraz, ezin izango dute parte hartu erakunde laguntzaileek antolatutako lehiaketa eta jardueretan, ezta kirol arloan eskumena duen sailak emandako garraioa erabili ere, eta ezin izango dute baliatu eskola adineko kirolaren esparruan egin daitezkeen dirulaguntzen deialdiez.

2. Kirolari baten edo eskola adineko kiroleko programa bateko beste parte hartzaile baten inskripzioa baliozkoa izan dadin eta, beraz, hark programako jardueretan eta gainerako onuretan parte hartzeko eskubidea eduki dezan, gutxienez jarduera hasi baino 7 egun natural lehenago egin beharko da, aparteko kasuetan izan ezik (arrazoia azaldu behar da).

3. Inskripzio eskaerak eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, erakunde interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean akatsak zuzentzeko edo dagokion dokumentazioa aurkezteko. Hala egin ezean, ohartaraziko zaio eskaeran atzera egin duela ulertuko dela dagokion ebazpenaren bidez, eta artxibatu egingo dela.

70. artikulua. Inskripzioak errebokatzea

1. Baliozkotu den erakunde, talde edo parte hartzaile batek ez baditu betetzen inskribatzeko aukera emateko baldintzak, Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena daukan sailaren titularrak inskripzioa errebokatu ahal izango du. Hori inskripzioaren aurretik zein ondoren gerta daiteke.

Gauza bera gertatuko da inskribatzeko eskaera batean edo hartan adierazitakoa betetzen dela frogatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioan funtsezko daturen bat oker badago, faltua bada edo falta bada.

2. Inskripzioa errebokatzeaz gainera, ebazpenean ezarri ahal izango da ezin izango dela eskatu horretarako beste prozedura bat hasteko hurrengo ikasturtean edo denboraldian.

3. Errebokazioa administrazio prozedura baten bidez egingo da, eta prozedura horretan entzuna izateko eta defendatzeko eskubidea bermatuko zaio eragindako erakundeari.

4. Erakundeari idatziz jakinaraziko zaizkio errebokatzeak arrazoiak, eta hamar egun balioduneko epea emango zaio alegazioak aurkezteko.

5. Errebokatzeak erabakiak behar bezala oinarrituta egon beharko du, eta idatziz jakinaraziko zaio erakundeari.

VI. KAPITULUA

Entitate laguntzaileen partaidetza

71. artikulua. Lankidetzaren helburua: laguntza teknikoa

1. Eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programan egin beharreko jardueretarako laguntza teknikoa eman ahal izateko, Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena daukan sailak honako hauek izango ditu laguntzaile batez ere: lurraldeko kirol federazioak edo, bestela, euskal federazioak edo kirol antolamenduaren, antolaketa teknikoaren eta prestakuntzaren eremuan esperientzia egiaztatua duten beste erakunde batzuk, Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena daukan zuzendaritzaren titularrak izendatuak.

2. Laguntza teknika da III. kapituluan jasotako kirol jardueren alderdi tekniko guztien zuzendaritza, koordinazioa eta jarraipena, baldin eta erakunde laguntzaileek garatu behar badituzte.

72. artikulua. Lankidetzarako baldintzak

1. Erakunde laguntzaileak konpromisoa hartu beharko du foru agindu hau betetzeko eta betearazteko, bere eskumenaren eremuan.

2. Era berean, inplikaturako kirol federazioek konpromisoa hartu beharko dute aurrebenjamin, kimu eta haurren kategorietarako federazio lizentziak ez emateko edo izapidetzeko, eta ez antolatze, homologatzeko, babesteko edo onartzeko jarduera federatuak edo eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren programan jasota ez dauden beste batzuk antolatzea edo haietan parte hartzea, Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailaren titularraren berariazko baimenik gabe.

3. Lankidetza zein kirol modalitateko hitzartu den, entitate laguntzailea kirol modalitate horri dagokion jardueraren garapen teknikoaren arduraduna izango da.

4. Bereziki, garapen teknikoaren erantzukizuna bere gain hartzen duen erakunde laguntzaileak konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Hitzartutako kirol modalitateko laguntza teknikoaren arduraduna izendatzea. Hark bere gain hartuko du jarduera guztien koordinazioa, eta Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen zuzendaritzarekiko etengabeko solaskidea izango da.

b) Jardueren askotariko egutegia programatzea, foru agindu honen III. kapituluko bigarren atalean ezartzen diren jarduera eta baldintzen arabera. Egutegiak jarduera lehiakorrek eta ez lehiakorrek jaso ahal izango ditu, baita irekiak ere. Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen zuzendaritzaren titularrak kirol anitzeko jarduerak antolatzeak eskatu ahal izango du, bai eta egokitatzat jotzen duen beste edozein jarduera antolatzeak ere.

Jarduera irekien kasuan, erakunde laguntzaileek modalitate edo diziplina hori eskaintzen duten Arabako erakundeen informazioa eskaini beharko diete parte hartzaileei, inolako diskriminaziorik gabe. Urteko jardueren egutegia Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena daukan zerbitzura bidali beharko da lehen jarduera hasi baino lehen.

c) Egutegian programatutako jarduerak antolatzea, zuzenean edo beste erakunde batzuen bitartez, eta horri dagokionez bete beharreko berariazko baldintzetan, eta foru agindu honetan ezarritako eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programen printzipioei jarraiki.

d) Instalazio edo material berezi bat eskatzen duten jarduerak (atletismoa, igeriketa eta abar) kudeatzea. Era berean, ziurtatu beharko dute beren modalitateko lehiaketak edo jarduerak egiten diren egiturek bermatu egiten dietela trans parte hartzaileei askatasunez sentitzen duten sexuari edo generoari dagozkion instalazioak (komunak, aldagelak eta abar) erabiltzeko eta haietan sartzeko aukera.

e) Berariazko ekintzak garatzea, haurrek eta nerabeek kirol jardueran parte har dezaten bultzatzeko, bereziki, ordezkaritza txikia duten diziplinetan eta abandonu handiena duten adinetan.

f) Desgaitasuna duten adingabeen aldeko ekintza positiboko konpentsazio neurriak ezartzea, eta nork bere ekintzak edo Arabako Kirol Egokituaren Federazioarekin lankidetzan gauzatzea, pertsona horiek antolatzen dituzten jardueretan parte hartzeko eta integratzeko, hori guztia bat etorritz martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 38. artikuluan ezarritakoarekin.

g) Ekonomia, gizarte edo kultura arrazoiengatik gizarte egoera zaurgarrian dauden adingabeen aldeko ekintza positiboko konpentsazio neurriak ezartzea.

h) Arabako Lurralde Historikoan haurrak eta nerabeak eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko indarkeriatik babesteko protokoloa aplikatzea, onartzen denean.

i) Parte hartzen duten erakunde guztiei edo modalitateko jardueretan izena eman duten pertsona guztiei, multi B eta multi C jardueretan modalitatea lehentasunezkoztat aukeratu dutenei barne, haietan parte hartzeko behar den informazio guztia bidaltzea, bai eta kirol arloan eskumena duen sailak zabaltzea egokitzen jotzen duen beste edozein informazio edo dokumentazio ere. Era berean, web orrian argitaratu beharko dituzte, baldin eta halakorik badute, eskola jardueren egutegia eta dagozkien diziplinei buruzko berariazko araudia.

Programari buruzko informazio eta komunikazio guztietan, programari eta Arabako Foru Aldundiari dagozkien logotipoak erabiliko dira, eta antolatzaileak eta laguntzaileak ere identifikatuko dira.

j) Kirol modalitateko edo diziplinetako berariazko lehiaketa araudiak prestatzea, foru agindu honetan ezarritakoarekin bat etorritz. Araudi horiek Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen zuzendaritzaren titularrak onetsi beharko ditu, Eskola Kiroleko Euskal Batzordearen txosten baten ondoren.

k) Lehiaketa egutegiak egitea, foru agindu honetan ezarritakoarekin bat etorritz. Egutegi horiek lehiaketa hasi baino lehen bidali beharko zaizkio kirol arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko zerbitzuari.

l) Lehiaketaren aldietako bakoitzean, jardunaldiak programatzea, lehiaketetako aktak jasotzea eta sailkapenak egitea, baita partaideei behar duten informazioa ematea ere.

m) Lehiaketak garatzeko behar den arbitrajeaz arduratuko diren langileak izendatzea. Arbitrajea foru agindu honetan ezarritakoaren arabera garatuko da.

n) Eskola arbitrajeko prestakuntzak antolatzea, arbitro edo epaile jardun ahal izateko prestakuntza jakin bat izatea eskatzen den modalitate edo diziplinetan. Prestakuntza hori kirol modalitatearen arauzko alderdietara eta kategorien arabera aplikaziora bideratuko da, bai eta etapa horietan kirolariekiko izan behar duten jarrera didaktikora ere. Halaber, harmailetan begirunea sustatzeko protokoloa aplikatzera bideratutako edukiak eta foru agindu honen 15. artikuluan aipatzen den lan pedagogikoa jasoko ditu.

ñ) Parte hartzaileen artean kiroltasuna eta harmailetan begirunea sustatzeko neurriak eta ekintzak ezartzea, eskola adineko jarduera fisiko eta kirol benetan hezigarriak eta indarkeriazko jokabiderik gabeak egin ahal izateko. Neurriak eta ekintzak prebentziozkoak nahiz zuzentzaileak izango dira, diziplina organo eskudunak har ditzakeen diziplina neurriak eta, hala badagokio, dagozkion administrazio zehapenak alde batera utzi gabe.

o) Jardueren eta lehiaketaren jarraipena egitea eta sortzen diren gorabeheren berri ematea kirol arloan eskumena duen sailari.

p) Kirolaren arloko eskumena daukan sailak egindako jardueren inguruan eskatzen dizkion datu eta agiri guztiak ematea.

q) Kirol arloan eskumena duen sailarekin lankidetzan aritzea joan-etorrien kontuan, foru agindu honetako VII. kapituluaren ezarritakoarekin bat etorritik.

r) Eskola adineko kirol lehiaketetarako berariazko diziplina organoaren bitartez, diziplina eginkizuna betetzea lehen auzialdian.

s) Teknikariak, epaileak eta arbitroak eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programan inskribatzea. Arbitroak izendatzea tokiko taldeei badagokie, horiek izango dira haiek inskribatzeko arduradunak.

5. Erakunde laguntzaileek alta eman beharko dute eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren aplikazio informatikoan, jarduerak hobeto kudeatzeko.

VII. KAPITULUA

Erakunde parte hartzaileen joan-etorriak

73. artikulua. Lehiaketetara eta topaketetara joatea kirolaren arloko eskumena daukan sailak jarritako garraiobideak erabiliz

1. Asteburuetan, erakunde laguntzaileek edo udalerriek antolatutako kirol bakarreko edo multikiroleko topaketak eta lehiaketak egiteko joan-etorriak egin behar badira, parte hartzen duten erakundeek garraioa eskatu ahal izango diote kirol arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko zerbitzuari.

2. Bidaia-erakundeak kopuruak autobusa kontratatzeke egokiera ematen badu, garraiobide hau jarriko da interesdunen esku, horretarako ezarritako aurrekontu mugen barruan.

3. Eskara egiten den zerbitzu bakoitzean, talde batek garraioa erabiltzeko baldintzak honako hauek izango dira:

a) Programan parte hartzen duen erakundea izatea, egoitza soziala Arabako Lurralde Historikoan izatea eta irabazteko xederik gabekoa izatea.

b) Taldean gutxienez hamar pertsona izatea, eta pertsona horiek programan inskribatuta egotea. Pertsona kopuru txikiagoa duen talde bat sartu ahal izango da zerbitzuan, baldin eta bidaia beste talde batekin egin badezake eta, batera, hamar lagunetik gora badituzte.

c) Eskola umeen eta adingabeen garraioko segurtasun baldintzei buruz indarrean dagoen legegian xedatutakoa betetzen duen arduradun bat izatea, autobusera eskubidea duten pertsonak baino sartzen ez direla egiaztatuko duena, eta baldintza hauek izan beharko dituen:

1.- Abian den kanpainako eskola kirolerako lizentzia izatea.

2. Adin nagusikoa izatea.

Ezingo da inola ere erabili kirol arloko eskumena duen sailak jarritako autobus zerbitzua, hartan ez badago aurretik adierazi den arduraduna.

d) Taldearen erakundea ezin da egon artikuluko honen 8. eta 9. apartatuetako kasuetako batean azken garraio eskaeran.

e) Egindako azken bidaian ez izatea garraioaren erabilerari buruzko txosten negatiborik, foru agindu honen 77. artikuluan debekatutako portaeraren bat agertzen duenik.

f) Garraio konpainiaren batekin izandako kalteengatik oraindik ordaindu gabeko zorrik ez izatea.

4. Era berean, talde batek ezingo du garraioa erabili:

a) Ikasturtean zehar artikuluko honetako 8. eta 9. apartatuetako kasuren batean birritan edo gehiagotan egon bada.

b) Azken bi urteetan garraioaren erabilerari buruzko bi txosten negatibo izan baditu, foru agindu honen 77 artikuluan debekatutako jokabideren bat agertzen dutenak. gasteizko udalerritik zazpi kilometrora edo gutxiagora dauden erakundeek kasuan, epea hiru urtera luzatuko da.

5. Erakunde interesdunek eskaera bat aurkeztu beharko dute talde bakoitzeko eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren aplikazio informatikoaren bidez, ebazpen honen II. eranskinean ezarritako ereduaren eta urteko programan finkatutako epealdiaren barruan. Epealdirik kanpo aurkezten diren eskaerak ez dira aintzat hartuko, aparteko kasuetan izan ezik (arrazoia azaldu behar da).

6. Jarduera baten antolamenduak hala eskatzen duenean edo modalitate edo diziplina bereko garraio eskaera bateratua erraztu nahi denean, erakunde laguntzaileek parte hartzen duten erakundeek eskaerak egin ahal izango dituzte.

7. Behin garraiorako aste bakoitzeko diru kopuruak argitaratu ondoren, salbuespenez eta modu arrazoituz baino ez dira onartuko aldaketak eta baliogabetzeak.

8. Erakunde batek, joan-etorrietarako autobusa eskatu eta gero, erabakitzen badu, aldezturik jakinarazi gabe edo behar besteko epean jakinarazi gabe, ez duela erabiliko kontrataturiko autobusa, edo ezin badute erabili artikuluko honetako 3 c) apartatuan adierazitako laguntzaileak ez duelako, zerbitzua erabiltzeko baldintzak betetzeari utziko dio, eta, beraz antolakundeak denboraldian jartzen dituen beste garraiobideetatik bazter utzi ahal izango da.

9. Erakunde batek, aldezturik jakinarazpenik gabe, programatutako jarduera egin ahal izatea galarazten badu, eta talde bisitariak eskatutako lokomozio bidea erabili badu, zerbitzua erabiltzeko baldintzak betetzeari utziko dio, eta, beraz, ikasturtean zehar antolakuntzak eman dako beste garraio batzuetatik kanpo utzi ahal izango da.

10. Erakunde eskatzaile batek ezin badu garraioa erabili lehiaketa bertan behera utzi delako edo kirol arloan eskumena duen sailari edo kontratatutako garraio konpainiari egotz dakizkiokeen gorabeherengatik, lehiaketa birprogramatu egin beharko da. Garraioa birprogramatutako egunean erabili ahal izango da, baldin eta lehiaketa asteburuetan eta aldi baliadunetan edo gaitutako beste jardunaldi batzuetan egiten bada.

11. Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen zerbitzuak eskari guztiak jaso eta gero, sail horrek autobusak esleitu ditzake taldeei. Baieztatutako adjudikazioak posta elektronikoz bidaliko zaizkie erakunde parte hartzaile bakoitzari eta erakunde laguntzaile bakoitzari. Halaber, erakunde bakoitzak eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren aplikazio informatikoan kontsultatu ahal izango du informazio hori.

12. Kirol arloan eskumena duen sailak ez du bere gain hartuko berak eskatu eta kudeatu ez duen kontratazio batek edo erakundeek garraio pribatuan izan ditzaketen gastuek sortutako faktura.

74. artikulua. Lehiaketetara eta topaketetara joatea kirolaren arloko eskumena daukan sailak jarritako garraiobideak ez beste batzuk erabiliz

1. Erakunde parte hartzaile batek garraio zerbitzua eskatu badu erakunde laguntzaileek edo udalek antolatutako kirol bakarreko edo multikiroleko lehiaketara eta topaketetara joateko eta bidaiariaren kopurua, ordutegien bateraezintasuna edo beste arrazoiren bat dela eta ukatu bazaio, bidaiak beste garraiobide batzuek baliatuz egin ahal izango ditu.

2. Kirolaren arloko eskumena daukan sailak ez ditu ordainduko erakundeek garraio pribatuaren gastuen fakturak.

75. artikulua. Programan inskribatutako taldeen entrenamenduetara joatea

1. Programetan inskribatutako Arabako Lurralde Historikoko taldeek joan-etorriak egin behar badituzte lanegunetan entrenatzeko eta, eskualde bateko zenbait herritako bidaiariak egonik, autobusa kontratatzea bidezkoa bada, garraibide hori ipiniko da interesdunen esku, horretarako ezarritako aurrekontu-mugen barruan.

2. Aurreko apartatuko garraio-eskaera CUDE aplikazio informatikoaren bidez aurkeztu beharko da. Horretarako onetsi den eredia foru agindu honen II. eranskinean dago.

3. Eskaera bakarra egingo da ikasturte osorako. Bertan, datu hauek azaldu behar dira, zehatz-mehatz jasota: ibilbidea, geldialdia egin beharreko herriak, herri bakoitzean jaso edo utzi beharreko pertsona kopurua, eta eskaera behar bezala kudeatzeko behar diren datu guztiak.

4. Zerbitzu hori erabili ahal izateko, talde orok pertsona arduradun bat izan beharko du, indarrean dagoen legedian xedatutakoa betetzen duena eta bereziki baldintza hauek betetzen dituena:

1. -Abian den kanpainako eskola kirolerako lizentzia izatea.

2.- Adin nagusikoa izatea.

5. Ezingo da inola ere erabili kirol arloan eskumena duen sailak jarritako autobus zerbitzu hori, hartan ez badago adierazi den arduraduna.

6. Kirol arloan eskumena duen sailak ez du bere gain hartuko berak eskatu eta kudeatu ez duen kontratazio batek edo erakundeek garraio pribatuan izan ditzaketen gastuek sortutako faktura.

7. Erakunde batek, joan-etorrietarako autobusa eskatu eta gero, erabakitzen badu, aldezturik jakinarazi gabe edo behar besteko epean jakinarazi gabe, ez duela erabiliko kontratatutako autobusa, edo ezin badu erabili aurretik aipatutako laguntzaile hori ez edukitzeagatik, antolakundeak ikasturtean jartzen dituen beste garraibideetatik bazter utzi ahal izango dira.

76. artikulua. Programatik kanpo utzitako joan-etorriak

Ez dira onartuko joan-etorri hauek egiteko eskaerak:

a) Herri baten barruan egiten direnak.

b) Zazpi kilometro baino hurbilago dauden herrien artekoak, kasu honetan izan ezik: 20.000 biztanle baino gutxiagoko herrien arteko joan-etorriak entrenamenduak egiteko.

c) Arabako Lurralde Historikotik kanpo kokatutako erakundeek egindakoak, nahiz eta Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailaren titularraren baimena izan eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren kanpainan parte hartzeko.

d) Honako jarduera mota hauetarako egindakoak: aisia jaiak, lehiaketa jaiak, detekzio edo teknifikazio jarduerak, hastapen ikastaroak. Hori guztia, kirol arloan eskumena duen sailaren titularraren berariazko baimena izan ezean.

e) Eskola orduetan antolatutako jardueretarako egindakoak.

77. artikulua. Erabilera arauak

1. Eskola garraioan ez dira baimenduko honako portaera hauek:

a) Horretarako gaituta ez dauden lekuetan bidaiatzea.

b) Ibilgailuak duen segurtasun edo larrialdi mekanismoren bat justifikatutako arrazoirik gabe erabiltzea.

c) Ateak irekitzeko eta ixteko mekanismoak maneiatzea edo indarrez erabiltzea.

d) Ibilgailuen barruko nahiz kanpoko aldeetan idaztea, pintatzea, zikintzea edo edozein modutan narriatzea.

e) Ibilgailua ibilbidea egiten ari den bitartean gauzak bide publikora jaurtitzea.

f) Irratiak, soinua edo komunikazioa erreproduzitzeko aparatuak, gailu elektronikoak edo antzekoak gainerako erabiltzaileentzat edo gidarientzat gogaikarria izan daitekeen bolumen baten erabiltzea.

g) Ibilgailu barruan erretzea, droga toxikoak edo estupefazianteak hartzea edo alkoholodun edariak edatea.

h) Ibilgailuen barruan jatea eta edatea, baldin eta horrekin ibilgailuaren segurtasun baldintzak aldatzen badira, ibilgailua zikintzen bada, edo gainerako bidaiariak gogaitzen baditu.

i) Oro har, debekatuta daude norberaren edo beste erabiltzaileen osotasun fisikoa arriskuan jar dezaketen portaerak, bai eta erabiltzaileentzat edo zerbitzua ustiatzen duen enpresako agente eta langileentzat gogaikarriak edo iraingarriak izan daitezkeenak ere.

j) Arabako Lurralde Historikoan aplikatu beharreko bidaiarien garraioari buruzko araudian jasota dauden beste debeku batzuk.

2. Programan parte hartzen duen erakundeak dagokion garraio konpainiari ordaindu beharko dizkio erabiltzaileek eragin ditzaketen kalteak.

VIII. KAPITULUA

Baimenak

LEHENENGO ATALA. XEDAPEN OROKORRAK

78. artikulua. Xedapen orokorrak

1. Kirol arloan eskumena duen sailaren titularraren baimena behar da hauetarako:

a) Eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programan sartuta ez dauden kirol jarduerak antolatzeako eskola adineko kirolarientzako.

b) Eskola adineko kirolariek jarduera fisikoko eta kiroleko programan sartuta ez dauden kirol jardueretan parte hartzeko, honako kasu hauetan:

1.- Goragoko lurralde eremuko programan sartuta ez dauden jardueretan parte hartzeko.

2.- Arabako erakundeek beste lurralde historikoetako eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programan parte hartzeko.

3.- Arabako ikasleek beste lurralde historiko edo autonomia erkidego batzuetako erakundeetan parte hartzeko.

4.- Eskola lizentzia duten estatu mailako txapelketa federatu ofizialetan parte hartzeko.

c) Haur kategorian edo beheragoko kategoriako kirolariek federazio lizentzia eskuratzeko.

d) Kirolariek kasu berezi hauetan Arabako Foru Aldundiaren urteko programetan parte hartzeko:

1.- Eskatutako adina bete ez duten kirolariek parte hartzeko.

2.- Arabako Lurralde Historikokoak ez diren kirolariek eta taldeek parte hartzeko.

3.- Programan parte hartzeko beste baimen berezi batzuetarako.

2. Martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 143.u) artikuluan xedatutakoaren arabera, administrazio arau hauste zehagarria izango da artikulua honetako 1. apartatuan aipatutako eskola umeen kirol jarduerak antolatzea edo horietan parte hartzea, dagokion baimenik gabe. Ondorio horietarako, baimenik ez duela ulertuko da aipatutako eskola umeen kirol jarduerak antolatzeak edo haietan parte hartzeak baimena emateko baldintzak eta eskakizunak funtsean urratzen dituenean.

3. Baldin eta kirol arloan eskumena duen sailak jakiten badu eskola adineko kirol jarduerak antolatzen edo horietan parte hartzen ari dela, eta jarduera horiek ez daudela programetan jasota, ez dutela behar den baimena edo haien baldintzak eta eskakizunak betetzen ez dituztela, dagokion zehapen prozedura aktibatuko du, eta, kautelaz, jarduera horiek etengo ditu berehala.

Jarduerak oraindik ez badira egin, Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailak informazioa eskatu ahal izango du haiek egiteari buruz eta, hala badagokio, jarduerak baimendu edo ez baimendu erabakiko du.

4. Baimena emateko ebazpenean jasotako baldintzak betetzen ez badira, baimena baliogabetu ahal izango da, eta, hala badagokio, dagokion zehapen prozedura aktibatu.

BIGARREN ATALA. PROGRAMETAN JASOTA EZ DAUDEN KIROL JARDUERAK ANTOLATZEA IKASLEENTZAKO

79. artikulua. Programetan jasota ez dauden jarduerak antolatzea

1. Arabako Lurralde Historikoan ezin izango da kirol jarduerarik antolatu haur kategoriako eta beheragoko mailako ikasleentzat, baldin eta eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programetan jasota ez badaude.

2. Arabako Lurralde Historikotik kanpo ere ezin izango da jarduerarik antolatu eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programetan jasota ez dauden haur kategoriako eta beheragoko mailako Arabako ikasle taldeentzat.

3. Aurreko bi apartatuetan ezarritakoa gorabehera, dagokion eskaera egin ondoren, kirol arloan eskumena duen sailaren titularrak baimena eman ahal izango du programan parte hartzen duten erakundeek zein beste erakunde batzuek garatzen dituzten eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programetatik kanpoko kirol jarduerak antolatzeko, baldin eta parte hartzeko egiturak, jardueren lurralde eremuak eta baimendu beharreko jardueretan parte hartzeko gutxieneko adinak bat badatoz foru agindu honetan ezarritakoekin.

4. Kirol modalitate edo diziplinaren baten berezko ezaugarriek hala eskatzen dutenean, Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailaren titularrak baimena eman ahal izango du, salbuespen gisa eta Eskola Kirolaren Euskal Batzordearen txostenaren ondoren, foru agindu honetan adierazitakoak baino eremu handiagoetan jarduerak antolatzeko, hargatik eragotzi gabe euskal federazioek eta Eusko Jaurlaritzak autonomia erkidegoetako selekzioen arloan dituzten eskumenak.

5. Haur kategoriako edo beheragoko kategoriako eskola adinean federatutako jarduerak, Arabako Lurralde Historikoan egiten direnek edo Arabako kirol federazioek lurraldetik kanpo antolatzen dituztenek, dagokien baimena izan beharko dute.

6. Programetan jasota ez dauden eta Arabako Lurralde Historian aurrera eramaten diren jardueretan, baldin eta kirol arloan eskumena duen sailaren titularrak baimenduta antolatzen badira, Bizkaiko eta Gipuzkoako erakundeek edo kirolariek parte hartu ahal izango dute, betiere dagokion foru aldundiaren baimena badute. Betebehar horretatik salbuetsita daude eskola adinean federatutako jarduera baimenduak.

7. Foru agindu honen 33. eta 38. artikuluetan, hurrenez hurren, ezarritako adin edo kategorietatik beherako kirol modalitate edo diziplinetako aisia jaiak eta lehiaketa jaiak baimendu ahal izango dira, Eskola Kiroleko Euskal Batzordearen txostenaren ondoren, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Jarduerak dibertitzera eta modalitateak eta diziplinak ezagutzera bideratuta egotea, lehiaren eta bikaintasuna bilatzearen kaltetan.

b) Sailkapen metaturik ez sortzea, ezta saririk ere irabazleentzat.

c) Gehienez egun bateko iraupena izatea.

d) Parte hartzaileentzat kostu ekonomikorik ez izatea.

8. Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen sailaren titularren baimena behar duten jarduera guztiek bete eta aplikatu beharko dute Arabako Lurralde Historikoan haurrak eta nerabeak eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko indarkeriatik babesteko protokoloa.

9. Jarduerak urteko edozein alditan antolatzeko baimena eman ahal izango da, programako jardueretarako ezarritako egun baliogabeak alde batera utzita.

10. Jarduerak baimentzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren printzipioetara eta helburuetara egokitzea.
- b) Kirol modalitateak ikasleen adinera egokitzea.
- c) Programako jarduerekin bateragarriak izatea (egutegiak eta ordutegiak).
- d) Foru agindu honetan definitutako parte hartzeko egituretara egokitzea.
- e) Dagokion modalitatearen antolamenduarekin bat etortzea.
- f) Jardueren arduradunak gaituta egotea.
- g) Programak eskola adinen berezko ezaugarrietara egokitzea.
- h) Instalazioen segurtasun eta higiene baldintzak izatea.
- i) Jardueretan parte hartzen dutenen arriskuak estalita egotea.
- j) Parte hartzeko lehiaketan kasuan, Eskola Kirolaren Euskal Batzordeak zehaztutako lehiaketaren ezaugarri teknikoekin bat etortzea.

80. artikulua. Eskaera egin beharrik gabe baimendutako jarduerak

1. Eskola programan sartuta ez dauden jarduera hauek antolatzeko baimena ematen da, eskaerarik egin beharrik gabe:

- a) Ikastetxeak: ikasleentzako lehiaketa jaiak eta kirol jarduerak.
- b) 11.1 b artikuluan aipatzen diren erakundeak: kideentzako eta kirolarientzako lehiaketa jaiak eta kirol jarduerak.
- c) Kirol federazioak: kadete kategoriara bideratutako lehiaketak eta jarduerak, hau da, hamabost edo hamasei urte beteko dituzten eskola umeei zuzendutakoak, urteko programa amaitzen den urtean eta dagokion federazio lizentzia badute.
- d) Toki erakundeak: beren lurralde eremuan erroldatutako ikasleentzako lehiaketa jaiak eta kirol jarduerak.
- e) Inskribatutako taldeen arteko lagunarteko partidak, kategoria eta ibilbide bakoitzeko urteko programa hasten denetik lehiaketa jarduerak amaitu arte jokatzeko direnak.

2. Aurreko apartatuan baimendutako lehiaketa jaiak foru agindu honen 38. artikuluan jaietarako ezarritakoak baino adin edo kategoria txikiagoak har ditzakete, betiere aurreko artikulua 7. apartatuan ezarritako baldintzak betetzen badira.

81. artikulua. Jarduera batzuk baimentzeko berariazko baldintzak

1. Erakunde parte hartzaileek kirolari berriak erakundean sartzeko helburuz garatutako jarduerak, hala nola detekzio jarduerak, erakartze jarduerak, ate irekietako jardunaldiak edo antzekoak, honako baldintza hauek bete beharko dituzte baimendu ahal izateko:

- a) Oro har, jarduera horietan parte hartzeko gutxieneko adina kimu kategoriako lehen urteari dagokiona da.
- b) Dena dela, aurrebenjamin eta benjamin kategorietan ate irekietako jardunaldiak egin ahal izango dira, kirol modalitate edo diziplina bat eta erakundearen funtzionamendua erakustea helburu badute, eta, nolanahi ere, ondoren, erakundean bertan izena emateko aukera emango badiete hala nahi duten parte hartzaile guztiei, kirol mailari inola ere lotuko ez zaizkion irizpideen arabera. Jardueraren publizitateak argi eta garbi jaso beharko du informazio hori.

c) Kirola egiteko unean beste kirol erakunde batean modalitatean edo diziplinan inskribatuta dagoen kirolari bat edo gehiago aurreikusten dituzten jarduerak, urteko foru aginduan lehiaketak amaitzeko ezarritako datatik –eta inoiz ez dagokion urteko ekainaren 1a baino lehenagotik– hurrengo urteko programaren hasiera datara bitartean egin beharko dira. Baldintza horretatik salbuetsi ahal izango dira jarduera hauek:

1.- Erakunde antolatzaileak jardueretan parte hartzen duten kirolarien erakundearekin indarrean dagoen lankidetzak hitzarmena duten jarduerak.

2.- Parte hartzaileak ikastetxeetako taldeetan inskribatuta dauden eta erakunde antolatzailea erreferentziako ikastetxea edo, hala badagokio, ikastetxe horretako guraso elkarteak den jarduerak.

3.- Eskola adineko kiroleko programan parte hartzen ez duten eta jarduera egin eta hurrengo ikasturtean parte hartuko ez duten erakundeek antolatutako jarduerak.

d) Modalitate edo diziplina berean beste erakunde batzuetan inskribatutako kirolaririk aurreikusten ez duten jarduerak urteko edozein unetan egin ahal izango dira.

2. Foru agindu honen 27. eta 28. artikuluetan ezarritakoez bestelako teknifikazio jarduerak, baldin eta parte hartzaileen kirol gaitasunak hobetzea badute helburu, honako baldintza hauek bete beharko dituzte baimendu ahal izateko:

a) Jardueretan parte hartzeko gutxieneko adina kimu kategoriako bigarren urteari dagokiona da.

b) Foru agindu honen 21. artikuluan aurreikusitako asteko gehieneko saio kopurua errespetatu beharko dute.

c) Kirola egiteko unean beste kirol erakunde batean modalitatean edo diziplinan inskribatuta dagoen kirolari bat edo gehiago aurreikusten dituzten jarduerak, urteko foru aginduan lehiaketak amaitzeko ezarritako datatik –eta inoiz ez dagokion urteko ekainaren 1a baino lehenagotik– hurrengo urteko programaren hasiera datara bitartean egin beharko dira. Baldintza horretatik salbuetsi ahal izango dira eskola adineko kiroleko programan parte hartzen ez duten eta jarduera egin eta hurrengo ikasturtean parte hartuko ez duten erakundeek antolatutako jarduerak.

Teknifikazio jarduerak baimentzeko eskaera ez da beharrezkoa izango, baldin eta, baldintza hauek beteta, foru agindu honen 80.1 artikulua arabera baimendutako jardueren erreferentzia egiten badiete.

3. Hastapen jarduerak, hala nola eskola programaren hasiera datatik amaiera datara bitartean egiten diren kirol campusek edo udalekuek, ezin izango dute inola ere erakartzeko jarduerarik ekarri, zeinen bidez, parte hartzen duten erakundeek berariaz jakinarazten dieten kirolariei edo haien senideei erakundera erakartzeko interesa dutela, erakundearen beraren informazio dokumentu orokor bat emateaz gain. Kirolari bati edo gehiagori interes hori berariaz jakinaraziz gero, erakartzeko jardueratzat hartuko da ondorio guztietarako, eta artikuluko honetako 1. apartatuan ezarritako baldintza guztiak bete beharko ditu.

HIRUGARREN ATALA. ESKOLA ADINEKO KIROLARIEN PARTE HARTZEA PROGRAMETAN JASOTA EZ DAUDEN KIROL JARDUERETAN

82. artikulua. Programan jasota ez dauden jardueretan parte hartzea

1. Oro har, baimenduta dago programan jasota ez dauden jardueretan parte hartzea, eskaerarik egin beharrik gabe, baldin eta jarduerak honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Foru agindu honen 9.3 artikuluan aipatutako lurralde eremuak ez gaiztatu.

b) Arabako Lurralde Historikoko eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programako jarduerak aurrera eramaten diren egunetan egitea.

c) Beste lurralde edo autonomia erkidego batzuetako jarduera edo lehiaketa ofizialen egutegiaren barruan ez egotea.

2. Aurrekoa gorabehera, Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailaren titularrak gehienez ere jarduera edo lehiaketa kopuru jakin batera mugatu ahal izango du mota horretako jardueretan parte hartzea. Muga hori desberdina izan daiteke kirol modalitate edo diziplina bakoitzean, ezaugarrien arabera, eta kirol modalitate edo diziplina bakoitzaren berriazko araudien bidez ezarri ahal izango da.

3. Era berean, kirol modalitate edo diziplinaren baten ezaugarriek hala eskatzen dutenean edo jardueraren xedea batez ere aisia jarduera denean eta unean unekoa denean, Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailaren titularrak baimena eman ahal izango du, salbuespen gisa, jardueretan artikuluko honen 1. apartatuan ezarritakoaz bestelako baldintzetan parte hartzeko.

83. artikulua. Arabako erakundeek beste lurralde historikoetako eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programan parte hartzea

1. Programetan eskaintzen ez diren kirol modalitate edo diziplinetan, edo, parte hartzaile gutxi izateagatik, Arabako Lurralde Historikoan asteburuko jarduerarik edo lehiaketarik ez dutenetan, Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen sailaren titularrak baimena emango die kirolariei edo taldeei beste lurralde historikoetako eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programan jasotako jardueretan parte hartzeko, aurrebenjamin kategorian izan ezik.

2. Halaber, organo horrek baimena eman ahal izango du beste bi lurralde historikoetako eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programetan jasotako jardueretan unean-unean parte hartzeko, honako egoera hauetan:

- a) Parte hartzaile kopuru txikia duten modalitateak edo diziplinak.
- b) Modu justifikatuan, jardueren edo lehiaketen egutegi murriztua izan duten modalitateak edo diziplinak.
- c) Errendimenduaren hastapeneko ibilbidean dauden kirolariak edo taldeak, edo beren modalitate edo diziplinako maila handienekoak direnak, antzeko mailetako beste kirolari edo talde batzuekin aurrez aurre jardun ahal izateko.
- d) Noizean behin parte hartzea, kirol esperientzia bereziaz gozatzeko.

3. Artikulu honetako baimenetarako, kategoria bakoitzerako ezarritako lurralde eremua errespetatu beharko da, parte hartzaileen maila baxua duten modalitate edo diziplinei lotutakoe-tarako izan ezik, eta inola ere ez da ahalbidetuko kirolari batek asteburu berean bi jardueretan edo Arabako Lurralde Historikoko programaren jarduera egutegia eteten duten lehiaketetan parte hartzea.

84. artikulua. Arabako ikasleek beste lurralde historiko edo autonomia erkidego batzuetako erakundeetan parte hartzea

1. Oro har, ikasleen mugikortasuna eta joan-etorriak saihesteko eta arau honetan ezarritako hezkuntza xedek babesteko helburuak bermatzeko, Arabako ikasleek eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko jarduerak Arabako Lurralde Historikoko erakundeetan egingo dituzte.

2. Kirol arloan eskumena duen sailaren titularrak baimena eman ahal izango du, kirolari adingabeen interes gorenaren kontuan hartuta, Arabako ikasleek beste lurralde historiko batzuetako edo beste autonomia erkidego batzuetako erakundeetan parte hartzeko, baldin eta Arabako Lurralde Historikoarekin muga egiten duten erakundeak badira, kirol modalitate minoritarioak edo diziplinak badira, edo ikasleek beren jarduera beren bizilekutik gertuen dagoen ingurune geografikoan egitea eragozten duten aparteko inguruabarrak badaude.

85. artikulua. Eskola lizentzia duten estatu mailako txapelketa federatu ofizialetan parte hartzea

1. Dagokion federazioak aukera hori ematen badu, kirol arloan eskumena duen sailaren titularrak baimena eman ahal izango du eskola lizentzia duten estatu mailako txapelketa federatu ofizialetara joateko.

2. Kasu horietan, foru agindu honen 5. artikuluan aipatzen diren aseguruaren estaldurek estaliko dituzte parte hartzaileak.

*LAUGARREN ATALA. HAUR EDO BEHERAGOKO KATEGORIAKO KIROLARIEK FEDERAZIO LIZENTZIA ESKURATZEA***86. artikulua. Federazio lizentziak izapidetzea**

1. Arabako eta Euskal Autonomia Erkidegoko kirol federazioek ezin izango diete federazio lizentziarik izapidetu edo eman haur hezkuntzako 2. kategoriako jaiotze urtearen ondoren jaio-tako eskola umeei, salbu eta, aldez aurretik eskaera eginda, Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailaren titularraren berariazko baimena lortzen badute.

2. Programan izena emanda dauden eta haur hezkuntzako 2. kategoriako jaiotze urtearen ondoren jaio diren Arabako ikasleek ezin izango dute federazio lizentziarik lortu beste lurralde historiko bateko edo beste autonomia erkidego bateko kirol federaziotik, salbu eta, aldez aurretik eskaera eginda, Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen sailaren berariazko baimena lortzen badute. Artikulu honetako 4. apartatuan ezarritako irizpideen arabera dagokion balorazioa egin ondoren, ez da inolaz ere baimenik emango Arabako federazio baten bidez federatzeko baimena ematerik ez badago.

3. Eskaerak Arabako federazioek, federatu beharreko ikasleak inskribatuta dauden erakunde parte hartzaileek edo adingabeen legezko ordezkariak aurkeztu ahal izango dituzte.

4. Honako hauek izango dira baimena emateko jarraituko zaien irizpideak:

a) Zer eragozpen dagoen eskola kiroleko lehiaketa bat Arabako Lurralde Historikoan edo beste lurralde historiko batzuetan egiteko.

b) Kirolariaren kirol proiektzioa.

c) Eskola adineko jarduera fisikoa eta kirola bideratzen dituzten printzipioekin bat datorren parte hartzea sustatzea, aplikatzekoa den araudiaren arabera.

d) Bateragarriak diren Arabako Lurralde Historikoko eskola kiroleko lehiaketak eta goi mailako lehiaketetan parte hartzea.

e) Eskola Kirolaren Euskal Batzordean edo horren ordezkio organoan hartzen diren erabakiak.

5. Urteko programak arautzen dituzten foru aginduetan baimena eman ahal izango da kategoria eta modalitate edo diziiplina batzuetarako federazio lizentziak emateko.

6. Federazio lizentziek ematen diren urterako edo denboraldirako edo aldi zehatzerako balioko dute. Balio epea amaitu ondoren, hala badagokio, beste eskaera bat egin beharko da.

7. Federazio lizentzia izapidetzeko baimena eman ondoren, Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen zerbitzuaren titularrak baja emango die denboraldi horretako eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programan parte hartzen duten kirolariei, baimen hori eskatu den kirol modalitatean edo diziplinan, hurrengo apartatuko kasuan izan ezik.

8. Kirol modalitate edo diziiplina batzuen errealitatea kontuan hartuta, kirol arloan eskumena duen sailaren titularrak baimena eman ahal izango du eskola lizentzia eta federazio lizentzia aldi berean emateko. Bereziki, parte-hartzaileen maila txikia dela eta, lurralde edo autonomia mailan eskola jardueren egutegi murriztua duten modalitate edo diziplinetan.

*BOSGARREN ATALA. KIROLARIEN PARTE HARTZE BEREZIA URTEKO PROGRAMETAN***87. artikulua. Eskatutako adina bete ez duten kirolariek parte hartzea**

1. Parte hartzeko lehiaketetan parte hartzeko gutxieneko adina benjaminen lehenengo urteari dagokiona izango da.

2. Errendimenduaren hastapeneko ibilbidearen jardueretan parte hartzeko gutxieneko adina kimu kategoriako lehenengo urteari dagokiona da detekzio jardueretarako, eta kimu kategoriako bigarren urteari dagokiona gainerako jardueretarako.

3. Salbuespen gisa, kirol arloan eskumena duen sailaren titularrak aurreko apartatuan eskatutako adina bete ez duten kirolariei parte hartzeko baimena eman ahal izango die, modalitate edo diziplina jakin batzuetan edo udalerri jakin batzuetan taldeak egiteko egon daitezkeen zailtasunak kontuan hartuta eta Eskola Kiroleko Euskal Batzordearen txostenaren ondoren.

88. artikulua. Arabako Lurralde Historikokoak ez diren kirolariek eta taldeek parte hartzea

1. Bizkaiko edo Gipuzkoako Lurralde Historikoetan erroldatuta dauden eta Arabako Lurralde Historikoko ikastetxeetan eskolatuta ez dauden ikasleek Arabako eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programan parte hartzen duten erakundeetan izena eman ahal izango dute, betiere dagokion lurraldeko kirol arloko organo eskudunaren baimena aurkeztzen badute eta Arabako Foru Aldundiko kirol arloko sailaren eskudunaren titularrak baimena eman ondoren.

2. Beste autonomia erkidego batzuetako ikasleen kasuan, kirolaren arloan eskumena duen organo autonomikoaren baimena edo txostena eskatu ahal izango da, Arabako Foru Aldundian kirolaren arloan eskumena duen sailaren titularrak baimena eman aurretik.

3. Arabako Lurralde Historikoan kokatuta ez dauden erakundeek, beren kokapen geografikoa edo kirol tradizioa dela eta eskatutako baldintzak (kategoria, kirol modalitate zehatza, etab.) beteta, Arabako Foru Aldundiak antolatutako eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programaren barruan programatutako jardueretan parte hartu nahi badute, idatziz adierazi beharko diote hori foru aldundi honetan kirol arloan eskumena duen zerbitzuari, eta, nahitaez, dagokien lurralde historiko, probintzia edo autonomia erkidegoan jarduera eskola adineko fisikoaren eta kirolaren ardura duten organoen baimena edo, hala badagokio, txostena aurkeztu beharko dute.

89. artikulua. Programan parte hartzeko beste baimen berezi batzuk

Foru agindu honetan jasotako gainerako baimenak, Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen sailaren titularrak programari dagokionez eman behar dituenak eta kapitulu honetan jaso ez direnak, teknikoki baloratuko dira, eskola adineko kirolaren arauen eta printzipioen arabera, betiere adingabeen interes gorenak kontuan hartuta.

SEIGARREN ATALA. PROZEDURA

90. artikulua. Eskaerak

1. Kapitulu honetako baimen eskaerak Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen zerbitzuan aurkeztu beharko dira, foru agindu honen III. eranskinean ezarritako ereduaren arabera.

2. Programan alta eman duten erakundeek eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren aplikazio informatikoaren bidez egin beharko dituzte eskaerak.

3. Kapitulu honetako bigarren, hirugarren eta laugarren ataletan adierazten diren baimen eskaerak, parte hartu nahi den jarduerak egin baino gutxienez hilabete lehenago aurkeztu beharko dira, salbu eta, aparteko inguruabarrengatik, arrazoizkoa bada denbora tarte laburragoaz eskatzea. Beranduenez ere, esandako jarduerak egin baino bost egun lehenago ebatziko dira.

4. Kapitulu honetako bosgarren atalean adierazten diren baimen eskaerak, parte hartu nahi den jarduerak egin baino gutxienez hamar egun baliodun lehenago aurkeztu beharko dira, salbu eta, aparteko inguruabarrengatik, arrazoizkoa bada denbora tarte laburragoaz eskatzea. Delako jarduera egin baino lehenago ebatziko dira, baldin eta dagozkion agiriak ezarritako epearen barruan aurkeztu badira.

5. Eskaeretan, erakundeek, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztu beharko dituzte:

a) Baimena justifikatzen duten arrazoien azalpena.

b) Baimen eskaeretan aipatzen diren jardueretan eta lehiaketetan parte hartuko duten ikasleen zerrenda (izen-abizenak eta jaioteguna).

c) Erantzukizunpeko adierazpena hauek jasoz:

1.- Legez ezarritako zenbatekoa estaltzen duen erantzukizun zibileko aseguru poliza edukitzea.

2.- Adingabearen babesaren arloan ezarritako betebeharrak betetzea.

6. Eskaerak ez baditu betetzen beharrezko baldintzak, edo eskabidearen punturen bat argitu edo justifikatu behar bada, eskabidea aurkeztu duenari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean akatsa konpontzeko edo eskatutako agiriak edo argibideak aurkezteko. Era berean, jakinaraziko zaio hala egiten ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, eta eskaera artxibatu egingo dela, kasuan kasuko ebazpena eman ondoren.

91. artikulua. Dokumentazioa

Kapitulu honetan aipatzen diren baimenak eskuratu nahi dituztenek honako dokumentazio aurkeztu beharko dute eskaerarekin batera:

a) Programan jasota ez dauden jarduerak antolatzeko edo horietan parte hartzeko baimenen kasuan, informazio dokumentu bat, jardueraren ezaugarriak jasotzen dituen: lekua, datak, ordutegia, iraupena, hartzaileak eta abar.

b) Hamazazpi urteko edo gehiagoko kirolarien kasuan:

1.- Udalerrian ez badago beraren kategoriako talde federaturik: kirol federazioaren ziurtagiria.

2.- Desgaitasuna edo premia berezia badauka: desgaitasunaren ziurtagiri ofiziala, osasun ziurtagiria edo egoera hori egiaztatzen duen Hezkuntza Sailaren ziurtagiria.

c) Kirol arloan eskumena duen zerbitzuak eska ditzakeen intereseko beste datu batzuk.

92. artikulua. Ebazpena

1. Baimenen berri izatea eta horiek ebaztea Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen sailaren titularrari dagokio, eta eskatutako jarduerarako edo, hala badagokio, eskatutako ikastarorako balioko du.

2. Baimenak emateko, baimen bakoitzean ezarritako baldintzak eta martxoaren 30eko 2/2023 Legean, uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan, foru agindu honetan eta ikasturte bakoitzeko eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programan ezarritako printzipioak eta betekizunak bete beharko dira. Baimen baten baldintza eta betekizun horiek nabarmen betetzen ez badira, jarduerak nahitaezko baimenik ez duela ulertuko da.

3. Kirol arloan eskumena duen sailaren titularrari eskaera garaiz eta forma egokian aurkeztuta, hark ebazpena ez badu ematen jarduera egitea aurreikusita dagoen eguna baino lehenago, hartarako baimena eman dela ulertuko da.

4. Era berean, urteko programak eta berariazko lehiaketa araudiak ezartzen dituen foru aginduek baimen orokorrak jaso ahal izango dituzte modalitate, diziplina edo jarduera jakin batzuetarako.

5. Era berean, lehiaketa horietan parte hartzen duten erakundeek baimen edo gonbidapen horren babesean egindako egintzek, eskola adineko jarduera fisikoari eta kirolari buruzko araudiak debekatutako emaitza lortu nahi badute, edo horren aurkakoa, lege iruzurrez gauzatutzat joko dira, baimena edo gonbidapena baliogabetzea ekarriko dute, eta ez dute eragotziko saihestu nahi izan den araudia behar bezala aplikatzea. Bereziki, lege iruzurra izango da nortasun juridikoaz abusatzea, erakunde batek Arabako Foru Aldundiak eskola adineko kirolaren arloan beste erakunde bati emandako baimena edo gonbidapena erabiliz.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Modalitate ez-presentziala

Pertsonen mugikortasuna mugatuta dagoen egoeretan, edo antolakuntza edo logistika arrazoiengatik gomendagarriagoa denean pertsonak elkartzea eskatzen ez duten jarduerak egitea, betiere kirol jardueren kalitatea murrizten ez bada, jarduera horiek modalitate ez-presentzialean egin ahal izango dira, baldintza hauetan:

a) Eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programatik kanpoko jarduerak modalitate ez-presentzialean antolatzeke eta haietan parte hartzeke, jarduera presentzialak antolatzeke eta haietan parte hartzeke eskatzen diren baldintza berberak bete beharko dira.

b) Eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programako jarduerak modalitate ez-presentzialean antolatzeke eta horietan parte hartzeke, Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena daukan sailaren titularren alde aurreko onespena beharko da.

Bigarrena. Trebiñuko enklabea

1. Trebiñuko enklabea erakundeek, beren borondatez urteko foru aginduaren xede diren eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programetan parte hartu nahi badute, aginduan ezarritako betebeharrak eta baldintzak bete beharko dituzte, bai eta horiek ez betetzearen ondorioak beren gain hartu ere.

2. Foru agindu honek Arabako Lurralde Historikoari egiten dizkion erreferentziak Trebiñuko enklabeari ere aplikatuko zaizkio, bidezkoa bada.

Hirugarrena. Trans kirolariak

1. Otsailaren 15eko 4/2024 Legearen 3. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, trans pertsonak eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programetan parte hartu ahal izango dute, beren sexu edo genero identitatearen arabera, diagnostiko edo txosten psikiatriko edo psikologikorik eta tratamendu medikorik behar izan gabe. Programa horietan jarduteko, baldintza bakarra izango da erregistro aldatzea eskatu izana edo, horren orde, administrazio dokumentazioa aldatzeke eskatu izana.

2. Kirol lehiaketan araudiek bermatu egin beharko dute ikasleek jarduera fisikoan eta kirolean diskriminaziorik ez izateko duten eskubidea, sexu orientazioagatik, genero identitateagatik, genero adierazpenagatik, sexu garapenagatik edo antzeko inguruabarrengatik. Edozein diskriminazio debekatzeak ez ditu bazter utziko egingo lehiakideen oreka, aukera berdintasuna edo osotasun fisikoa babesteko beharrezko neurriak. Neurri horiek beharrezkoak, arrazoizkoak eta proportzionatuak izan beharko dute.

Laugarrena. Beste toki erakunde batzuk. Kontzejuak eta kuadrillak

Foru agindu honetan udalerriei buruz egiten diren aipamen guztiak gainerako toki erakundeek aplikatuko zaizkie, bereziki Arabako Lurralde Historikoko kontzeju eta kuadrilla izenekoek.

Bosgarrena. Zehapen araubidea

1. Foru agindu honetan arautzen dena hausten dutenei zehapenak ezartzeko ahala Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena daukan sailaren titularrak dauka. Nolanahi ere, ahal hori kirolaren arloko eskumena daukan zuzendaritzaren titularrari eskuordetu ahal izango dio, sail horren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen foru dekretuarekin bat etorriz.

2. Zehapen prozedura urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legean araututako zehatzeko ahalaren printzipioen arabera izango da, edo lege horiek ordeztzen dituzten arauetan xedatutakoaren arabera.

3. Halaber, arau hausteei uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan eta martxoaren 30eko 2/2023 Legean aurreikusitako zehapen araubidean ezarritakoa aplikatuko zaie, edo lege hori ordeztzen duten arauetan ezarritakoa.

4. Uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programetan jasota ez dauden eta Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen sailaren titularraren berariazko baimenik ez duten jardueretan parte hartzea edo jarduera horiek antolatzea, zehapenen ondorioetarako, baimendu gabeko jardueratzat hartuko da. Tratamendu bera izango dute baimena emateko ebazpenean eta foru agindu honetan ezarritako arauetan jasotako baldintzak betetzen ez dituzten jarduerak.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Foru agindu hau indarrean jarri aurretik hasitako zehapen eta diziiplina prozedurak Arabako Lurralde Historikoko eskola kiroleko programak arautzen dituen 2021eko otsailaren 19ko 50/2021 Foru Aginduaren arabera izapidetzen jarraituko dira, foru agindu honetako aurreikuspenak aplikatze eragotzi gabe, aginduaren hartzaileentzat onuragarriagoak direnean.

Bigarrena. Aurreko ikasturteetan 84.2 artikuluan aipatzen den baimena eduki duten kirolariek eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programetako jardueretan inskribatuta egoteari utzi arte erabili ahal izango dute baimen hori, artikulua horretan ezartzen diren irizpide berriak gorabehera.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Berariaz indargabetuta geratzen da 50/2021 Foru Agindua, 2021eko otsailaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko eskola kiroleko programak arautzen dituen. Era berean, indargabetuta geratzen dira foru agindu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Kirol arloko eskumena duen zuzendaritzako titularrari ahalmenak eskuordetzea

Antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko abenduaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 58.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, kirolaren arloan eskumena duen zuzendaritzaren titularrari eskuordetzen zaizkio foru agindu honek kirolaren arloan eskumena duen sailaren titularrari ematen dizkion eskumenak, autorizazio eta baimen bereziei dagokienez.

Bigarrena. Kirol arloan eskumena duen zuzendaritzaren titularrarentzako gaikuntzak

Gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, kirol arloan eskumena duen zuzendaritzaren titularra honako hauetarako gaitzen da:

- a) Foru agindu honen eranskinak egokitzeko.
- b) Foru agindu hau behar bezala garatzeko eta betearazteko behar den guztia erabakitzeko.

Hirugarrena. Indarrean sartzea

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean. Salbuespena: honako xedapen hauek geroago sartuko dira indarrean:

- a) Asteko saioen eta jardunaldien kopurua.

Foru agindu honen 21. artikuluan asteko saioen edo jardunaldien gutxieneko eta gehieneko kopuruez ezartzen dena 2026-2027 ikasturtetik aurrera aplikatuko da.

- b) Federazioen jarduerak erakunde parte-hartzaile gisa.

Foru agindu honen 11.4 artikuluan zenbait muga ezartzen zaizkie programetan parte hartzen duten kirol federazioei. Muga horiek 2026-2027 ikasturtetik aurrera aplikatuko dira.

c) Aurrebenjamin kategoriako kirolariak ikastetxeak ez beste erakunde batzuetan inskribatzea.

Foru agindu honen 25. artikuluan muga bat ezartzen zaie 11.1.b) artikuluan aipatzen diren erakundeei: ezin izango dituzte inskribatu aurrebenjamin kategorian ikasten ari diren ikastetxean dena delako kirol modalitatean edo diziplinan jardun dezaketen kirolariak. Muga hori 2026-2027 ikasturtetik aurrera aplikatuko da.

d) Joko denbora esanguratsuak.

Foru agindu honen 45.4 artikuluan ezartzen denez, joko araudietan ezarri behar da kirolari guztien joko denborak esanguratsuak izan behar direla. Araudi aldaketa hori 2026-2027 ikasturtetik aurrera aplikatuko da, beranduenez ere.

e) Aktak aldatzea.

Foru agindu honen 57.3 artikuluan ezartzen da partida eta proben aktak aldatu behar direla gorabeherak eta ikusleen, teknikarien eta jokalarien portaerari buruzko oharrek eta eredugarritzat jotzen diren kirol keinuak aipatzeko. Aldaketa hori abian izan behar da 2026-2027 ikasturterako.

f) Garapen psikomotorreko jarduerak.

Foru agindu honen 23. artikuluan ezartzen denez, debekatuta dago berariazko kirol teknikak irakastea garapen psikomotorreko jardueretan. Debeku hori 2026-2027 ikasturtetik aurrera aplikatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 14a

Kultura eta Kirol Saileko diputatua
ANA MARÍA DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria
JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN



I. ERANSKINA / ANEXO I

KIROL JARDUERA ANITZETAKO PROIEKTUA ■ PROYECTO DE MULTIACTIVIDAD DEPORTIVA

ENTITATEA ■ ENTIDAD

IFZ NIF	
Izena Nombre	

TALDEAREN MEMORIA-PROIEKTUA ■ MEMORIA-PROYECTO DEL GRUPO

Taldearen zbk. N.º de equipo			
Taldearen izena Nombre del equipo			
Kirol Jarduera Anitzaren Mota Tipo de Multiactividad Deportiva	☐ Kirol jarduera anitza (A) Multiactividad deportiva (A). ☐ Kirol jarduera anitza (B): Kirol jarduera anitza + kirol jarduera/modalitate nagusia. Multiactividad (B) Multiactividad deportiva + actividad/modalidad deportiva principal. ☐ Kirola jarduera anitza (C): Kirol jarduera 1 + Kirol jarduera 2 edo Kirol jarduera 3. Multiactividad deportiva (C): Actividad deportiva 1 + Actividad deportiva 2 (+ Actividad deportiva 3).		
• KIROL JARDUERA ANITZA (A) motakoa bada: ez adierazi ezer ez. • KIROL JARDUERA ANITZA (B) motakoa bada: <u>kirol jarduera/modalitate</u> nagusia adierazi (1 ataletan). • KIROL JARDUERA ANITZA (C) motakoa bada: burutzen diren <u>kirol jarduerak/modalitateak</u> adierazi (1., 2. eta, hala badagokio, 3. ataletan). • MULTIACTIVIDAD DEPORTIVA (A): no indicar nada. • MULTIACTIVIDAD DEPORTIVA (B): indicar la <u>actividad/modalidad deportiva principal</u> (en el apartado 1). • MULTIACTIVIDAD DEPORTIVA (C): indicar las <u>actividades/modalidades deportivas</u> (en los apartados 1, 2 y, en su caso, 3)	Kirol Jarduera Anitza B edo C Multiactividad Deportiva B o C	1.-	
	Kirol Jarduera Anitza C Multiactividad Deportiva C	2.-	
	Kirol Jarduera Anitza C Multiactividad Deportiva C	3.-	
Jarduera honako ikasmailetara zuzendua da Cursos escolares a los que se dirige la actividad	☐ LH 1. / 1º E.P. ☐ LH 2. / 2º E.P. ☐ DBH 1. / 1º E.S.O. ☐ DBH 2. / 2º E.S.O.	☐ LH 3. / 3º E.P. ☐ LH 4. / 4º E.P. ☐ DBH 3. / 3º E.S.O. ☐ DBH 4. / 4º E.S.O.	☐ LH 5. / 5º E.P. ☐ LH 6. / 6º E.P.

Egiaztapen kodea Dirección de comprobación
<https://e.s.araba.eus/portal/ConsultaCoe>

Egiaztapen kodea Código de verificación
 EmyQ-VLDf-R9VA-xRCX





Edukien kronograma ■ Cronograma de contenidos					
Hilabeteak ■ Meses	Asteak ■ Semanas				
	1	2	3	4	5
Iraila Septiembre					
Urria Octubre					
Azaroa Noviembre					
Abendua Diciembre					
Urtarrila Enero					
Otsaila Febrero					
Martxoa Marzo					
Apirila Abril					
Maiatza Mayo					
Ekaina Junio					

Tokia eta data ■ Lugar y fecha

Entitatearen ardunadunaren sinadura
Firma de la persona responsable de la entidad



**II. ERANSKINA / ANEXO II****JOAN-ETORRIEN ESKAERA ■ SOLICITUD DE DESPLAZAMIENTOS****ENTITATEA ■ ENTIDAD****IFZ ■ NIF****Izena ■ Nombre****ARDURADUNA ■ RESPONSABLE****NAN/AIZ ■ DNI/NIE****Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos****Telefona ■ Teléfono****Kargua ■ Cargo**

Egiaztapen helburua: Euzko Legebiltzariaren
Egiaztapen kodea: CAYZ-HBXM-2yDC-PeHw
<https://e.s.araba.eus/wps/portal/Consultac.oe>



**ENTRENAMENDUETARAKO JOAN-ETORRIA ■ DESPLAZAMIENTO PARA ENTRENAMIENTOS****ESKATUTAKO JOAN-ETORRIA ■ DESPLAZAMIENTO SOLICITADO****Kirol-modalitatea ■ Modalidad deportiva****Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda:**

Hasierako Eguna Día de inicio		Amaiera Eguna Día fin	
---	--	---------------------------------	--

Asteko egunak ■ Días de la semana

☐ Astelehena ☐ Asteartea ☐ Asteazkena ☐ Osteguna ☐ Ostirala
Lunes Martes Miércoles Jueves Viernes

IBILBIDEA ■ RECORRIDO

Herria eta geltokia Población y parada	Ordua Hora	Jardueraren lekua (bakarrik azkenekoan) Lugar de la actividad (únicamente destino final)

GARRAIOA ERABILIKO DUTEN KIROLARIEN ZERRENDA
RELACIÓN DE DEPORTISTAS QUE USARÁN EL TRANSPORTE

Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos	Jaiotza urtea Año de nacimiento

LAGUNTZAILEAK ■ ACOMPAÑANTES

Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos

OHARRAK ■ OBSERVACIONES

**EGUTEGIA ■ CALENDARIO****2025**

enero							febrero							marzo							abril							
L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D	
			1	2	3	4	5					1	2					1	2			1	2	3	4	5	6	
6	7	8	9	10	11	12		3	4	5	6	7	8	9	3	4	5	6	7	8	9	7	8	9	10	11	12	13
13	14	15	16	17	18	19		10	11	12	13	14	15	16	10	11	12	13	14	15	16	14	15	16	17	18	19	20
20	21	22	23	24	25	26		17	18	19	20	21	22	23	17	18	19	20	21	22	23	21	22	23	24	25	26	27
27	28	29	30	31				24	25	26	27	28			24	25	26	27	28	29	30	28	29	30				
														31														
mayo							junio							julio							agosto							
L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D	
			1	2	3	4						1			1	2	3	4	5	6					1	2	3	
5	6	7	8	9	10	11	2	3	4	5	6	7	8	7	8	9	10	11	12	13	4	5	6	7	8	9	10	
12	13	14	15	16	17	18	9	10	11	12	13	14	15	14	15	16	17	18	19	20	11	12	13	14	15	16	17	
19	20	21	22	23	24	25	16	17	18	19	20	21	22	21	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24	
26	27	28	29	30	31		23	24	25	26	27	28	29	28	29	30	31				25	26	27	28	29	30	31	
							30																					
septiembre							octubre							noviembre							diciembre							
L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D	
1	2	3	4	5	6	7				1	2	3	4	5					1	2	1	2	3	4	5	6	7	
8	9	10	11	12	13	14	6	7	8	9	10	11	12	3	4	5	6	7	8	9	8	9	10	11	12	13	14	
15	16	17	18	19	20	21	13	14	15	16	17	18	19	10	11	12	13	14	15	16	15	16	17	18	19	20	21	
22	23	24	25	26	27	28	20	21	22	23	24	25	26	17	18	19	20	21	22	23	22	23	24	25	26	27	28	
29	30						27	28	29	30	31			24	25	26	27	28	29	30	29	30	31					



Garraituen kopuru osoa ■ Total personas transportadas	
---	--

4/4



III. ERANSKINA / ANEXO III

BAIMENEN ESKAERA ■ SOLICITUD DE AUTORIZACIONES

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE

IFZ/NAN/AIZ ■ NIF/DNI/NIE

Izena / Sozietatearen izena ■ Nombre / Razón social

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ N°

Letra

Esk. ■ Esc.

Sol. ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerrria ■ Municipio

Herria ■ Localidad

PK ■ C. P.

Telefona ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

Entitateentzat soilik da derrigorrezkoa ■ Obligatorio solo para entidades

NAN/AIZ ■ DNI/NIE	Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos
Telefona ■ Teléfono	Kargua ■ Cargo

HONETARAKO BAIMENA ESKATZEN DU ■ SOLICITA AUTORIZACIÓN

Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda	
☐	Eskola-kiroleko programan sartzen ez diren eskola-kiroleko jarduerak antolatzea. Organización de actividades deportivas escolares no incluidas en el programa de deporte escolar.
☐	Eskola-kiroleko programan sartzen ez diren eskola-kiroleko jardueratan parte hartzea. Participación en actividades deportivas escolares no incluidas en el programa de deporte escolar.
☐	Eskola-kiroleko entitateak programan sartzen ez diren eskola-kiroleko jardueratan parte hartzea. Participación de entidades deportivas en actividades no incluidas en el programa de deporte escolar.
☐	Arabako eskola kiroleko umeak beste lurralde historiko edo autonomi erkidegoetako entitateetan parte hartzea. Participación escolares alaveses en entidades de otros territorios históricos o comunidades autónomas.
☐	Estatuko txapelketa federatuetan eskola kiroleko lizentziarekin parte hartzea. Participación en campeonatos estatales federados con licencia escolar.
☐	Federazio lizentziak izapidetzea. Tramitación de licencia federada.
☐	Adina bete ez duten kirolarien parte hartzea. Participación de deportistas que no han cumplido la edad requerida.

1/2

Egiaztapen kodea Código de verificación
PQM-R-JCSa-nr73-PQ83
<https://e.s.araba.eus/web/portal/ConsultaCoe>





☐	Arabako Lurralde Historikokoak ez diren kirolarien parte hartzea. Participación de deportistas que no son del Territorio Histórico de Álava.
☐	Beste baimen batzuk. Otras autorizaciones.

Denboraldia ■ Temporada	Kirol-modalitatea ■ Modalidad deportiva

[illegible]

Tokia eta data ■ Lugar y fecha

Entitatearen ardunadunaren sinadura
Firma de la persona responsable de la entidad



ANEXO IV

ESKOLA KIROLEKO HARMAILETAN ERRESPETUA SUSTATZEKO PROTOKOLOA

1.-PARTIDA EDO PROBAREN AURRETIK (PREBENTZIO NEURRIAK)

a) Partida edo probetako epaile taldeak Arabako Foru Aldundiak emandako elastikoak edo petoak eramango ditu jantzita, errespetuaren aldeko mezuekin, epaile federatuek izan ezik, horiek beren ohiko janzkera erabili ahal izango baitute.

b) Epaileak esleitzen dituzten erakundeek (federazioak edo tokiko taldeak) ziurtatu beharko dute partida edo probetako epaileek badutela honako hauen berri:

1º. Dagokion kategoriara egokitutako joko arauak eta arbitraje arauak.

2º. Protokolo hau.

c) Kirol-erakundeek, jarduerak hasi baino lehen, protokoloaren berri eman beharko diete honako hauei:

1º. Taldeko kide guztiei.

2º. Kirolarien familiei.

d) Ekipoek edo taldeek, beren araudi espezifikotik ezarritakoaren arabera, familien ordezkari bat eduki ahal izango dute, norbere ekipoen edo taldearen ikusleek jokabide egokia izan dezaten bultzatzeko. * *Ikus dokumentuaren 4.1 puntua:*

Familien ordezkari bat nahitaez egon behar den modalitateetan, baldin eta hori partida hasi aurretik betetzen ez bada, epaileak galdutzat emango dio partida edo lehiaketa kasuan kasuko taldeari edo kirolariari. Gorabehera hori alde batera utzita, partida jokatu egin beharko da, salbu eta, epaile taldearen iritziz, partida modu seguru eta hezigarrian jokatzeko inguruabar egokiak ez badaude.

e) Sartzeko eta egoteko arauak erraz irakurtzeko moduan agertu beharko dira eskola kiroleko partidak edo probak egiten diren kirol esparruan.

f) Kirol legea sustatzeko ekintzak egin beharko dira, kirol modalitate edo diziplina bakoitzaren araudi espezifikokoak jasotzen dituenak, hala badagokio.

g) Parte hartzen duten kirol erakundeek, halaber, kirol legea sustatzeko egokitzat jotzen duten beste edozein neurri ezarri ahal izango dute. Beste erakunde bateko taldeek parte hartzen badute, haien oniritzia beharko dute.

2.- PARTIDAN EDO PROBAN ZEHAR. JARDUNBIDEAK

Baldin partida edo lehiaketaren bat abian denean ikusleren batek edozein parte hartzailearen aurka (epaileak, teknikariak, kirolariak, etab.) edo beste ikusleren baten aurka egindako errespetu faltaren bat edo hitzezko indarkeria hautematen bada, bi jardunbide hauetakoren bat hartu beharko da, kasuaren arabera:

A) JARDUNBIDEA 1: OHARTARAZPENA.



1º. NOIZ:

Protesta, keinu eta/edo iruzkin desagokiak egin baditu edo behin eta berriz egin baditu.

2º. ZER:

Epaileak partida edo proba geldiaraziko du, eta gorabehera horren berri emango dio familien ordezkariari edo jokabide okerra izan duten ikusleen taldearen entrenatzaileari. Pertsona horrek, aldi berean, gorabeheraren egileei ohartarazi beharko die jokabide horri utzi egin behar diotela edo, bestela, kirol esparrutik kanporatuko dituztela.

Jarraian:

- a) Gorabehera eragin duen pertsonak edo pertsonak beren jarrera baztertzen badute, berriro ekingo zaio partidari edo probari.
- b) Gorabehera eragin duen pertsonak edo pertsonak beren jokabidea baztertzen ez badute, familien ordezkariaren edo taldeko entrenatzailearen bidez kanporatuko dira kirol esparrutik.
- c) Familien ordezkariak edo entrenatzaileak ez badu helarazten epaile taldeak adierazitako ohartarazpena, edo kanporatutako pertsonak kirol esparrua uzten ez badute, amaitutzat joko da partida edo proba.

3º. NORK:

Epaile lanak egiten dituenaren erantzukizuna da protokoloa aplikatzea.

Nolanahi ere, erakunde parte hartzaileetako honako pertsona hauek eskatu ahal izango diote epaileari protokolo honetan ezarritako jardunbide neurriak aplikatzeko:

- a) Legezko ordezkariak
- b) Kirol koordinatzaileak
- c) Adingabeak babesteko ordezkariak (Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren Lege Organikoa)
- d) Taldeko familien ordezkariak.
- e) Lehiaketan parte hartzen duten kirolarien edo taldeen entrenatzaileak edo ordezkariak.

3. puntu honetan aipatutako eragile guztiak alta emanda egon behar dira eskola kiroleko programan dagokien egoeran, eta beren burua identifikatu behar dute eta lankidetzan aritu epailearekin, neurriak ezartzeko orduan.

Era berean, lehiaketa antolatzen duen federazioak partidaren edo probaren epaileari ere eskatu ahal izango dio protokoloa aplikatzea, federazioko ordezkari baten, erakunde laguntzailearen babeserako ordezkariaren edo probaren antolatzailearen bidez.



Entrenatzaileak bere taldeko ikusleei ohartarazpena egin behar dien egoera guztietan, hark zuzenean egin ahal izango du komunikazioa, edo familien ordezkariaren bidez, edo 3. atal honetan jasotako beste edozein eragileren bidez.

B) JARDUNBIDEA: INSTALAZIOTIK KANPORATZEA EDO BERTAN BEHERA UZTEA

1º. NOIZ:

- a) 1. jardunbidea" gauzatu eta lehiaketari berrekin ondoren, protesta, keinu zein iruzkin desagokiak egiten jarraitzen badute.
- b) Egoera larriak edo oso larriak gertatzen badira, hala nola mehatxuak, larderia, irainak eta laidoak, baita adierazpen arrazistak, xenofoboak, sexistak edo homofoboak ere (aldez aurretik "1. jardunbidea" gauzatu den alde batera utzita).

2º. ZER:

Epaileak partida aldi baterako geldiaraziko du, eta jokabide okerra izan duen ikuslearen taldeko familia ordezkariari edo entrenatzaileari jakinaraziko dio kirol esparrutik kanporatu behar dituela gorabehera hori sortu duten pertsonak.

Jarraian:

- a) Kanporatutako pertsonak edo pertsonak instalaziotik ateratzen badira, berriz ekingo zaio partidari edo probari.
- b) Instalaziotik ateratzen ez badira, edo familien ordezkariak edo entrenatzaileak ez badu jakinarazten epaile taldeak adierazitako kanporatzea, amaitutzat joko da partida edo proba.

3º. NORK:

Protokolo honen 2 A) 3. apartatuan jasotako aurreikuspenak aplikatuko dira.

Horrez gain, kanporatuak izan diren pertsonak instalazioa uzten ez badute, edo gertakarien larritasunagatik egokitzen jotzen bada, epailea edo protokoloaren 2 A) 3. atalean jasotzen diren pertsonetako edozein harremanetan jarri ahal izango da udaltzaingoarekin edo Ertzaintzarekin, bai zuzenean, bai instalazioaren ardura duen pertsonalaren bidez.

3.- PARTIDA EDO PROBAREN ONDOREN. GORABEHERAK JASOTZEA

A) EPAILEAK.

Epaileek aktan jasoko dituzte protokolo honetan zehaztuta dauden eta aplikatu diren jarduketak, bai eta partida edo probaren aurretik, bitartean edo ondoren izandako gorabeherak ere, diziplina edo lehiaketa batzorde eskudunak dagozkion diziplina edo zehapen neurriak har ditzan.

Gorabeherak akta itxi ondoren gertatzen badira, txosten osagarri bat erantsiko zaio aktari.

B) KIROL FEDERAZIOAK.

Kirol federazioak gertatutakoaren berri eman beharko die eta epaileak egindako akta eta/edo txostena bidali, honako hauei:



1º Federazioko bertako adingabeak babesteko ordezkariari.

2º. Arabako Foru Aldundian kirolaren arloko eskumena duen zerbitzuari.

3º. Partida edo lehiaketa horretan parte hartu duten kirol erakundeei.

4º. Instalazioaren erakunde titularrari, lehiaketaren parte hartzaileetako bat ez denean.

Era berean, lehiaketa/diziplina batzordeak lehen auzialdian proposatzen dituen epaiak (aldekoak zein aurkakoak) ere jakinarazi beharko dizkie kirol federazioak pertsona eta erakunde horiei.

C) KIROL ERAKUNDEAK

Protokolo honetan aipatutako edozein gorabehera gertatzen den partida edo proba batean parte hartu duen kirol entitateak:

1. Txosten bat bidali ahal izango die dagokion federazioari eta Arabako Foru Aldundian kirol arloko eskumena duen zerbitzuari, azter dezaten eta, hala badagokio, neurri egokiak har ditzaten.

2. Txosten bat bidali beharko dio adingabeak babesteko ordezkariari.

3. Gertatutakoa ikertu eta aztertu beharko du, eta, hala badagokio, beren barne araubideak ezar ditzakeen zehapen neurriak eta/edo gertakari berriak saihesteko egokitzen jotzen dituen neurri zuzentzaileak hartuko ditu.

4. Inplikaturako beste entitateetako arduradunekin harremanetan jarri ahal izango da, ikuspegi eraikitzaile batetik, informazio guztia izan dezaten eta, horrela, gorabehera ahalik eta modurik egokienean kudea dezaten.

4. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK

A) SARTZEKO ETA BERTAN EGOTEKO ARAUAK EZ BETETZEA

Eskola kiroleko lehiaketak egiten diren kirol esparruetan sartzeko eta egoteko arauak betetzen ez badira, arau horiek betetzen ez dituztenei kirol esparruetan sartzeko eta bertan egotea galarazteko betebeharra izango dute honako entitate hauek:

1. Etxeko taldea eta kanpoko taldea dagoen partidetan, etxeko taldearen entitatea.

2. Etxeko talderik ez dagoen lehiaketetan, proba antolatzen duen entitatea.

Era berean, kirol instalazioen titulartasuna duenak aurreko paragrafoan ezarritako neurriak aplikatzeko ahalmena izango du.

B) FAMILIEN ORDEZKARIA

Ekipoetan figura hori egotea borondatezkoa da, modalitate baten araudi espezifikoak hura nahitaezkoa dela ezartzen duenean izan ezik. Bigarren kasu horretan, protokolo honetan figura horrentzat xedatutakoa modalitate bakoitzaren araudi espezifikoaren osagarri izango da, haren aurkakoa ez den guztian.



Familien ordezkaria taldearen jokabide ona zaintzeaz arduratuko da eta, bereziki, bere taldeko senide eta ikusleena, bai partida edo probako epaileari laguntzeaz ere, protokoloa bete dadin.

Hori aplikatuz, epaileek ikusleak ohartarazi ahal izango dituzte, bai entrenatzailearen bidez, bai familien ordezkariaren bidez.

Familien ordezkaria, betiere:

1. Aktan inskribatuta egon beharko da, dagokion eskola lizentziarekin, bere eginkizunak bete ahal izateko.

Nahitaezkoa den modalitateetan, salbuespen gisa, eta taldeko familien ordezkaria ez badago, entitateko koordinatzaileak edo entitateko babes ordezkariak bete ahal izango ditu eginkizun horiek, betiere dagokion eskola lizentzia aurkezten badu.

2. Epaileari bere burua aurkeztu eta partidaren edo proban non egongo den adieraziko dio .

3. Epaileak erraz ikusteko eta iristeko moduko leku batean egon beharko du.

4. Arabako Foru Aldundiak emandako besokoa edo identifikazio bereizgarria izango du jarrita, partidaren edo proban parte hartzen duten gainerako ikusleek eta agenteek identifika dezaten.

C) LIZENTZIA DUTEN PARTE HARTZAILEEN ARTEKO GORABEHERAK

Protokolo hau ikusleak tartean diren gertakarietan soilik aplikatuko da.

Partidan edo proban parte hartzen duten kirolarien, teknikarien edo eskola lizentzia duten beste pertsona batzuen arteko gorabeherei edo errespetu faltei, edo horien eta epaile taldearen artekoei, modalitate bakoitzeko joko erregelamendu egokitueta ezarritako neurriak aplikatuko zaizkie, hargatik eragotzi gabe diziiplina organo eskudunak har ditzakeen diziiplina neurriak eta, hala badagokio, dagozkion administrazio zehapenak.

D) PROTOKOLOA EZ BETETZEA

Protokoloan ezarritako jarduerak ez betetzeak dagozkion diziiplina-, administrazio- edo ekonomia erantzukizunak (dirulaguntzak) ekar ditzake.